Goienkaria

2008ko azaroaren 21a > Egubakoitza > VIII. urtea > 354. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Marka fisikoak uzten ez dituen biolentzia sexista ere bada"

Rosa Urtzelai
Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Plataforma > 09

G2a Juan Carlos Perez abeslaria etzi, Elgetan > 39

AZPIEGITURAK AHTren kontrako manifestazioa bihar, Bergaran > 05

BERGARA Adin txikikoendako babes-etxea jarriko du Foru Aldundiak > 15

LEINTZ GATZAGA Pilotaleku azpiko garaje itxirako izenemate epea zabalik dago > 35

ARETXABALETA > UDALA

EAk utzi egin du Udal Gobernua Aretxabaletan

EZUSTEA Aralarrekin osatu du gobernua EAk azken urte eta erdian. Aralarrentzat ezustekoa izan da EAren erabakia

DESADOSTASUNAK Hainbat proiektutan adostasunik lortu ez izana da EAk erabaki hori hartzeko arrazoia > 27

ESKORIATZA > KONTSULTA

Zaharren egoitzaren etorkizuna erabakitzear

Eguaztenean hasi ziren eskoriatzarrak botoa ematen Mesedeetako Ama zaharren egoitzaren etorkizuna erabakitzeko. Eraikinaren eta haren kudeaketaren gaineko hiru aukeren artean hautatu beharko dute herritarrek. Hauteslekua udaletxean jarri dute eta zapatura arte bozkatu ahalko da. Zapatuko 14:00etan itxiko dute hauteslekua. Emaitza *www.eskoriatza.net* helbidean jarriko dute. > 06

EUSKARA > PLAN BERRIA

Euskararen plana Bergarako epaitegian

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak bultzatuta, erkidegoko hiru lurraldeetako ia epaitegi guztietan euskararen erabilera plana jarri dute abian; tartean, Bergarako epaitegian azaroan jarri dute martxan plana, eta Justizia Sailak kontratatu duen enpresako trebatzaileek ematen diete aholkularitza epaitegietako langileei. Planaren helburu nagusia da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea. > 05



ELKARTEA Irudian, AED eta horren parte diren Txatxilipurdi eta Ekin emakumeak elkarteko egungo kide batzuk. M.B.

Egitarau zabala Arrasateko AED elkartearen 25. urtemuga ospatzeko

Datorren astean, hilaren 29an, 25 urte beteko dira Euskal Herriko lehen euskara elkartea sortu zela, AED. Urteurrena ospatzeko egitarau zabala antolatu dute. GOIENKARIAk mende laurdenari begiratua egin nahi izan dio sortzaileekin eta gaur egungo kideekin. > 02-03

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-35
Kirola > 36-37
Kultura > 41
Sailkatuak > 42-44
Telebista-Irratia > 47
Denbora-pasa > 48
Berri-zakua > 49
Non-zer > 50-51

Etxebizitzen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 12 orriko gehigarria etxebizitzei buruz, dena koloretan.



ETXEBIZITZAK > KRISIA

Eraikuntza krisiak eragina izan du bailaran

Eibarko Lekber enpresa eraikitzailea ordainketa etendura egoeran geratu izanak ekarri ditu ondorioak bailarara. Besteak beste, bertan behera geratu dira Bergaran eraikitzen ari zen 38 etxetako lanak. > 07

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 298
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
SEIN
grupoetaldea
Euskadiko erreferente nagusia industria horniduran

EUSKARA > AED

Zilarrezko ezteiek merezi dutelako, egitarau ederra

URTEURRENA Azaroaren 29an, 25 urte beteko dira Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkartea ofizialki aurkeztu zela; Euskal Herriko lehen euskara elkartea

EKIMENAK Asteotan euskararen etorkizunaren gaineko hitzaldiak daude; abenduaren 3an omenaldia izango da, eta abenduaren 19an eta 20an, nazioarteko jardunaldiak




Elkartekoak taloak egiten.



Dantzariak 15. urteurrenean.



San Fermin Txiki eguna antolatzen du urtero Txatxilipurdik.



AEDk bu



Ekinek a

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Datorren astean, azaroaren 29an, 25 urte beteko dira Euskal Herriko lehen euskara elkartea sortu zela. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak zilarrezko ezteiak egingo ditu egun horretan. Urteurrena ospatzeko egitarau zabala antolatu du, askotariko ekimenekin. Berau antolatzen diharduen Josu Herrartek gogorarazi du, horren harira, asteotan euskararen etorkizunaren gaineko hitzaldi sorta egiten dabiltzala, *Euskarak, gerorik bai?* lelopean.

Joan den astean, Iñaki Martinez de Luna soziologoak hizkuntza gutxituen eginkizuna gaur egungo mundu globalizatuetan izan zuen berbagai. Herrarte pozik zegoen arabarraren hitzaldiak izandako harrerarekin, Jokin Zaitegi gelan 50 lagun inguru bildu ziren-eta. Atzo, eguena, zikloaren bigarren hitzaldia egitea zegoen aurreikusita. Joxerra Garzia irakasle ezagunak *Sehaskatik sarera. Euskararen atarramentuak komunikazioaren gizartean* izeneko hitzaldia egitekoa zen Kulturateko areto nagusian. Josemari Velez de Mendizabal idazle eta historiagile aramaioarrak itxiko du zikloa hilaren 27an, *Ez nau etorkizunak kezkatzen* hitzaldiarekin.

Abenduaren 3an AEDren sortzaileak, bultzatzaileak eta arrasatearrak omenduko dituzte

Abenduaren 20an Euskal Herriko euskara elkarteen topaketa egingo dute Kulturaten

OMENALDIA

Ekimenak ez dira horretan amaituko. Abenduaren 3an, euskara elkartearen sortzaileei, bultzatzaileei eta arrasatearrei omenaldi hunkigarria egingo zaie Kulturateko areto nagusian.

Herrartek hauxe dio: "Ekitaldi hori guretako bereziki garrantzitsua da, urteurreneko datatik duen gertutasunagatik eta Euskararen Eguna delako. Egun aproposa da gure esker ona erakusteko". Jaurlaritzako, Diputazioko, Udaleko, Topaguneko eta AEDko ordezkari banak hitza hartuko dute; oraindik, baina, zehazteke dago zeintzuek hitz egingo duten ekitaldi horretan. Urte hauetan guztietan euskara elkartean ibilitakoak ere bilduko dira, besteak beste, han.

HASIERAKO URTEAK

Azken orduko ezustekorik gertatzen ez bada, tartean Bittori Etxeberria amezketarra izango da. Elkartea sortu zenean Arrasaten bizi zen eta gau-eskolako irakasle jarduten zuen. Elkartearen ideia nola sortu zen gogorarazi du Etxeberriak: "Euskarazko klaseetan ikusten genuen euskaldun berriek ahalegin handia egiten zutela, eta bestetik, argi eta garbi ikusten zen kalean, familian eta koadrilan apenas entzuten zela euskara. Hortaz, txokoa antolatzea pentsatu genuen. Motibazioak ametsa errealitate bihurtu zuen. Gero, txoko hori askoz zabalagoa izan zen. Bilera asko egin ostean, Arrasate Euskaldun Dezagun sortu genuen". Nabarmendu du garai hartan egitasmoak izandako arrakasta: "Jende askok hartu zuen elkartea bere bezala".

Etxeberriak dio argi zegoela elkarte berriak "guztiz autonomoa" izan behar zuela: "Ez zuen inongo loturarik izan behar alderdi politikoekin. Jakina, laguntzak eskatu behar genituela bagenekien, baina inongo lotura barik, askatasun osoarekin".

Joxe Mari Muxika > AEDko presidente ohia

"Euskara ez da salbatu behar, erabili egin behar da; bestela ez dauka baliorik"

M.B. > ARRASATE

Joxe Mari Muxika arrasatearrak urte asko daramatza euskalgintzan murgilduta. AEDko sortzaileetako bat izan zen eta elkarteko presidentea ere izan zen 1988tik 1993ra. Gaur egun Txatxilipurdiko presidentea da.

AEDk 25 urte beteko ditu hilaren 29an. Sorreran ibili zinen, beste hainbatekin batera. Nolakoa izan zen hasiera?

Euskarak, batez ere erabilera aldetik, zeukan egoera izan zen ardura nagusia. Horrekin batera, euskaldunen artean sakabanatze handia zegoen, irizpide politikoak zirelaeta. Sakabanaketa hori gainditzeko beharra zegoen eta euskararen etorkizunaz arduratuko zen elkarte batean biltzea aproposa ikusi genuen.

Elkartea sortu eta berehala ekin zion bere egitekoari. Bilerak egiteko lokala aurkitu genuen. Zeregin asko zegoen: bazkideak gaiaren araberako lantaldeetan antolatu, egun erdiko lanarekin eragilea jarri, Udalari euskara zerbitzua antolatzea eskatu edo kuotaz gain dirulaguntzak bilatu.



M.B.

Elkarteko presidentea izan zinen 1988tik 1993ra. Zer oroitzapen dituzu?

Urte haiek izan ziren elkartearen gorpuzte urteak. Udalarekin elkarlan hitzarmenak urtez urte egiten ziren. ARKOren sorrera eta sendotzea gertatu zen eta Txatxilipurdi elkartea bihurtzeko lehen pausoak egin ziren.

Zenbat urte daramatzazu euskalgintzaren munduan?

Ularco eta Ulgor kooperatibetan hasi nintzen ikusten euskara zein gutxi erabiltzen zen. 1978an, beste batzuekin batera, euskarazko ikastaroak antolatzen hasi eta ordutik hona mundu horretan ibili naiz.

Gauzak asko aldatu dira?

Jendearen jarrera aldaketa nabarmenduko nuke. Erakundeek euskara salbatuko dutela uste du; hezkuntzan eta administrazioan egiten denarekin salbatuta dagoela. Euskara ez da salbatu egin behar, euskara erabili egin behar da; bestela ez dauka baliorik.



ARGAZKIAK: AED ETA GOIENKARIA



ltzatu zituen Arrasateko komunikabideak.



ntolatutako dantza ikastaroa.

Egitaraua, egunez egun

Azaroaren 27a, eguena
19:00 Jose Mari Velez Mendizabalen hitzaldia Kulturaten: *Ez nau etorkizunak kezkatzen.*

Abenduaren 3a, eguaztena
19:00 Omenaldia sortzaileei, sustatzaileei eta Arrasateko herritarrei, Kulturaten. Ekitaldian txalapartariak, dantzariak, bertsolariak, Goikobalu eta abar izango dira.

Abenduaren 19a, egubakoitza
09:00 Jardunaldiak: *Hizkuntza gutxituak gaur egun: erronkak eta aukerak.* Garaia berrikuntza gunean izango dira. Goizean, 09:00etatik 14:30era iraungo dute eta ondoren, bazkaltzeko geldiunea egingo dute. Arratsaldean, 16:00etan hasiko dira, Carmen Perezen hitzaldiarekin.
Hizlariak:
> Carme Junyent: *Aniztasun berria, hizkuntza gutxituendako aukera berria.*
> Tomas Wicherkiewixz: *Hizkuntza gutxituak, balio nagusiak, Europako koloreak.*
> Carlos Callon: *Galegoaren aldeko gizarte mugimendua. Bideak eta emaitzak.*
> Carmen Perez: *Hizkuntzaren aldeko eragileak katalanaren lurraldeetan. 'Plataforma per la Llengua'ren lana gizartean.*
> Jasone Mendizabal: *AED, egin eta eragin.*

Abenduaren 20a, zapatua
10:00 Euskara elkarteen arteko topaketak. Euskal Herriko euskara elkarteetako kideak bilduko dira Kulturaten; tartean, Debagoienekoak. Parte hartu gura dutenek aurretik eman behar dute izena AEDn.

JARDUNALDIAK

Urteurreneko egitaraura itzulita, Gabonak baino lehen, *Hizkuntza gutxituak gaur egun: erronkak eta aukerak* lelopean, nazioarteko jardunaldiak egingo dituzte. Herrarteren arabera, "abenduaren 3ko omenaldiak abiapuntua izan behar du, egun parte hartzen ez dutenak erakartzeko eta euskararen alde lan egiten jarraitzeko".

Hortaz, abenduaren 19an, hainbat adituk parte hartuko dute Garaia berrikuntza gunean: Adam Mickiewicz Universityko Hizkuntza Gutxituen Saileko buru Tomas Wicherkiewicz poloniarrak; Kataluniako Grup d'Estudi de Llengües Amenaçadesko presidente Carmen Junyentek eta Plataforma per la Llenguako zuzendaritzako kide Carmen Perezek; Galiziako A Mesa pola Normalizacion Lingüisticako presidente Carlos Callonek; eta Topaguneko zuzendari Jasone Mendizabalek.

Edonork parte har dezake jardunaldietan. Interesatuek, baina, aurretik eman behar dute izena AEDk Pablo Uranga kalean duen egoitzan, 943 71 18 28 telefonoan edo *historia@aedelkartea.com* helbidean. Hiru kuota daude: orokorrak 40 euro balio du; euskara elkarteetako bazkideenak, 30 euro; eta ikasleenak eta langabeenak, 20 euro. Bazkaria sartuta dago prezio horretan.

BARNE GOGOETA

Hurrengo egunean, abenduak 20, euskara elkarteen arteko topaketak antolatuko dira Kulturaten. Debagoieneko elkarteak ez dira faltako. Herrartek honakoa dio: "Euskara elkarteek 25 urteko ibilbidea egin dugu, eta, beraz, momentu egokia da euskararen eta euskara elkarteen egoeraren gaineko barne gogoeta egiteko, aurrera begira hartu beharreko bidea zehazteko. Gaur egungo gizartean, parte-hartzea asko murriztu da, beste garai batzuekin alderatuz. Horri buelta eman behar diogu, jendea erakarri".

Horren harira, elkarteen gaur egungo egoeraz hitz egingo digu teknikariak. Azpimarratu du bazkidetza indartsua duela eta jende asko bildu dela inguruan. Gaineratu du, baina, egungo militantzia ez dela beste garai batekoa: "Egunerokotasunean parte hartzeko jendea erakarri nahi dugu. Euskararen alde nahi egin behar dugu, ezinbestekoa da". Lan-ildoei dagokienez, hausnarketa prozesuan murgilduta dagoela aipatu du: "Epe hurbilera, eredu berria abian jartzeko bilerekin gabiltza orain".

Urteurrenera bueltatuz, Herrartek azaldu du ospakizunak maiatzean amaituko direla, *Denok elkarrekin* lelopean egingo den jaialdi batekin. Herriko eragileak inplikatu gura dituzte horretan.

AURKEZPEN EKITALDIA



Irudian, Monterronen egindako aurkezpen ofiziala. GOIENKARIA

Elkartearen aurkezpen ofiziala 1983ko azaroaren 29an egin zuten

Goiko irudia Arrasateko Monterronen aterata dago, 1983ko azaroren 29an. Egun hartan AED euskara elkartearen aurkezpen publikoa egin zuten. Euskararen presentzia eta erabilera eskasa zela-eta, euskaldunon beharrak asetzeko konpromisoa hartu zuen lagun talde batek. Soziolinguistikako hitzaldi batzuetan elkartearen oinarriak ezarri ziren eta ondoren, Euskal Herriko lehen euskara elkartearen sorrera etorri zen.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!

SARRERAK
JUAN CARLOS PEREZ-en KONTZERTURAKO SARRERAK
Irabazlea:
Mertxe Kalparsoro Esteibar (Aramaio)

SARRERAK
BRUESA GBC-ViveMenorca
Irabazlea:Juan Ramon Balenziaga (Arrasate)
BRUESA GBC-Pamesa
Irabazlea: Miren Bengoa Leibar (Arrasate)

KAMERA
Irabazlea:
Amaia Bikuña Mtnez. de Zuazo (Oñati)

KAMISETA
DANBAKAKO KAMISETA 1
Irabazlea:
Mertxe Odriozola Igartua (Oñati)

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA"
TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).
Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak





ESKAINTZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan finantzatzeko.

+

570 €
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com

naturgas energia



Bergarako epaitegiko langileek zerbitzua euskaraz emateko prestakuntzan dihardute. MIREIA BIKUÑA

EUSKARA > EPAITEGIA

Euskara planak epaitegietan, hizkuntza eskubideak bermatzeko

Euskararen erabilera plana burutzen dihardute Gipuzkoako epaitegietan; tartean, Bergarakoan

Justizia Sailak kontratatu duen trebatzaileen aholkularitza jasotzen dute langileek

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak bultzatuta, erkidegoko hiru lurraldeetako ia epaitegi guztietan euskararen erabilera plana jarri dute abian; tartean, Bergarako epaitegian. Hain zuzen ere, azaroan jarri dute martxan euskara plana Bergaran.

Planak aurrera eroateko, Justizia Sailak kontratatu duen enpresako trebatzaileek aholkularitza ematen diete epaitegietako langileei. Miren Lazkano da Bergarako trebatzailea eta hark eman digu planaren berri: "Bergarako epaitegiko euskara planak alor ugari hartzen ditu; eta euskararen erabileran, ezagutzan eta motibazioan eragin gura dugu. Trebatzaileok aholkularitza ematen diegu langileei".

Planaren helburu nagusia da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea. "Bergarako langileek batzorde bat osatu dute, eta euren lana da epaitegian euskara bultzatzea. Trebatzaileok lan hori guztia kudeatzen lagunduko diegu. Urte batzuk barru, herritarrek aukera izango dute justizia administrazioarekin dituzten hartu-emanak euskaraz egiteko, hasieratik bukaerara arte. Orduan bukatuko da trebatzaileon lana", esan digu Miren Lazkanok.

MINTZA SAIOAK EGINGO DITUZTE

Bergaran egiten diharduten ekintzen artean, besteak beste, mintza saioak egiten dituzte astelehenetan eta eguenetan. "Bi motatako saioak antolatu ditugu: ahozkoak eta idatzizkoak. Ahozkoak astelehenetan egiten ditugu, eta euskara maila hobetu gura dutenendako dira. Ostera, idatzizkoak euskaraz lan egiteko euren buruak gaitu gura dutenendako dira eta eguenetan egiten ditugu. Biak ala biak Bergarako Justizia jauregiko liburutegian egiten ditugu", dio Lazkanok.

Azaroan hasitako planarekin, euskararen presentzia nabarmen igo da epaitegietan, Miren Lazkanoren ustez: "Gu azaroan hasi gara ekintzak egiten, baina zenbait barrutitan, saio eta ekintza zehatzak egin zituzten iaz. Euskararen presentzia nabariagoa da egun: errotuluetan, agirietan eta herritarrek jasotzen duten zerbitzuan. Bestalde, epaitegira joaten direnek jakin behar dute euskararen aldeko plana lantzen dihardugula, eta hala gura badute euskara erabiltzeko aukera izango dutela".

Epaitegietan abian jarri duten egitasmoa justizia euskalduntzeko prozesuan aurrerapauso inportantea dela diote Bergarako epaitegitik: "Justizia denbora luzea egon da euskara eremuetatik kanpo, baina egoera aldatu egingo dugu".

DATUA

5
EPAITEGI

Bergarako, Eibarko, Tolosako, Donostiako eta Irungo epaitegietan jarri dituzte martxan planak. Plangintzatik kanpo Azpeitiko epaitegia bakarrik geratu da.

ESANAK

"Herritarrek jakin behar dute euskara erabili gura badute horretarako aukera izango dutela epe motzean"

Miren Lazkano > Trebatzailea

HITZARMENA

Gipuzkoako udalei euskararen normalizazioan laguntzeko programa

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei euskararen normalizazioan laguntzeko garatu duen programaren aurkezpena egin zuen hilaren 14an. *Udalekin* programaren helburua da euskararen sustapen edo normalizazio lanetan dabiltzan udal teknikariei laguntza zehatza ematea. Horren harira, gaiari eraginkortasunez heltzeko, eta aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko, Arrasateko Emun kooperatibaren zerbitzua kontratatu du Foru Aldundiak. Emunek esperientzia eta hurbiltasuna eskainiko dizkio egitasmoari. Programa horretan garrantzi berezia eman gura diote etengabeko prestakuntzari, eta bi bide erabiliko dituzte: prestakuntza saioak eta praktika komunitatea. Bereziki jorratuko dituzten beste esparru batzuk dira Intranet, HizBeGia 07 ikerketa lana gizarteratzea eta *Etorkinen hizkuntza integrazioa Gipuzkoan* izeneko ikerketa.

> BIRZIKLAPENA

Mankomunitateak 170 konpostagailu banatu ditu herritarren artean

Konpostagailuak banatzeko Debagoieneko Mankomunitateak egin duen hirugarren kanpaina bukatzear dago; eta oraingoz, 170 konpostagailu banatu dituzte. Konpostagailua edukitzeko interesa erakutsi dutenek ordu eta erdiko ikastaroa egin zuten, konpostagailua nola muntatu eta konposta nola egin ikasteko. Debagoieneko herrietan zazpi ikastaro antolatu dituzte guztira. Aurretik 403 konpostagailu banatu zituzten.

> DEIALDIA

Bihar AHTren aurkako manifestazioa egingo dute Bergaran

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta manifestazioa egingo dute bihar Bergaran. San Martin plazatik irtengo dira 19:30ean eta herriko kaleetan ibiliko dira. Gainera, eguaztenean, hilaren 26an, elkarretaratzea egingo dute Bergarako epaitegiaren aurrean, 08:30ean.

Bestalde, beste hainbat mobilizazio egingo dituzte lanetan, enpresetan eta alderdi politikoen egoitzetan.

> EUSKARA

Euskal Kulturgintzaren Transmisio titulurako izenematea zabalik

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua lortzeko izenemate epea zabalik dute abenduaren 15era arte. Izena emateko bi aukera dituzte interesatuek: HUHEZI fakultatera joatea, 09:45etik 12:00etara arte edo 15:30etik 17:30era arte; edo, *www.mondragon.edu/huhezi/ikasketak* webgunean sartuta. Ikastaroaren matrikulagatik 1.900 euro ordaindu beharko dute. Iaz, 60 ikaslek egin zuten ikasturtea.

> DEIALDIA

Kontseiluaren urtemuga festarako autobusak ibarretik

Kontseiluak hamar urte bete ditu, eta abenduaren 13an festa erraldoia egingo dute BEC-en. Horren harira, Arrasateko Euskalgintzak autobusak antolatuko ditu. Interesatuek AEDn, AEKn edo Elkar mega dendetan eman behar dute izena, eta 10 euro ordaindu. Festara sartzeko gonbidapena beharrezkoa da. Arrasatetik autobusez joaten direnek, gonbidapena eta lehentasuna izango dute BECen sartzeko.



Eguaztenean hasi ziren eskoriatzarrak udaletxean bozkatzen. ESKORIATZAKO UDALA

ESKORIATZA > KONTSULTA

Zapatura arte, kontsultan esku hartzeko aukera

Zapatuan 14:00etan itxiko dituzte zaharren egoitzaren gainean bozkatzeko mahaiak; emaitzak udal webgunean jarriko dituzte

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Herenegun, eguaztena, hasi zen herriko zaharren egoitzaren gaineko bozketa. Udaletxean jarri dituzte bozkatzeko mahaiak eta gaur, egubakoitza, goizez eta arratsaldez aukera dago horretarako; baita zapatu goiz eta eguerdian ere.

Mesedeetako Ama zaharren egoitza Jose Aranak utzitako diruarekin eraiki zuten orain dela 100 bat urte eta horren kudeaketa herriko patronatuak dauka. Orain dela hilabete batzuk, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zuen gaur egungo egoitzak ez dituela baldintza guztiak betetzen eta ezinbestekoa dela lan handiak egin edo egoitza berria egitea.

HIRU AUKERA MAHAI GAINEAN


Horren aurrean, patronatuan esku-hartzea daukan Udalak erabaki zuen erabakia herritarren esku uztea. Hain zuzen ere, Udalak jakinarazi du obra guztia egiteko diru nahikorik ez duela, eta, gainera, kezka agertu du Aldundiak ehuneko ehun diruz lagunduz gero egoitzaren kudeaketa GSR enpresak eramatea ezartzen duelako.

Hala, 16 urtetik gorako 3.474 eskoriatzar daude bozkatzera deituta, eta hiru aukera eman dizkiete: gaur egungo egoitzan egokitze lanak egitea eta kudeaketa Udalak eramatea; gaur egungo egoitza egokitu eta kudeaketa GSRk eramatea; eta egoitza berria eraiki eta kudeaketa GSRren eskuetan uztea.

Dena dela, Udalak jakinarazi du herritarrek lehenengo edo bigarren aukerak aukeratuz gero, egokitze lanak finantzatu ahal izateko Udalak bestelako diru iturriak bilatu beharko dituela.

ZAPATUAN, EMAITZAK EMAN

Bihar, zapatua, 14:00etan bukatuko da bozkatzeko aukera udaletxean. Jarraian bozketako emaitzak zenbatuko dituzte eta lehenbailehen Udaleko webgunean jarriko dituzte guztiendako ikusgai.



Joseba Erkizia > HABEko zuzendaria

"Hasierako helburu nagusia euskara zekien jendea bere hizkuntzan alfabetatzea zen"

U. MADERA/A. EZKIBEL > ARRASATE

Joseba Erkizia HABEko zuzendaria da 2005. urteaz geroztik. 1958an Andoainen jaio zen, eta Euskal Filologian lizentziaduna da. Eguaztenean Arrasate irratian izan genuen, HABEk bete berri dituen 25 urteen gainean berba egiten.



Joseba Erkizia UBANE MADERA.

Zenbat ikasle pasa dira 25 urte hauetan euskaltegietatik?

Azken 20-25 urte hauetan esan dezakegu 350.000 ikasle pasatu direla euskaltegietatik. Jende asko da; eta, kontuan hartuta ikasle helduak direla, honek erakusten du euskal gizarteak elebidun izan gura duela, euskaldun izan gura duela. Eta honek animatu egiten gaitu aurrera begira lanean jarraitzeko.

Askorentzat gau eskolak izan ziren euskara ikasteko bidea, ezta?

Bai, halaxe da. 1966. urtetik aurrera euskal jendeak alfabetatze kanpainak jarri zituen martxan; helburua zen euskara zekien jendea bere hizkuntzan alfabetatzea. Hau da, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna eskuratzea.

Baina helburua ez zen hori bakarrik. Etxean euskara ikasteko aukera ez zutenek izan euskara ikasi gura zuten. Jendeak bere giroa euskaldundu gura zuen; hala, berehala sortu ziren gau eskolak. Lehenbiziko garai hartan hiru orduz irekita egoten ziren, eta gero, 70eko hamarkadatik aurrera, euskaltegiak sortu ziren, gaur egun ezagutzen ditugun euskaltegi sare nagusiak: AEK, udal euskaltegiak...

Gaur egun, zenbat euskaltegi batzen ditu HABEk?

HABEk homologatutako sarean 107 euskaltegi daude gaur egun. Galdera polita da, jendeak ez dakiela zer den HABE, zer diren euskaltegiak... Berez, HABEk homologatutako sarean udal euskaltegiak eta bestelako euskaltegiak daude; esan dezagun, pribatu homologatuak. HABEk egiten duena da helduen euskalduntze alfabetatzea sustatu eta diruz lagundu. Denera 107 euskaltegi dira; 39 udal euskaltegiak dira eta gainerakoak dira euskaltegi pribatu homologatuak. Horrek esan gura du HABEk jartzen dituen gutxiengoak betetzen dituztela.

25 urte hauetan egin den aurrerapauso garrantzitsua profesionalizazioa izango zela pentsatzen dut.

Zalantza barik. 1983an sortu zen HABE eta hasieratik argi zuen zerbitzuaren kalitatea hobetzea zela helburua. Horretarako, irakasleen formazioa hobetzea eta profesionalizaziora iristea gura zen. Horrek ekarri duena da gaur egun ematen den zerbitzua guztiz homologatua izatea, eta beste edozein hizkuntza ikasteko zerbitzuekin erabat parekatua egotea euskara.

Euskara tituluaren inguruan balio ofiziala eskuratzea garrantzitsua izango zen euskaltegientzat.

Bai, urtero 35.000 pertsona inguru joaten da euskaltegietara euskara ikastera eta hobetzera. Gertatzen ari zen euskarazko titulazioak ugaritu egin zirela, alor batean edo bestean aritzeko euskarazko titulazioak eskatzen zituztelako. Garaia heldu zitzaigun jendeari erraztasun gehiago emateko; alegia, norbaitek agiri bat leku baten atera, eta agian beste leku baten aurkezteko ez zion balio. 2008. urtean, apirilean, Euskarazko Agirien Dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta agiri gehienak hor sartzen dira. Batzuk falta dira, eta horiek oraintxe daude onartzeko tramitazioan. Orain jendeak azterketa bakarra egin beharko du eta, gaindituz gero, leku guztietarako balioko dio agiriak.

HABEk badauka beste modurik euskalduntze eta alfabetatze bide horretan?

HABEk euskaltegien lana koordinatu eta sustatzen du; baina ez du ikasleekin zuzenean lan egiten. Ikasleekin zuzenean euskaltegiak dabiltza lanean.



HABEk omendutako euskaltegietako irakasle batzuk. ARANTZAZU EZKIBEL

Debagoienean, bederatzi izan dira HABEk omendutako irakasleak

HABEk 25 urte edo gehiago euskara irakasten ibili diren irakasleak omendu ditu. Tartean, ibarreko bederatzi irakasle daude: Bergarako Kontxi Umerez, Nerea Altzelai, Maria Dolores Lete eta Izaskun Soraluze; Arrasateko Miren Arregi eta Oskar Elizburu; Aretxabaletako Nati Abasolo eta Arantxa Aiestaran; eta, Oñatiko Koldo Zumalde. Omenaldian, Iñigo Arregi arrasatearrak egindako *Leihoa* oroigarria jaso zuten. Irudian, omenaldia jaso zuten ibarreko sei lagun: Lete, Ugarte, Elizburu, Umerez, Altzelai eta Soraluze.

ENPRESA

Fagorreko soldatak %8,5 jaits daitezke

Jaitsiera portzentaje hori proposatu du zuzendaritza batzordeak

GOIENKARIA > ARRASATE

Fagor Taldearen Zuzendaritza Batzordeak proposatu du datorren urteko soldatak %8,5 jaistea Fagorren negozio guztietan, Etxetresna Elektrikoetan izan ezik; harendako, proposamena da %7,5 jaistea.

Fagor Taldeko iturriek emandako informazioaren arabera, taldearen Zuzendaritza Batzordeak urtero egiten du soldaten igoerarekin lotutako proposamena. Iturri berberen arabera, Kontseilu Orokorrak onartu egin du proposamena. Fabrika bakoitzak bozketa egingo du, apiril edo maiatz inguruan.

Bestalde, 283 langileri eragingo dien enplegu erregulaziorako espedientea aurkeztuko du Usurbilgo Fagor Ederlanek.

> DIRULAGUNTZAK

Ulmak hiru milioiko laguntza jasoko du eta Lasercellek, bikoa

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak proiektu estrategikoak dituzten EAEko hamar enpresari laguntzak ematea erabaki dute, eta tartean, 2,96 milioi euroko dirulaguntza emango diote Mondragon Korporazioko Ulma taldeari eta 1,91 Bergarako Lasercell enpresari. Ulmak 97 milioiko inbertsioa egin behar du eta 225 lanpostu sortzeko asmoa du; Lasercellek 29 milioiko inbertsioa egingo du, eta 87 lanpostu sortu.

> EROSKI

Eroskik 84,7 milioiko galerak ditu, 'Cinco días'-ek dioenez

Eroski taldeak 84,7 milioi euroko galerekin bukatu du bere jarduera fiskaleko lehen erdia, Caprabo supermerkatu katea erostearen ondorioz; halaxe dio *Cinco días* ekonomia aldizkariak. Aldizkari horren esanetan, Eroskik 3.607 milioiko zorrak zituen uztailaren 31n. Hala ere, gaineratzen du Eroskik dioela Caprabok salmentak biziberritu dizkiola, eta Eroskiren negozio-bolumena %38 igo dela.

ETXEBIZITZAK > LEKBER

Bergarako 38 etxebizitzatan, atzerapena

Lekber enpresa eraikitzailearen ordainketa etendurak lan batzuk gelaraztea ekarri du

Erakundeek lanok bukatuko dituzten itxaropena dago, baina epaitegien esana jakin behar da


LEIRE KORTABARRIA / TXOMIN MADINA > BERGARA

Eibarko Lekber enpresa eraikitzailea ordainketa etendura egoeran geratu berri izanak ondorioak ekarri ditu Debagoienera.

Bergaran sortu da kezka handien piztu duen egoera; izan ere, bertan behera geratu dira oraingoz San Antonion Lekber eraikitzen zebilen 38 etxebizitzen lanak. Horien promotorea Foru Aldundia denez, etxe jabe batzuek esan dutenez, "nahiko lasai" daude, ziur baitaude lanok aurrera jarraituko dutela, modu batera edo bestera. Iturri guztien arabera, ordea, atzerapena gertatuko da; etxeok martxoan ziren banatzekoak, eta nahiko argi dago ez dela horrela izango.

Joan den eguaztenean "geldiztzeko" agindua jaso zuten Lekberrek kontratatutako zazpi langileek eta gremioek, eta orduz geroztik egunero hantxe daude langileak, lanak zaintzen. Oraingo hilabetea kobratzeko geratzen zaie, baina baikor daude. Kezkatuago daude gremioak: 30 enpresa txiki daude kontratatuta, bakoitzak 100.000 euro inbertituta lan horietan, eta jakinarazi dute ez dutela utziko lanak "inork" jarraitzerik harik eta eurek kobratu arte. Erantzunen bila Foru Aldundira jo dute.

Foru Aldundiak ez du jakinarazi zer egingo duen; baina Aldundiko iturriek adierazi dutenez, erakundeak "asmo eta nahi batzuk" baditu ere, oraingoz ezinezkoa da zer gertatuko den jakitea edo Aldundiak zer egingo duen aurreratzea; izan ere, Lekberren egoeraren gainean epaitegiek erabaki behar dute, eta prozedurak luze jo dezake. Epaileak enpresaren kontuak begiratzea eta horiek kudeatzeko administratzaile bat izendatzea da hurrengo pausoa.



Bi langile, Bergarako obrak zaintzen. LEIRE KORTABARRIA

Bergaran beste 22 etxebizitza egin ditu Lekberrek, horiek bukatuta, San Antonion ere. Babesekoak dira, Jaurlaritzak sustatutakoak.

ELGETAN 66 ETXEBIZITZA

Elgetan 66 etxebizitzako multzoa bukatu du Lekberrek, batzuk tasatuak eta beste batzuk libreak, eta etxeon jabeak kezkatuta daude; izan ere, etxeok estreinatu berri direnean egon izaten diren konponketak eskatzeko zeinengana jo ez dute argi. Hori eztabaidatzeko batzarra egitekoak ziren oraingo astean.

Hala ere, etxebizitza horien Hirualdebat enpresa sustatzaileak berretsi dio Elgetako Udalari harekiko hartu dituen konpromisoei erantzun egingo diela, eta etxeetan egiteke dauden lanak egingo dituztela epe laburrean.

Felipe Antonio Igartua > Appalde elkarteko presidentea

"Oso zaila izango da lortzea alargunek soldataren %70 kobra dezaten"

AITZIBER ARANBURUZABALA / LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Derrigorrezko aurre-erretiratuen arazoak aztertzeko VI. jardunaldia egin zuten Gasteizen astelehenean. Hantxe egon ziren ibarreko Appalde aurre-erretiratu, pentsiodun eta alargunen elkartekoak. Felipe Antonio Igartua, elkarteko presidentea, Arrasate Irratian egon da gonbidatu.



Felipe Antonio Igartua.

Toledoko Mahaiko ordezkariekin eta Joseba Azkarraga Justizia sailburuarekin egon zarete astelehenean. Zein zen zuen helburua?

Gure funtsezko hiru eskaerak jakinarazi dizkiegu: alegia, batetik, gu oso modu injustuan tratatzen gaituztela, penalizazio edo erredukzio-koefiziente oso gogorrarekin, eta hori ken diezagutela eskatu dugu; bestetik, gure gaineko erabakiak hartzen diren lekuan gu ere ordezkatuta egotea; eta azkenik, alargunek senarra zenaren soldataren %70 kobra dezatela, gaur egungo %52ren partez, erakundeek ere onartu dute-eta hori oso gutxi dela. Datu bat dago: alargunen %40 pobrezia-atalasearen edo unbralaren azpitik daude.

Ze jarrera topatu duzue?

Arrazoia ematen digute: Parlamentuan onartuta dago derrigorrezko aurre-erretiratuoi, 35 urte kotizatu ondoren, soldataren %100 eman diezagutela, baina administrazioek ez dute hori betetzen.

Alargunei dagokien eskaerak aurrera egingo du?

Hori ere onartuta dago, baina legea ez dute atera. Zurrumurruen arabera –eta horrelako zurrumurruak egia izaten dira–, oso zaila izango da aurrera ateratzea; izan ere, beste lege bat egingo dute, eta, horren arabera, beste pentsio bat edo soldata bat duten alargunei alarguntasun pentsioa kendu egingo diete.

Eta beste eskaerei dagokienez, zelan dator etorkizuna?

Gu ordezkatuta egotearena oso prozesu luzea dela diote, legeek ez dutelako horren aukerarik ematen. Horrez gain, PSE-EEko Elvira Kortajarenak esan zuen gure eskaerak "2013rako konponduko" zirela; jende guztia zarataka hasi zen hori entzuterakoan, aspertuta gaude-eta. Nire susmoa da orain, krisiarekin, mozketak egingo dizkigutela.

gure artekoak

ALFA 159 > Merkaturatu berria izan ez arren, gaur egungo teknologia eta sistema guztiak ditu Alfa 159 autoak segurtasunari dagokionez. Kanpanzar etxeko Carlos Ruizek erakutsi digu Alfa etxeko autoa.

Carlos Ruiz > Kanpanzar etxeko arduraduna

"Behar denean erantzun ona eta azkarra ematen du"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

"Auto deportiboa da, agresiboa, gidatzerakoan errepidera ondo heltzen dena", dio Carlos Ruizek Alfa 159 autoa aurkezterakoan. Batez ere, autoaren diseinua da deportiboa, hau da kanpoko itxura. "Ez da oharkabean pasatzen den autoa; oso diseinu deigarria dauka, batez ere aurrealdea da deigarria, sei argirekin", gaineratu du Ruizek.



Carlos Ruiz Kanpanzarreko kontzesionario aurrean. A.E.

ERANTZUN ONA

Auto azkarra eta segurua da: "Batez ere, emergentzia uneetan da azkarra; hau da, stop batetik irteterakoan, edo bestelako momentu larriren batean oso erantzun ona eta azkarra ematen du autoak". Ruizek gaineratu du autoaren aurrealdeko ardatza "egonkorra" dela, "lasterketetako autoen antzerakoa", hain justu. Segurtasunari dagokionez, bai segurtasun pasiboa eta baita aktiboa ere azpimarragarriak dira: zazpi aire poltsa, ABS sistema..., eta beste hainbat elementu ditu autoak. "Maila goreneko segurtasuna" duela dio Ruizek.

SEI MOTOR

Alfa 159 autoak sei motor aukera eskaintzen ditu: gasolinazko hiru eta dieselezko beste hiru. Gasolinazkoei dagokienez 160, 185 eta 260 zaldi potentziako motorrak daude, eta dieselezkoetan 120, 150 eta 200 zaldi potentziakoak. Aldaketa kaxa 6 abiadurakoa da, eta eskukoa zein automatikoa izan daiteke.

AUTO AUSARTA

"40 eta 60 urte bitartekoei zuzendutako autoa da; hau da, auto deportiboa eta, aldi berean, segurtasuna gura dutenendako egokia. Maila goreneko autoen prestazioak eskaintzen ditu, baina ez da hain klasikoa, ausartagoa da", adierazi digu Ruizek autoa nori zuzenduta dagoen galdetuta.

Alfa 159 1.9s JTD 150 ZP

Prezioa	32.130 euro
Luzera	4,66 metro
Zabalera	1,82 metro
Maletategia	405 litro(1)
Kontsumoa	6 litro /100 km(2)
Abiadura	210 km/h(3)
0tik 100era	9,4 seg.
CO2 isurketak	159 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

etxeko leihotik



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

Krisiaren soinua etxera sartu zaigu oraingoan

Gure etxeak egin dituen konstruktorak, Lekberrek, ez ei du likideziarik bere betebeharrei sasoiz erantzuteko, hau da, enpresa ez dagoela onenean eta itxura eskasa duela. Notizia behin etxea ordaindu ostean jakin dugu, eta orain ea guri etxea saldu digunarengan nola eragiten duen. Orain arte soinua zena bizi-bizi dugu gure pareparean, eta soinutik zaratara ere pasa dela esan nezake.

Inguruko enpresak ere halatsu: astelehenean irakurtzen genuen GOIENKARIAn Arcelor Mittal-en 500 langile joango direla langabeziara, Eskoriatzako Tesan ere 113 laguni enplegu erregulazio espedienteak, Oñatiko Ceur enpresa lege konkurtsalean dago, Arrasateko Madina zurak moduan, Elgetan Biak trokelak lantegiak atea itxi du... eta horrela beste makina bat txiki, handiendako lana egiten zutenak.

"Miresmenez jarraitzen ditut Fagorren hartzen diharduten erabakiak"

Fagor da krisiaren eraginak harrapatu duen beste lantegi bat, eta gehiagoren berri ere laster helduko zaigula badakigu. Nik, hala ere, miresmenez jakin dut langileak eurak direla neurriak hartuko dituztenak, gutxiago kobratu (%8,5), jubilazioak aurreratu...: Eredugarria. Gure etxeko labadorak Fagor marka izango du.

> Zinemaldia zalantzan dagoela ez dute ba esan Olaziregik-eta? Baina ez zuten pentsatuko denok Aldunditik diru gutxiago izan eta alfonbra gorridunak libratzea bakarrik, ezta? Ez litzake justua.

> Udal-funtzionarioak libratuko dira, antza. Eudelek esandakoa igoko dute (sindikatuekin lotu zutena). Eta zer den? KPI? ba ez, KPI + 1. Zaila izan behar da sindikatuendako langile guztiguztiak defendatzea...

begi-bistan



Udazkeneko irudia (Bergara) 2008/11/19

Argazkia: Arantzazu Ezkibel.
Testua: Arantzazu Ezkibel.

Udazkenean sartuta gauden honetan ibarreko beste herrietan ere jaso daitekeen irudia da goikoa. Benetan kolore polita dute zuhaitzek, baina, poliki-poliki, hostoa galtzen dabiltza.

Har ezazu parte:
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Mireia Gabilondo
ZUZENDARIA

Mireia Gabilondo bergararrak eta Fernando Bernuesek zuzendu duten *Kutsidazu bidea Isabel* lanak pelikula onenaren saria jaso du Alemaniako Husum hirian. Hizkuntza minorizatuen zinemaldi europ arraren bigarren edizioa izan da aurtengoa.



Alberto Iñurrategi
MENDIZALEA

Mendia ardatz duen Torelloko Mendi eta Abenturako zinemaldian, aretxabaletarraren *Begiz begi* lana emango dute. Egubakoitzean hasi zen zinemaldia eta domekara arte iraungo du. Guztira, 32 lan eskainiko dituzte zinemaldian, tartean, Iñurrategirena.



Jon Muniategi
ARKITEKTOA

Bergararra VAUM arkitektura estudioan dabil lanean; eta, estudio horrek aurkeztutako proiektua Donostiako Tabakalera berritzeko lanen artean hautatu dute. Beste bi finalistak Bartzelonakoak dira; guztira 61 lan aurkeztu dituzte Tabakalera berritzeko.

Datorren martitzenean, azaroaren 25ean, ohi baino indartsuago izango ditugu gogoan tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, Tratu Txarren Kontrako Nazioarteko Eguna da-eta. 'Tratu egokien alde, bai horixe!' da aurten erabiliko duten leloa. Eta labur esanda, kolektibo eta erakundeetatik haratago jo eta konpromiso pertsonala aldarrikatu gura dute.

Oihana Aranburu, Rosa Urtzelai, Maite Barreña > Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Plataformakoak

"Marka fisikoak lagatzen ez dituen biolentzia sexista ere badago"

UBANE MADERA > ARRASATE

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformako kide Rosa Urtzelaik (Arrasate, 1962), Emakume Txokoko arduradun Maite Barreñak (Durango, 1968) eta Arrasateko Udaleko alkate-orde eta Berdintasun Saileko buru Oihana Aranburuk (Arrasate, 1979) azpimarratu dute konpromiso pertsonala beharrezkoa dela biolentzia sexistari aurre egiteko.



Oihana Aranburu, Rosa Urtzelai eta Maite Barreña, aurtengo kanpaina irudikatzen duen kartelarekin, Arrasateko Emakume Txokoan. UBANE MADERA

Zein zentzutan gura duzue bultzatu konpromiso pertsonala?

Bereziki gazteei zuzendutako kanpaina dira; biolentzia sexista ez da bakarrik heriotzak; arlo asko ukitzen ditu. Gura duguna da egoera salatu eta horri kontra egiteaz gainera, hausnarketa pertsonala: biolentzia sexista existitzen da? Bai. Da emakumeen kontra, emakume izatearren eragiten den biolentzia. Barruan daude heriotzak, jakina, baina beste biolentzia asko ere bai. Estrukturala da, emakume eta gizonen desberdintasunean oinarrituta. Biolentzia sexista da antolaketa patriarkatzaren ondoriorik tragikoena.

Zela esan behar da: biolentzia matxista edo biolentzia sexista?

Biolentzia sexista. Biolentzia matxista esaten badugu badirudi bakarrik gizonek eragiten dutela; eta horren atzetik Estatua ere badago, eliza, eskolak, familia… oro har, antolamendu sozial osoa. Biolentzia horren adierazlerik tragikoena da emakumeak hiltzea, higuina eragiten duena. Baina askoz gehiago dago: biolentzia sinbolikoa, adibidez: emakumeok zela bizi dugun beldurra, botererik ez izatea, zer esan gura duen emakumeok jabetu beharra dugula… Sentitzen dugun moduan gauzak egiteko libre izateko.

Intentsitate baxuko biolentzia ere bada; txisteak eta hizkera, esaterako; edo espazioak okupatzeko modua, ez bakarrik botere postuetan. Adibidez, autobusean pertsonak zela esertzen diren ikustea besterik ez dago: gizonak hankak zabal-zabalik, konturatu barik, espazio handia okupatzen dute, eurena balitz moduan. Emakumezkoak, berriz, hankak gurutzatuta, ahalik eta espazio gutxien okupatzen… Jabetu behar dugu hori guztia existitzen dela, aldatu ahal izateko.

Ipini beste adibide batzuk.

Ume bat izatean kuestionatu ere ez da egiten zein izango den haren aurreneko abizena. Edo eskoletako jolastokietako espazioa zeinek okupatzen duen ikusi: mutilek, normalean futbolean jolasten okupatzen dute zatirik handiena eta neskak baztertxo batean egoten dira. Jostailuak dira beste adibide bat. Jarraitzen dugu neskei panpinak oparitzen eta mutilei "mutilendako" gauzak. Edo ipuinak, zein balore transmititzen dizkiegun umeei ipuinen bitartez.

Donostian neska bat bortxatu zuteneko berria komunikabideek eman duten modua ere hor dago. Beldurra eragin zuten, eta horrek emakumeon askatasuna mugatzen du. Neska gazteak ezin izango dira gauez irten atarian bertan bortxatzen dituztelako. Inork esan ez duena da emakumeok gure burua babesteko trebatu behar gaituztela edo gizartean sortu beharko litzatekeela elkartasun giroa, emakumeei laguntzeko. Adibidez, Japonian dago *taxi-pink* izeneko zerbitzua: emakume taxilariak, bakarrik emakumeak eramaten dituztenak. Emakumeek ere eskubidea dutelako, gura badute, gauez irten, mozkortu, kalean lasai ibili edo gura dutena egiteko.

IZENDAPENA

"Biolentzia sexista esan behar da; biolentzia matxista esaten badugu, badirudi gizonek bakarrik eragiten dutela"

GAUR EGUNGO EGOERA

"Emakumeok gizonen eskubide berak ditugu, balore maskulinoetan oinarrituta, baina"

LEGEA

"Tratu txarrei aurre egiteko legeak ez du bere baitan hartzen bortxaketa kasuak tratu txarrak eragitea dela"

Gazteei zuzendutako kanpaina dela esan duzue, zergatik haiei?

Belaunaldi berriak dira, eta oso estankatuta datoz. Badirudi gauza asko eginda daudela, eta ez da horrela. Horregatik komeni da jakitea marka fisikoak uzten ez dituen biolentzia existitzen dela.

Hala ere, berdintasunaren alorrean pauso ugari eman dira…

Batez ere mendebaldeko gizartean ia gauza guztiak eskura ditugu: osasuna, administrazioa, lana… Baina hori errealitate bilakatu behar da. Gizartean ikusten da ez garela berdinak, guztia egituratuta dago berdinak ez izateko. Garrantzitsua da gazteei erakustea. Hezkuntzaren bidez prebenitu behar ditugu tratu txarrak. Gazteek sortuko duten mundua hobea izan dadin.

Eskubideekin ez da nahikoa…

Ulertu dena da emakumeok gizonek dituzten eskubide berak izan behar ditugula. Ez da zalantzan jarri zein balorerekin transmititzen diren eskubideok. Balore maskulinoetan oinarrituta dago guztia. Eta gazteei horiek helarazi dizkiegu. Aztertu behar dira orain arteko emaitzak. Ez gara gauza izan sistema eraldatzeko: lehiakortasuna, agresibitatea… Neskak eta mutilak berdintasunean bizi direlakoan daude, baina lanera eta harremanetara iristean konturatzen dira desberdintasun ugari daudela.

Rafaela Romerok, Batzar Nagusietako presidenteak, esan du biolentzia sexista bilakatu dela Estatuko arazo. Ados?

Ez. Adibidez, tratu txarrei aurre egiteko legeak ez du bere baitan hartzen bortxaketa kasuak tratu txarrak eragitea dela; edo soldata desberdintasunak… Beste adibide bat: Gipuzkoako Aldundiak ez du Berdintasun Sailik eta biolentzia sexistari aurre egiteko, derrigorrezkoa da berdintasun politikak bultzatzea. Beste adibide bat: Arrasateko Udalak ditu aldundiak baino asistentzia psikologiko eta juridiko eta laguntza ekonomiko gehiago, Udalak berak osatu egin behar izan ditu, Aldundiaren laguntzak ez direlako nahikoa. Zenbat diru bideratzen diote berdintasunari?



zabalik

Estepan Plazaola

Jan-ohiturak

Zer jan, hura izan, dio elikagai baten propaganda egiteko erabiltzen den leloak. Jaten dugunaren eraginez, besteak beste, azkeneko 150 urteetan europarron batez besteko estatura 20 cm handitu ei da.

Era berean, elikadura txarra ei da (kaltzio gutxi hartzeagatik), adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan umeetan hezur-hausturak asko ugaltzearen eragileetako bat: azkeneko 40 urteetan, %30 mutiletan eta %50 nesketan.

Hizkuntza normalkuntzarekin lotuta ere erabiltzen da "elikadura" kontzeptua. Gure hizkuntza belarrietatik eta begietatik elikatzen da: familian, ikastetxean, telebistan, irratian, Interneten, kultura-produktuetan... jasotzen dugunetik. Halakoak euskaraz jasotzen ditugun neurrian, gure euskara indartzen eta sendotzen joango gara. Hala ez egitera, denborarekin moteltzen, bizitasuna galtzen, kaskartzen joango da. Zenbat milaka ote dira beren garaian euskaraz ikasi baina gero ez "elikatzearen" ondorioz, gaur egun pitili-potolo moldatzen direnak?

"Nekez izango dugu euskara ajerik gabea, jaten ematen ez badiogu"

"Durango, Gabonak, Erregeak... sasoi ona izan liteke euskarazko janariak gozatzeko"

Bi gurasoak erdaldunak dituen lagun batek komentatzen zidan euren gurasoek telebista euskaraz ikastera bultzatzen zituztela seme-alabak, euskaraz ondo ikasteko. Ez dago miraririk: nekez izango dugu guk eta nekez izango dute gure seme-alabek euskara ajerik gabea, jaten ematen ez badiogu.

Laster izango ditugu Durango, Gabonak, Erregeak... Sasoi ona izan liteke euskarazko janariak probatu eta patxadaz gozatzeko. Zer eskuratu ez badakigu, izango ditugu inguruan aholkulariak.

Posdata: Erosketak egitetik etorri berri naiz: Bazar txinatarrean Euskadi Gaztea zeukaten, irratian; harakin euskaldunak, Cadena 100. Horiek ere elikatzen gaituzte. Zorionak txinatarrei.

Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Monika Belastegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

TXARTEL MANKOMUNATUA, DERRIGOR ERAKUTSI BEHAR?

Bergarako kirol instalazioak sarri erabiltzen dituen oñatiar batek, txartel mankomunatua duenak, guregana jo du honako kezkarekin: "Oñatiko kiroldegira sartzeko, hatz-markarekin nahikoa da; baina Bergaran, txartela erakutsi behar izaten dut. Hori zergatik da? Eta inoiz txartela etxean utzita, sar naiteke?".

Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradun Unai Asurmendik erantzun digu: "Hori horrela da, erabiltzen dugun aplikazio informatikoaren ezaugarriengatik; txartela Oñatin atera duenaren datuak ezin ditu Bergarara esportatu. Edozein modutan, txartela ahaztuz gero, nortasun agiria erakustea nahikoa du erabiltzaileak; bazkide dela eta ordainketak eguneratuta dituela egiaztatuko dute eta sartu ahal izango da".

Beste aukera bat ere badago: "Oñatikoa izanda ere, Bergarako instalazioak sarri erabiltzen badu, Bergaran hatz-markaren kopia egin dezake, horrela Bergarako kirol instalazioetara errazago sartu ahal izateko", azaltzen du Unai Asurmendik. Etorkizunerako asmo baten berri ere eman digu: "Datorren urteari begira Ona txartela sustatzeko asmoa dago kiroldegira sartzeko bide moduan".

KORRIKA NOIZ PASATUKO DA DEBAGOIENETIK?

Irakurle batek hauxe galdetu digu: "Korrikaren hurrengo edizioa martxan dagoenez, jakin nahiko nuke zehazki noiz pasatuko den Debagoieneko herrietatik. Horrez gain, zelan izan naiteke Korrikaren laguntzaile?".

Korrika 16 Debagoieneko bost herritatik pasatuko da, eta guztietatik egun berean, gainera: apirilaren 5ean, domeka, alegia, lasterketa bukatzen den eguna. Soraluzetik sartuko da Debagoienera, Osintxura; handik Bergarara pasatuko da, eta segidan, Antzuolara. Horren ostean, bailaratik irtengo da, Urretxu, Zumarraga eta Legazpi aldera, eta gero berriz etorriko da, Oñatira; handik Arrasatera jarraituko du, eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagatik Gipuzkoako mugarainо ailegatuko da. Debagoienaren ondoren, Uribarri Ganboatik Duranara doa, eta azkenik, Gasteizen bukatuko da apirilaren 5ean bertan. Laguntzaile izateko, *Korrika laguntzailea* bereizgarria agertzen den lekuetara edo AEK euskaltegietara jo behar da. Laguntzaile txartela egin daiteke han, 12 euroren truke. Mezua ere bidal daiteke *klara.i-a@aek.org* helbidera, *Korrika laguntzaile izan nahi dut* idatzita.

Galdera egiteko:
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Alex Ugalde



blog

Lidergoak ez du gripearen antzik

Mikel Iturria
eibar.org/blogak/iturri

Salva Cardús soziologoaren artikulua: Obama katalan baten bila?

"Alderdi barruko zein kanpoko lidergorako ahalmen frogatuaren laguntzaz, 1997ko hauteskunde britainiarretan Tony Blairrek Alderdi Laborista garaipenera eraman zuenean, hemengo lider batzuk Blairren ispiluan begiratzeko tentaldian erori ziren. Keinuak, diskurtsoa, kanpaina imitatzen hasi ziren. Eta, noski, denek gonbidatu nahi zuten, hurbiltasunak behartuz, lidergorako ahalmena kutsakorra izango balitz bezala".

"Baina lidergoak ez du gripearen antzik: ez da kutsatzen. Bertute gehienak bezala, lidergoak jatorrizko gaitasuna eskatzen du, baina gero adorez landu beharra dago; konfiantza sortuz, merezitakoa bihurtzen da, bere burua gidatzen utziko duenak aitortua izan arte. Eta, noski, jolas arau egokiak behar ditu arrakastaz garatu dadin. Ia gauza jakinak diren hauek botatzen ditut hemen, Barack Obamarekin antzeko zerbait gertatuko dela uste baitut".

Flores uhartea

Txuma Murugarren
txumamurugarren.com

Sestaon egin dugun kontzertuan aspaldiko lagun bat ikusi dut. 86an egin genuen erakusketa baten

plazara

Topagunea euskara elkarteen federazioko eta Txatxilipurdi elkarteko zuzendaritza batzordeetako kide da Aitor Izagirre arrasatearra. Debagoieneko eta, oro har, Euskal Herriko euskara elkarteen gaineko gogoeta egiten du; batzuk osasuntsu daude, baina hori ez da denen egoera, eta egileak aurrerapauso bat proposatzen du, gazteen ekimenaren eta profesionalizazioaren bidetik.

Aitor Izagirre Navarro *

Udazken haizeak euskara elkarteetan

Krisia heldu da, jaun andere preziatuok! Baina ez, oraingo honetan ez naiz ekonomiari buruz ari, behingoagatik bakean utziko ditugu gure patrikak. Euskara elkarteei buruz ari natzaizue oraingo honetan, udazkena iritsi dela dirudi-eta. Udazkena diot bai, eta zentzu zabalenean gainera; udazkenean eguraldia lausotzen da, loreak ximeltzen dira, zuhaitzen hostoek lurra jotzen dute, eta goibeltasuna nagusitzen da naturan. Eta zer pasatzen zaigu euskara elkarteetan aspaldion? Non geratu da gure ilusioa?

Ni oraindik gaztea naiz eta ez nuen bizi izan 80ko hamarkada hasieran eman zen *boom* euskaltzale hura. Bizi izan zutenei begiak betetzen zaizkie pozez gogoratzean eta gero malenkoniaz diote: "Beste garai bat zen…" Non gelditu da militantzia hura? Eta debaldeko lan hori guztia?

Aspaldion gure inguruko hainbat elkarteren egoerak kezkatzen nau. Elorrio edo Oñati bezalako herrietan euskara elkarteak erdi izoztuta daude, ez aurrera ez atzera. Sinesgaitza egiten zait herri bi hauetako euskaltzaleei berdin izatea beraien herrietan euskara elkartea desagertzea. Arrasateko AED elkarteak ere 25. urteurrena datorren urterako utzi behar izan du afera ezberdinak zirela medio.

Gogorra da, baina askotan pentsatzen dut, maltzurkeriaz, Reala, Tau edo Athletic desagertuko balira sortuko litzatekeen gizarte mugimenduan… Manifestaldiak, zuzendariari gutunak, irratsaioak, editorialak… Eta



MIKEL ARROIABE

gure herrietan hainbeste egin duten euskara elkarteak kinka larrian daudenean? Horrek berdin dio! Bertan egindako lan guztia pikutara! Gure hizkuntza, gure kultura, gure arima, dena botako al dugu sutara?

Eta errua ziurrenik guk geuk daukagu, egungo gazteok, ez al dakigu ezer muxu-truk egiten? Horren interesatuak al gara? Gai hauekiko interesa galdu al dugu? Baina etorkizuna gure eskuetan dago! Guk daukagu giltza, guk hartu behar dugu lidergoa euskara elkarteetan. Autokritika egin behar dugu.

Ziurrenik, eman beharreko hurrengo pausoa profesionalizazioa da. Euskararen militantearen profesionalak uztartu behar ditugu. Egia da urteetan euskara elkarteetan lan egitea aldi baterako lan egitea zela. Sarritan lana erdipurdizkoa zen, soldata ere halanolakoa, ordutegia eskasa, langilea militante borrokatua ere izan behar zen. Egoera honi buelta eman behar zaio.

"Gazteok hartu behar dugu lidergoa euskara elkarteetan; autokritika egin behar dugu"

"Hurrengo pausoa profesionalizazioa da; militanteak eta profesionalak uztartu behar ditugu"

Alde batetik, ezin zaie elkarteko langileei bertako pisu guztia bere gain hartzen utzi, ezta zuzendaritzari ere. Lan talde handi bat sortu behar da. Langileek lan baldintza duinak izan behar dituzte eta beraien lanpostuak finkoak eta egonkorrak izan behar dira. Honez gain, zuzendaritza anitzak behar dira, lan egiteko gogoarekin. Azkenik beste hirugarren talde bat ere egon beharko litzateke hainbat egoeratan lan egiteko prest, lantaldetan, ideiak emanaz, ekitaldiak burutzean.

Horrekin guztiarekin, familia handi bat lortu beharko litzateke. "Etxe" bat (gure hizkuntzan etxe berbak daukan pisu eta garrantziaz).

Egia da herri eta elkarte guztiak ez direla berdinak, eta proposamen hori egokitu egin beharko litzateke herri eta elkarte bakoitzaren tamainara. Baina, neurriak hartu ezean, jai daukagu, euskara elkarteak desagertuko dira epe motz-ertain batean eta Donostiako Reala ez da etorriko ez, Debagoienera gure kultura eta hizkuntza sustatzera.

*Txatxilipurdi eta Topagunea elkarteetako zuzendaritzetako kidea da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Behartsuei dirurik ematen diezu?

BAI	%100
EZ	%0

> KALEKOEI
Gabon garaia heltzen denean denok gogoratzen gara halako gauzekin. Kalean behartsuren bat eskatzen ikusten badut, noizean behin ematen dizkiet txanpon batzuk.
Antonio

> GKE-EI EZ
Elkartasun proiektuetarako eta GKEendako ez dut ezer ematen. Sentitzen dut, baina ez naiz fidatzen. Baina kalean eskean egoten direnei ematen diet beti txanponen bat.
Eli

> BESOETAKOA
Nik besoetakoa daukat urrutiko herrialde batean eta ez dut uzteko inolako asmorik. Nik sinisten dut erakunde horrek nik emandako dirua eskola eta janarirako erabiltzen duena. Kalean daudenei, ordea, normalean ez diet dirurik ematen ezer egiten ez badute. Musika jotzen edo horrelako zerbait egiten badute, orduan bai.
Nerea

DATORREN ASTEKOA: Herri galdeketa baten parte hartuko zenuke?

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

esku-orria eman dit eta harrituta gelditu naiz horrelakorik oraindik gorde izanagatik. Kultur sustatzaile dabil, eta hizketan egon gara kontzertuaren ostean. Euskal Herrian formatu txikiak direla hobekien mugitzen direnak, esan dit. Banekien. Talde batean aritzetik bakarka aritzera doan pausuak badu zerikusia horrekin. Talde batek arazoak ditu gaur egun hainbat lekutan jotzeko, dela diru eskasiagatik, dela espazioagatik edo eskakizun teknikoengatik, taldeak nekez mugitzen den egitura astuna dauka. Bakarka gabiltzanok molda gaitezke aiseago. Gaur bi musikarirekin, bihar bostekin. Errepertorioa moldatu eskaintza birentzat eta aurrera. Bakarka aritzen hasten zarenean, heldutasun kontua dela irizten diote kazetari anitzek. Uste dut hori bigarren mailakoa dela. Heldutasun hori taldean arituz ere lor daiteke, ziur. Zerikusi handiagoa dauka zirkuituarekin.

Nire lagunarekin hizketan, ekarri dugu gogora nola Flores uharteetan gizaki nano baten hezurdura topatu zuten. Teoria batzuen arabera, gizaki hori ez zen nanoa, alegia, ez zeukan inongo malformaziorik. Uharte batean bizi izateak dakartzan nolakotasunek behartuta urteetan txikituz joan zen gizakia omen zen. Borneo uharteetan, antza, bada elefante txiki bat irlak eman dezakeen janari urriarekin bizirauteko tamaina txikitu behar izan zuena.

Eta bitxia da gai biren artean dauden antzekotasunak. Hemen, Euskal Herrian, nanizazio kultural bat ez ote den gertatzen ari galdetu diogu gure buruari lagunak eta biok, kontzertura hurbildutako hogei ikusleak ateratzen ari ziren bitartean.

koplak

Eñaut Uriarte

Euskadi Herria edo Euskal Herria

Lehenik jarri nahiko nituzke
hemen zenbait argi izpi
Euskadi hiru herrialde gara
ta Euskal Herria zazpi.

Askontzat die bost herrialde
hau bai dala paradoxa
bertan sartuak Kantabria eta
Araba ez dan Errioxa.

Pentsatuizue Castro, Laredo
Isla, Noja edo Haro
hemengo jendez darela beti
hauek beteta zeharo.

Krisia dala oin mundu mailan
benetan argi badago
selekziñuan izenarekin
hemen krisi bat gehiago.

Euskal Herriarekin giñuan
iaz buru eta bihotz
Euskadi jarri dotze berriro
gu utziz aho bete hortz.

Euskal Herria deittu ezin bada
nere aportaziñua
deittu zaiogun oindik aurrera
guk Euskal selekziñua.

Aretxabaletan ere kanpoko pistinak

Leire Zubizarreta eta Ainhoa Aranburu
Aretxabaleta

Aurreko astean, GOIENKARIAn, Araceli Herran eta Asier Muxika Aretxabaletako Udaleko Kirol zinegotzi eta teknikariaren izenean argitaratu zen gutunari erantzun nahi diogu honen bitartez. Uste dugu, lehenik eta behin, argitu behar dela epe barruan gauden edo ez kiroldegiko proiektuan aldaketaren bat egiteko (GOIENKARIAren 348. zenbakian, urriaren 10ekoan, baietz zioen). Dena den, aldaketak beti dira posible gogoa edota interesa egonez gero. Ez al dira behin eta berriz lege berriak ateratzen eta daudenak aldatzen? (Udal zergak gorantz, diru laguntza berriak, e.a.). Beste kontu bat da Udalak herritarren borondateari (620 sinadura) kasu egitea edo aintzat hartzea eta aldaketa bideratzea.

Aprobetxamenduari dagokionez, kirol etxe aurreko zelaia horrela dago ezagutzen dugunetik: ezertarako erabili gabe. Kanpoko pistinekin, urteko hiru hilabetetan gutxienez, Arrasate, Bergara eta beste hainbat herritako ume eta gaztek bezala, gurean ere, ederki aprobetxatuko genuke zelai hori.

Zergatik ote oporretan goazenean, askok eta askok pistina daukan kanpina, apartamentua edo hotela aukeratzen dugula?

Lehen gutunaren helburua Udalean 620 pertsonak egin dugun eskaera argitaratzea izan zen; hau da, udaletxean eskaera aurkeztu eta GOIENKARIAn argitaratu. Tamalgarria al da hori?

Zigorgabetasuna berriz ere garaile

Juan Ramon Garai
(Debagoieneko Fusilatu, Senitarteko eta Lagunen Batzordea)
Arrasate

Egiaren Batzordeak sortzea izan behar zen diktadorea hil eta berehalako lana eta zeregina, Errepublikaren aurka estatu kolpea egin zutenean, nahiz Gerra Zibilean eta diktaduraren garaian egindako krimen larriak ikertu eta argia ikusteko.

Frankismoaren biktima garenok diktadurarekin berrogei urteko errepresioa eta isiltasuna jaso dugu. Franco hil eta gero, Francoren kontrako alderdi askok frankismoaren erreforma onartu dute: ituna egin zuten isilik mantentzeko frankisten sarraskiak eta krimenak.

Trantsizioa izan zen sekulako belarrondokoa gure aita-amentzat. Ikusi zuten zelan kasu askotan haien aita-amak militatutako alderdiek albora utzi zituzten, aintzat hartu barik ezertan, ematen zuen gure familiako kideak existitu ere ez zirela egin.

Senideoi ezer ez ziguten galdetu, ez ziguten ezer kontsultatu, gure gainetik erabaki zuten eta esan ziguten isilik egoteko, ahanzteko.

Frankismoak fusilatutako pertsonen senideok bizi izan genuen berrogei urtean diktadurapean eta gero beste 32 urte gehiago egiarik gabe, ordainik gabe, justiziarik gabe.

Egoera honetan dator Garzonen ekimena, Memoria Legearen filosofiagatik aldenduta. Printzipioz, pozgarria ikusten genuen, autoan bertan inoiz Espainiako botere batek esan ez dituen gauzak esaten zituelako:

- Frankismoa nazismoarekin parekatuz.
- Desagerpenen delituen preskripzio ezina, gizateriaren aurkako krimenak izan zirelako.

Hori esanda, zalantza batzuk ere bagenituen:

- Ikertzeko muga historikoa 1951n jarri izana.
- Hildako militarrengan jartzea delituaren ardura guztia.

Garzonen autoak itxaropenak sortu zituen, leiho bat irekitzen zuen, jende askorendako astindua izan da, baina esaten genuen bezala: bidean ikusiko dugu noraino heltzen den justizia egiten, eta bide oso motza egin du.

Garzonek frankismoaren aurkako auzia bertan behera uztea frankismoaren biktimarendako beste zaplastako bat izan da. Ez da izan lehendabizikoa, 72 urte luze daramagu justizia eskatzen. Estatuan orain arte bizirik egon den zigorgabetasun eredu horri eustea erabaki dute. Estatuan inpunitatea justiziaren gainetik dago.

Biktima guztiak berdinberdin tratatu behar izanaren printzipioa aplikatu gabe, berriz ere, frankismoaren biktimarekiko justizia egiten hasteko borondate eza adierazten ari dira.

Horren aurrean, orain arte bezala, biktimen, familien, eta gizartearen esku dago gaia bizirik mantentzea. Orain, lehen bezala, gizartearen mobilizazioaren esku dago, batez ere, benetako justizia lortzea. Gobernuek ezingo dute frankismoaren gizateriaren aurkako krimenak betiko estaliko.

Irtenbidea borondate politikoan datza. Orain egun batzuk borondate politiko hori Arrasateko Udalean sortu zen: Talde Mistoak, PSOEk, PNVk, Ezker Batua-Zutik-ek, EAk eta Aralarrek bat egin zuten onartuaz: "Frankismoaren epaiketa penal eta historikoa egitearen alde gaudelako, gertaera horien inguruan Debagoieneko Fusilatuen, Senitartekoen eta Lagunen Batzordeak gizateriaren kontrako krimenen salaketa prozeduretan eta egiten dituen ekintzetan laguntzeko borondate politikoa eta elkartasuna adierazten du". Hori da egitekoa.

Matxinada militar faxistaren biktimen *Egia, Justizia eta Erreparazioa* ez da inolaz ere gauzatu. Diktadura, trantsizioa, demokrazia, 72 urte pasatu dira: noiz arte egon behar dugu justiziarik gabe?

Eskoriatzako udal funtzionarioen soldatak ere kontsultara

Juan Carlos Bengoa Munduate
Eskoriatza

Astean zehar jakin dugu bailarako eta, bereziki, herriko enpresa desberdinak nolako egoera ekonomikoa jasaten ari diren: Fagor Etxetresnek Gabonetako aparteko paga ez dute ordainduko; Fagor Ederlanek ostiraletan ez du lanik egiten eta ostegunetakoa ere aztertzen ari dira; Fundiciones Lenizek eta Tesak enplegu erregulazioak jarri behar dituzte martxan eta, azkena, Fagorreko 6.000 kidek 2009. urterako soldata %8 jaistea aztertuko dute.

Bestalde, Eudelek eta hainbat sindikatuk Udalitz hitzarmena sinatu dute, udal funtzionarioen lan baldintzak zehazten dituena. Bertan, hurrengo hiru urteetarako igoera KPI gehi puntu bat onartu dute. Eudelen partetik, bakarrik PNV alderdiak sinatu du.

Eskoriatzako herrian industrietako langileen eta funtzionarioen artean sortzen den diferentzia esanguratsua da. Ez al du horrek langileen arteko elkartasuna kolokan jartzen?

Eskoriatzako Udalean Udalitz hitzarmen hori sinatu ez duten alderdiak gehiengoa dira, baina funtzionarioei soldatak ez igotzeko erabakia gogorra izanik, alkate eta zinegotziendako, aukera ezin hobea galdu dela uste dut, gai honi buruz ere eskoriatzarrei galdetzeko.

Zaharren egoitzaren etorkizunari buruzko kontsultaren azpiegitura aprobetxatuz, ezer gutxi behar zen (orri bateko informazioa nahiko) herritarrei iritzia emateko aukeran jartzeko, adibidez, bi alternatibaren artean: hitzarmen horrek esaten duena edo soldaten izoztea.

Ziur nago, niri bezala, gai honi buruz ere beste eskoriatzar askori gustatuko litzaiekela kontsultatuak izatea.

Zaharren egoitza eta herri kontsulta

Juan Carlos Bengoa Munduate
Eskoriatza

Eskoriatzako zaharren egoitzaren etorkizunaren inguruko herri kontsultaren gainean, ELA sindikatuak eta Ander Rodriguez eta Rebeka Ubera batzarkideek (EB eta Aralar) egindako azalpen publikoak direla-eta, Eskoriatzako Udal Gobernuak honako argibideak eman nahi ditu:

1. Herri kontsultako oinarriak, galderak eta prozedura aho batez onartu zituzten udaleko zinegotzi guztiek (PSOE, EA, EAJ, EB eta Udal Gobernua). EBko batzarkidea datu honetaz (garaiz) enteratu ez izanak harritzen gaitu. Aralarren kasuan, ez gara horrenbeste harritu, denok dakigulako Aralarrek Eskoriatzako Udalean ordezkaririk ez duela.

2. Kontsulta loteslea da. Zinegotzi guztiek onartu zuten kontsulta. Talde bakoitzak muga desberdinak jarri zituen eta muga hauek Udaleko akta ofizial batean jaso ziren. Guk, Udal Gobernu bezala, honako konpromisoa hartu dugu: parte-hartze minimoa erroldaren herena bada, eta boto gehien jaso duten bi aukeren arteko diferentzia bost puntukoa baino handiagoa bada, emaitza loteslea izango da. Gainontzeko zinegotziek kontsultako emaitza loteslea izan dadin parte-hartze handiagoa eskatzen dute (%40-50). EBko batzarkideak datu hau ez jakiteak beste behin harritzen gaitu… Dena den, geure errua izan da datu horiek lehenago ezagutzera ez ematea, eta idazki hau aprobetxatu nahi dugu akats hori zuzentzeko, baita hori ikusarazi diguten guztiei eskerrak emateko ere.

3. Proposatutako hiru aukeretatik bakar batek ere ez du zaharren egoitzaren pribatizazioa proposatzen. Hain zuzen, oso sinplea den arrazoi batengatik: dagoeneko Eskoriatzako zaharren egoitza pribatua da eta modu pribatuan kudeatzen da! Ondo dakite hori bai ELAkoek, bai aipatutako batzarkideek. Eurena ba edo hanka-sartze galanta izan da, edo beste helburu batzuk izanik ez dator bat kontsulta honen bene-benetako arrazoiarekin: nola lortu egoera eta baldintza onenak egoitzan daudenendako (eta egongo direnendako).

Bukatzeko, bistakoa den aholku bat: hurrengo batean herritarrak informatu aurretik, aurrena zeuek ondo informatu zaitezte, mesedez! Bestela jendeak pentsa dezake populismo eta demagogiara engantxatuta zaudetela!

Krisi garaian ere bada bihotz onekorik

Iker Isasmendi
Aretxabaleta

Lerro hauen bitartez nire esker ona adierazi nahi diot pasa den eguenean Arrasateko Maxi Eroskiko argazki dendako neskari. Erosketak egitera sartu nintzen eta ordaintzera joan nintzenean ez nuen nire diru zorroa aurkitzen inondik inora ere. Uste nuen autoan utzita izango nuela; joan nintzen bertara eta ezer ez. Momentu horretan, aipatutako dendako neska gerturatu zitzaidan eta esan zidan: "Zeu zara Iker Isasmendi?; ze, zure esku zorroa agertu da-eta lurrean", esan zidan. Guztia zegoen diru zorroaren barruan, ez zen ezer falta, eta eskerrak eman nahi diot neska horri, krisi garaian ere badagoelako bihotz onekorik oraindik.

ZUZENKETA

Joan zen asteko GOIENKARIAn, 353. zenbakian, Arrasaten oraingo asteburuan eskainiko den *El Barberillo de Lavapiés* zarzuelaren gaineko erreportaje zabala eskaini genuen 43. orrialdean. Akats bat egin genuen: Iker Olazabal aurkeztu genuen zarzuelako zuzendari. Hori ez da zuzena. Iker Olazabal da Arrasate Musikaleko Orkestraren zuzendaria; hau da, zarzuelako orkestraren zuzendaria. Zarzuela bultzatzen du Izaskun Murgia elkarte lirikoak eta zarzuelako zuzendaria da Tere Gonzalez. Bestalde, Arrasate Musikaleko zuzendaria da Marta Izagirre.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

Diru babestua.

Egunetik egunera, gero eta jende gehiagok erabakitzen du **Kutxa**ren **Inbertsio-Irtenbide**en aterkipean babestea. Zure egoera pertsonalari gehien egokitzen zaion irtenbidea bilatzen lagunduko dizugu, zure dirua erabat babestuz.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

KIBUC GURE AMETSAKO ARDURADUNAK

"DENA ERABAT BERRITU DUGU, BAINA OINARRIAN BETIKO GURE AMETSA DAGO"

KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean







ANTONIO OLAZABAL ETA ALAITZ OLAZABAL / KIBUC GURE AMETSAKO ARDURADUNAK

Amets batetatik sortu zen Gure Ametsa eta pausoz pauso gauzatuz doa amets hori, ezta?
Orain dela 30 urte 90 metro karratuko altzari denda txiki batekin hasi ginen eta orain 4.000 metro karratuko eraikin batean gaude eta beti ere aurrera egiteko asmoarekin. Kit erako altzariekin hasi, altzari osagarrietara pasa eta egungo altzari modernoetara iritsi arte.

Gure Ametsa izatetik Kibuc-Gure Ametsa izatera pasa zarete. Zer dela eta izan da aldaketa?
Orain dela urtebete irudi aldaketa egin genuen eta horrekin batera baita izen aldaketa ere. Kibuc elkarte bat da, kataluiniako altzari denda batzuek, euren egoerarekin kezkaturik sortu zutena, eta pixkanaka haundituz joan dena 70 denda bereganatzeraino. Guk ere bat egin dugu taldearekin. Indarrak batuz etxeko altzarietan une honetan dauden gauzarik erakargarrienak eskaini nahi dizkiegu bezeroei: kalitatea, diseinua eta bermea.

Izena ez ezik erakusketa ere aldatu duzue, ezta?
Bai, aldaketa erabatekoa izan da: izena, denda, erakusketa, zerbitzua, produktua eta funtzionamendua. Dena eguneratu dugu garai eta behar berrietara egokituz eta altzarien arloan lehen lerroan egoteko asmoz. 4.000 metro koadrotik gorako erakusketa daukagu hiru solairutan banatua. Metro koadro asko direnez, erakusketan ahalik eta erosoen ibiltzeko moduan egokitu dugu; besteak beste umeen aulkitxoekin edo gurpildun aulkiekin datozenentzat.

Aldaketa egin duzue, baina Gure Ametsaren funtsa mantentzea da zuen nahia, ezta?
Kibuc taldean sartu ginen, baina argi utzi nahi duguna da, oinarrian orain dela 30 urte sortu zeneko Gure Ametsa garela. Beti izan gara serioak eta hitzekoak eta horrela izaten jarraitu nahi dugu. Bezeroari eskaini nahi dizkiogu kalitate ona, prezio egokia, bermea eta puntako zerbitzua.

Nolako altzariak aurkituko ditu Kibuc-Gure Ametsara datorren bezeroak?
Gaur egungo altzariak, modernoak eta garaikideak. Sukalderako, helduen zein umeen logeletarako eta egongeletarako altzariak dauzkagu.

Aurrera begira zein da Kibuc-Gure Ametsaren ametsa?
Merkatuan egunean egotea eta etorkizunera begira lanean jarraitzea. Horregatik egin dugu, hain zuzen ere, aldaketa. Gure Ametsaren funtsa ahaztu gabe, guztiz berrituta, geroan ere ahalik eta zerbitzu onena emateko gure bezeroei.

Kibuc-Gure Ametsa: Aurpegi berria, betiko ametsak betetzeko.



gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia - Tel. 943 15 16 81 - Fax. 943 150 605

KIBUC Gure Ametsa

www.kibuc.com

Herriak

Arrasate > 18-19 **Bergara** >24-25 **Aretxabaleta** > 27-28 **Oñati** > 29
Eskoriatza > 30-31 **Antzuola** > 32 **Elgeta** > 33 **Aramaio** > 34 **Leintz Gatzaga** > 35



> ARRASATE
Corazon de Encinak 15. urteurreneko jaia egingo du **> 20**



> BERGARA
Kultur etxeko parkeko bidea txukundu egingo dute **> 24**



> ESKORIATZA
Komertzioek zaborra egoki utz dezaten eskatu die Udalak **> 31**



> ANTZUOLA
Gabon aurretik zabaldu nahi dute Torresoroako liburutegia **> 32**

BERGARA > GAZTEAK

Adin txikikoendako babes-etxeak kezka eragin du auzotarrengan

ADIN TXIKIKOAK
13 eta 18 urte arteko 8 gaztetxo biziko dira Aldundiak kudeatutako etxe horretan

TRATU TXARRAK
Tratu txar fisiko eta psikologikoa jaso izan duten neska-mutikoak dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Gipuzkoako Foru Aldundiak adin txikikoendako babes-etxea jarriko du Bergaran, Moyua kalean. Abendu erdialdean hasiko da martxan eta 13 eta 18 urte arteko zortzi neska-mutiko biziko dira han; sei, gipuzkoarrak eta bi, etorkinak.

Gipuzkoan barrena babes-etxe sarea du Aldundiak, eta honezkero, 40 badira. Horietako lau Debagoienean daude, hortaz, Bergarakoa bosgarrena izango da.

TRATU TXARREN BIKTIMA
Diputazioko Haur eta Gazteriaren zuzendari Joxi Insaustiren esanetan, halako etxeetara eramaten dituzte euren etxetik atera behar izaten dituzten umeak; "tratu txar fisikoak eta psikologikoak jasotakoak", hain justu.

Babes-etxeen ezaugarriak eta halako umeekin jarraitu beharreko prozedura Eusko Jaurlaritzak zehazten du –aurtengo abuztuan kaleratu du dekretu berria– eta etxeon helburua garbia da: "tratu txarrak jasotako ume horiek berriz ere normalkuntza prozesu batera bideratzea", Insaustiren esanetan.

Helburu hori lortzeko heziketa prozesu sakona egiten da umeekin, Insaustik azaldu duenez, izan ere, "oso gogorra da jasaten duten guztia eta gurasoengandik banatu beharra izatea".

GAINERAKO UMEAK BEZALA
Bergarako babes-etxean egongo diren umeek heziketa prozesu normala izan dute orain arte: "Eskolatuak dira eta ez dituzte arazoak sortzen, arazoak jasan baino ez dituzte egin", azpimarratu du "eta gure zeregina babestea da".

Babes-etxean edozein umek bezalako bizitza eroango dute eta hiru txandatan banatuko diren hamaika hezitzaileren laguntza izango dute: "Ohiko bizitza egingo dute, eskolara joango dira eta eskolaz kanpoko ekintzak ere egingo dituzte", azaldu du Haur eta Gazteriaren zuzendariak. Gainera Bergaran joango dira eskolara, seguruenik: "Ari gara baloratzen zortzi gazteetako zeintzuk joango diren eskolara, eta joango direnak, bada, Bergaran joango dira, helburua normalkuntza da eta".

AUZOTARRAK, KEZKATUTA
Babes-etxea egongo den auzoko bizilagunak kezkatuta daude halako etxe bat ondoan izateagatik. Bestetik, ez bizilagunek ezta Udalak ez dute Aldunditik zuzenean babes-etxea Bergaran jartzekoak zirelako berririk izan eta horrek ere haserrea eragin du auzotarrengan. Honezkero batzarra egin dute auzotarrek Joxi Insaustirekin, eta etxearen tipologiaren berri eman die. Horren haritik azaldu du, oro har, bizilagunek kezka izaten dutela "jasotzen duten informazioa izaten delako beste mota batekoa. Gutxienek sortzen duten kalteengatik guztiek ordaintzen dute".



BOSGARRENA Bergarako Moyua kalean jarriko duten babes-etxearekin, halako bost egongo dira Debagoienean. M.B.

KONTUAN HARTZEKO

Ia 1.400 haur gipuzkoar dago Aldundiaren babespean, bizi duten errealitate gordinagatik

Joxi Insaustik emandako datuen arabera, 1.358 haur gipuzkoar ditu Aldundiak babespean, eta 356 etorkin –urriaren 31ko datuak. Horri, Udal bakoitzak jarraitzen dituen kasuak gehitu behar zaizkio, izan ere, Aldundira iristen direnak dira egoera larrienean daudenak.
Aldundiak babespean dituen haur gipuzkoarren kopuruari erreparatuta, Insaustik nabarmendu du "Gipuzkoak duen errealitate ezezaguna" dela hori. Eta gehitu du: "Komunikabideetan ohituta gaude ume etorkinen gainean entzutera, baina haur gipuzkoar askok bizi duten egoera hortxe dago. Gipuzkoarrok ulertu behar dugu badela beste errealitate bat . Gure eskuetatik pasatzen diren 1.358 gaztetxo horiek ez dira euren eskubideen defentsan ateak jotzen hasiko. Hala, erakundeei dagokigu helduek umeengan sortzen dituzten kalteei aurre egitea. Azkenean, gaztetxo hauekin ezer egiten ez bada, gerora berandu izango da".

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 22	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 23	Español	Avda. Alava, 14	943 79 18 65
Astelehena, 24	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Martitzena, 25	Etxeberria	Zarugalde, 42-44	943 77 16 30
Eguaztena, 26	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 27	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 28	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 22	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 23	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 24	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 25	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 26	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 27	Urrutikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 28	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 22	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 23	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 26	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 27	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 28	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 22	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 23	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehena, 24	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 25	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 26	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia) 943 46 11 11
DYA (Antzuola) 943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi) 943 76 55 76
Suhiltzaileak 943 78 28 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala 943 03 53 00
- Antzuola 943 76 62 23
- Aramaio 945 44 53 40
- Aretxabaleta 943 71 19 59
- Bergara 943 03 54 00
- Elgeta 943 03 54 00
- Eskoriatza 943 71 44 52
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola 943 76 62 46
- Arrasate 943 79 14 39
- Aretxabaleta 943 71 18 63
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA 902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate 943 79 12 22
- Aramaio 945 44 50 33
- Aretxabaleta 943 77 12 64
- Bergara 943 79 12 22
- Eskoriatza 943 71 40 59
- Oñati 943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea 943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga) 943 78 15 12
Nekazaritza ganbera 943 76 10 15
Zerga Bulegoa 943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate 943 77 11 43
- Bergara 943 76 44 42
- Oñati 943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio 945 44 53 35
- Arrasate 943 77 16 77
- Aretxabaleta 943 71 26 28
- Bergara 943 76 56 41
- Elgeta 943 76 82 84
- Eskoriatza 943 71 53 28
- Oñati 943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola 943 76 60 65
- Aramaio 945 44 53 74
- Arrasate 943 77 01 05
- Aretxabaleta 943 71 10 27
- Bergara 943 77 91 58
- Eskoriatza 943 71 46 88
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 03 53

Udalak
- Antzuola 943 76 62 46
- Aramaio 945 44 50 16
- Arrasate 943 79 09 00
- Aretxabaleta 943 71 18 62
- Bergara 943 77 91 00
- Elgeta 943 76 80 22
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Leintz Gatzaga 943 71 47 46
- Oñati 943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	**Aramaio**	**Arrasate**
	07:50	08:05
08:30	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25


Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 22
Euria egingo du, eta arratsaldean indar handiz.Haizeak iparraldetik joko du; giro ezatsegina, eta tenperaturak behera egingo du apur bat.



Domeka, 23
Zapatuko antzerakoa; ipar mendebaldeko haizea egingo du eta baita euria ere. Tenperaturek behera egingo dute.

EUSKAL HERRIAN

Euria, haizea eta tenperaturen jaitsiera izango da astebururako eta astean zeharreko joera nagusia. Euria etengabe egingo du eta martitzenerako tenperaturak gehiago jaitsiko dira; zeruak lainotuta izango ditugu astearen hasieran. Tenperatura maximoak ez dira 13 gradutik igoko.



TENPERATURAK

MINIMOA Eguena,13 — **7 ºC**

MAXIMOA Eguaztena, 12 — **19 ºC**

ASTEKO EURIA (l/m²) — **82,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	19 ºC	8 ºC	34,1 l/m²
Eguena, 13	12 ºC	7 ºC	3,1 l/m²
Egubakoitza, 14	10 ºC	7 ºC	8,2 l/m²
Zapatua, 15	11 ºC	7 ºC	2,3 l/m²
Domeka, 16	11 ºC	9 ºC	1,4 l/m²
Astelehena, 17	11 ºC	9 ºC	2,9 l/m²
Martitzena, 18	11 ºC	9 ºC	30,8 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA AZAROAN



Ilgora	Ilbete	Ilbehera	Ilberri
6	13	19	27

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Elikadura ikastaroa Ekin elkartearekin

Elikadura eta sukaldaritza osasuntsuaren gaineko ikastaroa antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak. Izenematea zabalik dago hilaren 28a arte euren egoitzan (Pablo Uranga 6); 943 79 83 70 / 651 70 79 38 telefonoetan; edo *ekin.emakumeak@telefonica.net* helbidean.

OÑATI

> Orixolera mendi ibilaldia, etzi, domeka

Honako mendi irteera egingo du Aloña Mendiko mendi sailak etzi, domeka: Apotzaga-Asentzio-Kurtzeta-Orixol-Zabalaundi-Anboto (aukera badago) eta, gero, Urkiolara jaitsiko dira. BBVA parean batuko dira 08:00etan. Izenematea, Aloña Mendi tabernan.

BERGARA

>1966an jaiotakoen kinto afaria, abenduan

1966an jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute abenduaren 13an Zumelagan. Izenematea zabalik dago Ariznoa tabernan.

ARRASATE

> Argentina eta Txilen bidaiatzearen gainean

Argentinan eta Txilen egin daitezken bidaien gaineko hitzaldia egingo du Eroski Bidaiak agentziak eguenean, hilak 27, Iamai kafetegian, 19:30ean.

OÑATI

> Txirrinkak bizikleta irteera egingo du gaur

Oñatiko Txirrinka taldeak bizikleta ibilaldia egingo du gaur, egubakoitza, Debagoienerako bidegorri sarea eskatzeko. Oñatiko plazatik irtengo dira 18:30ean, eta herriko kaleetan buelta bat eman eta gero, berriz ere plazan amaituko dute.

BERGARA

>1988an jaiotakoek kintada egingo dute

1988an jaiotakoek kinto afaria egingo dute abenduaren 6an Tartufon. Izena emateko, sartu 30 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan, azaroaren 28a baino lehen.

BERGARA

>1944an jaiotakoek kinto afaria egingo dute

1944an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 29an. Mezetara joango dira 19:00etan Santa Marinan, eta 21:00etan afaria Azpeitxin. Izenematea zabalik dago Hernandez bodegoian eta Sanchez ile-apaindegian.

ARRASATE

>Erotismoaren gaineko ikastaroa antolatu dute

Gure erotismoa: sedukzioa eta zentzuak delako ikastaroa antolatu du Arrasateko Jabetze Eskolak, emakumeei zuzenduta. Abenduaren 12an eta 13an izango da. Izenematea zabalik dago azaroaren 28a arte, Emakume Txokoan (943 79 41 39).

BERGARA

>'Internet zuretzat ere!' delako ikastaroa

Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde batzuek, *Txertatu zure bizitzan IKT-ak!* proiektuaren barruan, *Internet zuretzat ere!* ikastaroa antolatu dute abenduaren 1etik 4ra, eskualdeko hainbat ikastetxetan. Izenematea ikastetxeen bidez egin behar da.

BERGARA

> 1957an jaiotakoen kinto afaria

1957an jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute azaroaren 29an Errekin. Izenematea zabalik dago Intxorta tabernan, azaroaren 24a arte.

OÑATI

> Dementzien inguruko ikastaroa emango dute

Lahar elkargoaren eskutik, dementzien aurrean zelan jokatu ikasteko jardunaldiak emango dituzte azaroaren 25 eta 26an eta abenduaren 2an eta 3an kultur etxean, 17:00-20:00. Izenematea: 663 05 72 23 / *formakuntza@laharelkargoa.org*.

BERGARA

> Ardo-dastatze ikastaroa, San Joxepekoek

San Joxepe erretiratuen elkartekoek ardo-dastatze ikastaroa egin dezakete hilaren 27an. Izenematea: 943 76 93 94 (Miren).

ARRASATE

> 1955ean jaiotakoen kinto bazkaria

1955ean jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute hilaren 29an, zapatua, Baster-Alde jatetxean. Izenematea zabalik dago Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan 60 euro sartuta.

ARRASATE

> Haitin elikadura zentro baten aldeko elkartasun bazkaria egingo dute bihar, zapatua

Haitiko Jacmel herrirako proiektu baten aldeko elkartasun bazkaria egingo du Saiatuz taldeak bihar, zapatua. Laguntzeko bi modu daude: bazkaltzera joatea (10 euro) eta laguntza txartelak erostea (3 euro). Biak daude salgai San Juan parrokian. Argibideak: *saiatuz@hotmail.com*.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Hasi dira Gabonetako argiak ipintzen. Zer deritzozu?



Leire Vilchez
Langilea
Aretxabaleta

Argiak ipintzen hilabete lehenago hastea ondo iruditzen zait, kaleari giro berezia ematen diote eta. Hala eta guztiz ere, Gabonetako argiak ipintzeko aurrekontua murriztu egin beharko litzateke.



Mertxe Zapata
Langilea
Aretxabaleta

Argiak ipintzen hasteko goizegi da. Andre Maria Sortzez Garbiaren zubira arte itxoin beharko lukete. Herria ondo apaindu-ta egoten da eta ez dut uste diru larregi gastatzen denik argiterian.



Jose Luis Gartzia-Etxabe
Langilea
Aretxabaleta

Beharbada goizegi da argiak ipintzeko; egun batzuk itxaron beharko lituzkete, nahiz eta herria asko dotoretzen duten. Hala eta guztiz ere, ez dut uste diru askorik gastatzen denik argiterian.



Jose Olivenza
Erretiratua
Aretxabaleta

Ez zait iruditzen goizegi denik argiak ipintzen hasteko, dagoeneko Gabonak gainean ditugu eta. Aretxabaletako kaleak dotore ipintzen dituzte, Gabon giroa emanez, argiterian diru askorik gastatu gabe.



Karmele Ilarduia
Langilea
Aretxabaleta

Oraindik goizegi da argiteria ipintzen hasteko. Abendura arte itxaron beharko lukete. Aretxabaletan oso polita ipintzen dute eta ez dute diru askorik gastatzen, ez dago beharrik.

txistuak



GOIENKARIA

Domingo Iralako komunak, apurtuta

Bergarako herritar batek bidali digu aste honetako kexa. Domingo Irala kale eraberrituan komunak ipini dituzte, herritarrendako beharrezkoak diren komunak, gainera. Zaintzea ere herritarren lana da, baina dagoeneko lehenengo apurketak egin ditu jendeak. Irudian ikusi daiteke nola gelditu zen komuna joan zen asteburuan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

1.084

Datorren azaroaren 28an aurkeztuko dute *Arte y piedad. El arte religioso en Bergara en la Edad Media* izeneko liburua. Bi liburukitan banatuta, guztira 1.084 orri ditu, eta egilea Maria Jose Aranburu da. Bera Artearen Historian doktorea da. Aurrekontua 40.000 eurokoa izan da.

usteak uste

Larraitz Zeberio

Gabon usaina inguruetan

Gabon usaina hartzen hasita nago nire inguruan. Telebistan jostailuak iragartzen dituzten spotak ikusten ditut barra-barra. Hipermerkatura jaitsi eta turroiak, bonboiak eta antzerako produktuekin betetako mahaiak aurkitzen ditut behin eta berriz bidean.

Ez ditut ba Gabonak bereziki gogoko. Konpromiso ugari han eta hemen eta horietara guztietara iristeko atzera eta aurrera ordu gehiegi errepidean.

Leku lasai eta eguzkitsu batetara joango nintzateke hezetasunetik eta hotzetik ihesean atseden hartzera. Baina ekonomia ez dago kapritxoetarako.

Gabonek egun bat dute benetan gustuko dudana; Santo Tomas eguna.

Txistorra oso gutxi jaten dut urtean zehar eta abenduaren 21ean, ez dakit zergatik, ikaragarria egoten da. Lagun zaharrak ikusteko egun aproposa izaten da gainera, asko elkartzen baikara gure herriko txosna inguruan, hamaiketakoa egin, kontuak esan eta alde zaharreko edozein jatetxetan elkarrekin bazkaltzera.

Badator pixkanaka-pixkanaka eguna, eta ondo ospatzeko intentzio osoa daukat ondotik, 2009a, gerrikoa estutzeko urtea dator-eta!

5 galdera...

Joxe Mari Arkauz

Turroi egilea
Eskoriatza

1. Gabonak gertu daude eta dagoeneko turroiak egiteko garaia iritsi da. Noiz hasten zara zu eta zenbat egiten dituzu?

Santamasetarako hilabete falta denean hasten naiz, baina aurretik obleek, eztiak eta intxaur eta hurrek prest egon behar dute. Urte batzuetan 50 bat tableta inguru egin izan ditut.

2. Zeintzuk dira jendeak gehien eskatzen dituen turroi motak?

Normalean jendeak ez du zapore berezirik eskatzen, eta dagoenera moldatzen da. Hala eta guztiz ere, azkenaldian zapore desberdinekin egin dut proba garai berrietara egokitu beharra dagoelako, eta jendearen artean frutazkoa izan da gustukoenetarikoa. Txokolatea ere sartu izan dut, jendeak hala eskatuta.

3. Azoketan ere ibili zara saltzen, Santamasetan, esaterako. Jendeak azken momentura arte itxoiten du turroiak erosteko?

Ordurako gehienek erosita izaten dute Gabonetarako beharrezkoa duten turroia. Baina tableta bat gehiago ere jango delakoan, Gabon garaian turroia jatea ohitura delako eta tableta bat gehiago etxean sartuko delako erosten didate oraindik.

4. Turroiek gizendu egiten dutela esaten dute. Azukrerik gabekoak ere badaudela entzun dut.

Nik ez dut azukre bakorik egiten. Saiatu nintzen behin, baina ez da turroia berdin gogortzen eta horretarako errezeta egokirik ez dudanez, nahiago dut azukre beltza erabilita turroia ahalik eta naturalena egin.

5. Etxean turroia egin nahi duenarendako, zein da oinarrizko sekretua?

Bi esango nituzke: pazientzia eta dedikazioa, bi orduz egon beharra dagoelako masari eragin eta eragin eta hurrak eta intxaurrak prestatzeak ere lan handia suposatzen duelako.



HISTORIA > ALDAIKO HILERRIA

Hilobiak hutsik baina historiak bizi dirau kanposantuan

Aspalditik itxita eta narrek janda, baina oraindik ere makina bat bitxikeria gordetzen ditu Aldaiko hilerri zaharrak

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Orain dela ia 15 urte San Kristobalgo hilerrian lehenengo lurperatzea egin zenetik, poliki-poliki narrak eta isiltasuna jabetu dira XIX. mende hasieratik milaka arrasatearrek betirako atsedena hartu duten lekuaz: Aldaiko kanposantu zaharra. Orain, hildakoena baino, bizien atseden leku bihurtuko da, Udalak bertan herriko hirugarren parke nagusia izango dena egiteko proiektua dauka-eta. Oraingo kanposantutik panteoi batzuk besterik ez dituzte utziko, eta hilobiak dauden tokian umeen jolasgunea, estalitako kioskoa eta zuhaiztiak egongo dira. Proiektua dagoeneko onartua dauka Udalbatzak.

Berrehun urte baino gehiagoko historiaren lekuko panteoi batzuk besterik ez dira geratuko, Arrasateko historiaren lekuko ere badirenak. Ikusgarrienak hilerriko erdiko kaperaren alboetara daude. Badago panteoi frankista bat, Agirre delako bati eta haien senideei diktadorearen ejertzitoak berak eraikitzeko agindutakoa. Baina panteoietan ikusgarri eta esanguratsuena Mendiako kondeena da, kaperaren beste aldean dagoena. Familia horrek egin zuen erdiko kapera, eta eurenak dira ere askok gogoan izango dituzten atariko lehoiak. Panteoi horretan 19 gorpu lurperatzera heldu ziren; tartean, 4 urtetik beherako hainbat haur ere.

AUTOPSIA GELA

Ikusgarriak dira panteoi guztiak; are ikusgarriago, gorpuzkiak atera zituztenetik hilobiak zabalik eta narrek janda daudelako. Ikusgarria bai, baina iluna eta beldurgarria ere bada hilerria; batez ere bertan daudelako aspaldi abandonatutako autopsia instalazioak. Hala ere, zenbaitek ez deritzote hain tetriko hilerriari, autopsia gelaren aldamenean sofa, mahai eta guzti daukan lokala ere dagoelako; antza, orain dela ez askora arte erabilitakoa.



Erdiko kapera; albo baten Mendiako kondeen panteoia dago. XABIER URTZELAI



Frankistek egindako panteoia. x.u.



Euskal motibotun hilarria. x.u.



Hildakoen haginak, zoruan. x.u.



Autopsia gela. x.u.



Mendiako kondeen panteoia; 19 gorpu zeuden bertan. x.u.

Izurriteek eta frantziar tropek eragin izan dute hilerrien beharra Arrasaten

XVII. mende amaierako izurriteek eta frantsesen tropek herriak hartzeak parrokian bertan ez zeuden beste hilerri batzuk bilatzeko beharra ekarri zuten. Aldaikoa XIX. mendekoa dugu. 1810eko Arrasateko frantziar planoetan dagoeneko ageri da kanposantua, *Mondragón durante la ocupación francesa* liburuan zehazten denez. Garaiko ohitura zen gorpuak parrokian bertan lurperatzea eta herriko erdigunetik kanpoko hilerrietan atzerritarrak (frantziar soldaduak edo preso espainiarrak) lurperatu ohi zituzten, izurriteengatik-edo, lurperatzeko leku gehiagoren beharra ez zegoenetan. Iturriotz inguruan edo Zerrajera zegoen lekuan ere egon dira hilerriak Arrasaten aurretik.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

AZAROKO ESKAINTZA
PRAKAK
• TIRO BAXUKO ZANGO-ESTUAK: 24,95€
• TIRO ALTUKO ZUZENAK: 29,95€
• MODERNOAK(MUTILAK): 29,95€
Praka bat erosiz gero, kamiseta bat opari!!!
Zerkaosteta kalea 3 - ARRASATE

KONTRATAK
IRVROK S. L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

HIRIGINTZA > ALFONTSO X. JAKINTSUA PLAZA

Alfontso X. Jakintsuan autoen zirkulazioa debekatuko dute

Alfontso X. Jakintsua plaza berriro urbanizatu gura du Arrasateko Udalak

Gura dute gune hori aisialdirako bakarrik izan dadila, autoen joan-etorri barik



Argazkian, Alfontso X. Jakintsua plaza, ikusten den moduan, buelta guztian automobilak aparkatuta dituela. U.M.

UBANE MADERA > ARRASATE

Alfontso X. Jakintsua plaza zela berritu daitekeen erabakitzeko proiektua idatziko du datozen bost hilabeteotan Asmatu SL enpresak. Atzo udal gobernuak onartu zuten lan hori adjudikatzea, 21.000 eurorengatik.

AUTOAK EZINGO DIRA SARTU

Izan ere, eta labur esanda, Arrasateko Udalak gura du gune hura berriro urbanizatu, eraberritu; eta eraberritze horretan, oro har, gura du Grupo San Juanen erdiko alde ingurua aisialdi gune bilakatu, bere osotasunean, plaza bera (erdiko gunea), plaza inguratzen dagoen errepidea eta inguruko etxebizitzen azpiko aterpeak aprobetxatuz. Hala, hori lortzeko, besteak beste, eten egin gura du plaza inguruan gaur egun dagoen ibilgailuen zirkulazioa, eta aparkalekuak kendu.

Horixe da Udalak zehaztu duen irizpidea. Hortik aurrerako guztia Asmatu enpresak proposatu beharko du idatziko duen proiektuan. Adibidez, zein zuhaitz eta landare mota gura dituzten landatu eta non landatu behar diren; hau da, plazaren diseinu osoa proposatu beharko dute.

BITERIREN MONUMENTUA

Plazaren erdigunean dagoen Biteriren monumentuarekin zer gertatuko den ere proposatu beharko dute proiektu horretan, "zein tratamendu eman behar zaion", Udalak zehaztu duten moduan. Izan ere, baliteke monumentua beste lekuren baten ipintzea. Hori ere idatzi beharko dute Udalak enkargatu duen proiektuan. Esandako moduan, bost hilabete barru entregatuko diote urbanizazio proposamena Udalari. Gero, obrak egiteko aurrekontua zehaztu eta bideratu beharko dute. Beraz, oraindik luze joko du proiektu horrek.

ELKARTASUNA > ZUBEROAKO IKASTOLAK

Zuberoako bi ikastolek handitzeko laguntza behar dute

Besteak beste, Gabonetako otarren salmentaren bitartez batuko dute dirua; azaroaren 25era bitartean jasoko dituzte eskaerak

U.M.> ARRASATE

Elkartasun eskaera iritsi da Zuberoatik Arrasatera, eta oro har, Debagoieneko bizilagunengana: Zuberoan dauden bi ikastolek dirua behar dute. Renée Harbuston zuberoarrak azaldutakoaren arabera, ikastola bi horietan "aurten 80 bat ume diren arren, datorren ikasturterako 100 bat ume espero dituzte". Horiek guztiak hartzeko, ikastoletan handitze obra egin behar dute eta laguntza behar dute horretarako. Horrez gainera, eguneroko jardunerako ere behar dute dirua . Izan ere, jantokiaz arduratzen den langilearen soldata ikastolek ordaindu behar izaten dute, Frantziako estatuak ez die-eta laguntzen. Eta ikastolen mantenurako dirua ere ipini behar izaten dute.

IKUSKIZUN HANDIA ETA OTARREAK

Hala, zuberoarrek bi ekimen abiarazi dituzte gurean dirua batzeko: Gabonetako otarreak salduko dituzte eta datorren urtean kantaldi "erraldoia" egingo dute Arrasaten. Otarrei dagokienez, laugarren urtea da eskaintza hori ekartzen dutela: etxeko produktuekin osatutako otarreak dira: "Badakit ez dela oso momentu egokia erosteko, krisia dela eta; baina beti opari polita da Gabonetan egiteko, adibidez. Aurten zumezko (minbre) otarrean etorriko dira jakiak: ardi gazta (kilo bat), eztia, (500 gramo), patea (ahate gibelarekin egindakoa), eta bizkotxo poltsa bat", dio Renèe Harbustonek. Otarre horietako bat eskuratu daiteke 39 euroren truke. Enkarguak egiteko, Zuberoako ikastolei eurei egin behar zaizkie eskaerak, azaroaren 25a (martitzena) baino lehen: *zuberoako.ikastola1@orange.fr*. Otarreak iritsiko dira Zuberoatik abenduaren 12an. Enkargu handiak badira, leku bakoitzean banatuko dituzte: fabrika, ikastetxe edo dagokion lekuan, eta bestela, Bedoña auzoan hartu ahal izango dira.

IAZ, 7.400 EURO

Iaz 7.400 euro batu zituzten Arrasaten, Basaurin eta Usurbilen egindako kanpainan, otarre salmentaren bitartez.

BI IKASTOLA

Sohütan eta Alozen dira Zuberoako ikastolak

Bi ikastola daude Zuberoan: Söhutan (Maule inguruan) eta Alozen (Atharratze inguruan, ume txikiendako). 80 bat ikasle dira, eta bost irakasle eta orduka diharduten beste lau langile. Zuberoako aurreneko ikastola 1972an zabaldu zuten, dozena bat haurrekin, Mauleko herriko etxeak utzitako gela batean. Zazpi urte geroago, hezkuntza eskaintza handitu eta 1. maila zabaldu zuten. Ikasle kopurua handituz eta eraikin berriak sortuz, 1996an estreinatu zuten gaur egungo ikastetxe nagusia: Sohütako Eperra. Euskal herritar askok parte hartu zuen hura sortzeko lanetan. 1997ko irailean estreinatu zuten, gaur egunera arte.

> GAZTEAK

Jostailuak batzen hasiko dira, truke azokarako

Txatxilipurdik iragarri du datorren astean hasiko direla jostailuak batzen, Gabonetako jostailu-truke azokarako. Azoka egingo dute abenduaren 13an 12:00tatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Okendoko ludotekan. Azokarako jostailuak, auzoz auzo batuko dituzte, beste urte batzuetan egin izan duten moduan. Hasi martitzenean, azaroaren 25ean, hasiko dira jostailuak batzen, Arimazubin; 26an, Santamarinako ludotekan izango dira eta 27an, Biteri plazan; beti, 18:00etatik 19:30era.

> IKASTAROA

Sexualitatearen gaineko ikastaroa, Emakume Txokoan

Emakumeei zuzendutako ikastaroa antolatu dute Emakume Txokoan. Erotismoa, sedukzioa eta zantzuak landuko dituzte, besteak beste. Ikastaroa egingo dute abenduaren 12an eta 13an. Izena emateko epea, berriz, azaroaren 28ra arte dago zabalik (943 79 41 39). Proposatzen dutena da bizipen tailerra, "gure gorputzarekin konektatzeko espazio bat, gure emozioak, norberarenganako maitasuna indartu eta gure buruekin eta gainontzeko pertsonekin tratu oneko harremanak egiten ikastea".

> HITZORDUA

Espe edo Itxaro izena dutenendako bazkaria izango da

Espe edo Itxaro izena duten arrasatearren arteko bazkaria egingo dute abenduaren 18an, Itxaropenaren Amaren egunean. Arrasaten bertan egingo dute bazkaria. Eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea, abenduaren 10a bitartean. Izena emateko honako telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da: 943 79 14 99 (Espe San Pedro) edo 943 79 09 25 (Espe Lizarralde).

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



Corazon de Encinako Los Chambras taldeak abesti ezagunak eskainiko ditu zapatu eguerdian. GOIENKARIA

OSPAKIZUNA > EXTREMADURA ETXEA

Jaialdia antolatu dute Corazon de Encinakoek

Extremadura etxekoen 15. urteurrena ospatzeko hitzaldia, karta jokoa, baba jana eta dantzaldia izango dituzte aste bukaeran

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Corazon de Encina extremadurar elkarteko kideek aste bukaerarako jaia antolatu dute, elkartearen 15. urteurrenaren aitzakian. Elkarteak 137 bazkide ditu, baina Extremadura etxearen bueltan ibiltzen diren lagunak gehiago dira, senideak ere kontuan hartzen direlako.

Juan Sanchez elkarteko presidenteak urteurrenaren harira esan digunez, "15 urtek eman digute ikasteko aukera. Beste kultura eta elkarte batzuekin izan dugun elkartrukeak hemengo eta kanpoko kulturen gainean gauza berriak jakiteko modua eman digu eta baita lagunak egiteko bidea ere".

Ospakizunak gaur, egubakoitza, hasiko dira 18:00etan. Txokolate jana egingo dute eta hitzaldia izango da gero Goiena aseguru etxearen eskutik. *Egungo finantza krisia, aurrekariak eta erantzun posibleak* izenburupean egingo dute hitzaldia. Elkarteko presidente Juan Sanchezen esanetan, "gai hori aukeratu dugu interesgarria delako eta gaurkotasuna duelako".

BABA JANA ZAPATUAN

Zapatuan, eguerdian hasiko dira ekintzak. 12:00etan Extremadurako paisaiak ikusiko dituzte bideoan eta, ikus-entzunezko emanaldiaren ostean, 13:00etan, ohorezko topa egingo dute. Los Chambras taldearen emanaldia izango da ondoren, eta abesti ezagunak eskainiko dituzte.

Baba jana izango da gero eta, antolatzaileen esanetan, 90 lagun inguru elkartuko dira. Bazkal ostean kuatrola karta jokoko finalak eta dantzaldia egongo dira aukeran. Jaia kuatrolako sari banaketarekin amaituko dute.

Datorren astean Corazon de Encinakoek San Andres auzoko azokan hartuko dute parte folklore emanaldi eta produktuekin.

UDAZKEN JAIA AL ANDALUSEKOEK

Datorren aste bukaerarako baita ere, Udazken jaia antolatu dute Al Andalus elkartean.

Egubakoitzean, hilaren 28an, uztaileko lehen domekan egindako Errozioko irudiak izango dira ikusgai 21:00etan eta karta jokoan jardungo dute 22:30etik aurrera. Zapatuan, Aranjuezeko etxekoei harrera egin eta, Arrasate bisitatu ostean, anaitasun bazkaria egingo dute. Bazkalosterako dantza eta kantu saiorik ez da faltako. Berdin egingo dute gala afariaren ondoren, A mi aire taldearekin dantzaldia iragarrita baitago. Domekan umeen txanda izango da. Eurendako jolasak eta hamaiketakoa gertatu dituzte.

MUSIKA > KONTZERTUAK

The Casualties punk talde amerikarrak jardungo du zapatuan 3.60 aretoan

Gaztetxean, Rackham's Revenge Alemaniako taldeak egingo du kontzertua

I.A. > ARRASATE

New Yorkeko The Casualties taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, 3.60 aretoan. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta Texaseko Krum Bums-ek eta Afonia eta DJ Mansillak ere jardungo dute.

The Casualties hardcore eta streetpunk doinuak egiten dituen taldea da eta euren abestietan gai politikoak lantzen dituzte, batik bat.

Krum Bums taldekoek ere punk eta hardcore doinuak ekarriko dituzte, eta Hernaniko Afoniakoek, punka.

BI EMANALDI ARRASATEN

Bestalde, egun berean, Gaztetxean Alemaniako talde batek jardungo du, Rackham's Revenge taldeak, hain zuzen ere. Egunean Etxoste tabernan jardun eta egubakoitzean The Motherfuckers eta Never Surrender taldeekin Ondarroan kontzertua egin ostean, berriz The Motherfuckers eta Ondarroako Jonny Gerriwelt izango ditu lagun taula gainean.

Alemaniatik streetpunk doinuak ekarriko dituzte Arrasatera. The Motherfuckers talde arrasatearrak ere punk doinuak eskainiko ditu herritarren aurrean eta Jonny Gerriwelt-eko ondarrutarrek, berriz, rock eta punka emango dituzte euren kantuetan.

Gaztetxeko kontzertua ere gaueko hamarretarako dago iragarrita.



EDORTA AIASTUI

Musika Santa Zeziliaren omenez

Musikarien zaindari Santa Zeziliaren eguna da azaroaren 22an, zapatuan. Hori dela eta, musika emanaldirik ez da falta izan egunotan herrian. Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua egin zuten martitzenean, eta denetariko musika tresnak entzuteko aukera izan zen. Gaur, egubakoitza, ere bada musika zaleendako aukerarik. Arrasate Musikaleko banda nagusiak kalejira egingo du 19:30ean hasita herriko kaleetan barrena. Goikobalukoek, berriz, kantu-poteoa egingo dute 20:00ak inguruan hasita eta afaria izango dute gero.

arbolapeta
arrasate
beinke

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur azaroak 21
00:00etatik aurrera
Ramon Guamá
Umorezko bakarrizketak




Unzueta
sagardotegia






sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta
•
eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95



Arkauz **zure etxea** da.

GRUPO
ARKAUZ
ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2008

SASKIBALOIA > LEHENENGO NAZIONAL MAILA

"Domekan ikusiko dugu MUk non egoteko gaitasuna duen"

Azken urteotako hasiera makalena izan du MUk: jokatutako zazpiak galdu dituzte

Entrenatzaile lanetan dabilen Javi zurbanok hasiera horren balorazioa egin du



MUko jokalariak Mikeldiren kontrako norgehiagokan, orain dela hamabost egun. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Domekan jokatuko du MUk ligako zortzigarren jardunaldia (18:00, Iturripe), Lizarrako Promociones Legarciaren kontra. Eta, Arrasateko taldeko entrenatzailearendako partidu horrek erakutsiko du MUren talde nagusia aurten nondik nora ibil daitekeen: "Joan den astean Paduraren kantxan galdu egin bagenuen ere taldeak oso itxura ona eman zuen, oso parean egon ziren indarrak; asteak igaro ahala hobekuntza nabarmena da". Hala, zazpi partidu jarraian galdu eta gero etxekoak garaipen gosez dira: "Norgehiagoka bat irabazteko ordua da, sekulako poztasuna emango liguke horrek".

EMAITZEK EZ DUTE LAGUNTZEN

Liga hasieraren balorazioa ere egin du Arrasateko taldeko entrenatzaileak: "Emaitzei dagokienez bistan dago balorazioa ezin dela positiboa izan, oraindik ez dugulako partidurik irabazi. Baina ni oso baikor nago, taldean oso jokalari gazteak izanda ere sekulako konpromisoa erakusten dabiltzalako, eta asteak joan ahala geroago eta hobeto ikusten ditudalako. Kontutan hartu behar da kategoria horretan taldeak 30 urteko jokalariekin osatuta daudela, eta gure jokalari gehienek 19 urte inguru dituzte. Salto handia da eurendako, baina klubean pentsatu genuen orain egin behar genuela pauso hori". Ointxek apustu sendoa egin du taldeko gazteen alde, eta horrek ez ditu fruituak aurten emango,agerikoa da hori. "Baina orain kirol emaitzek ez dute horrenbesterainoko garrantzirik, baditugu beste lehentasun batzuk, eta lehen ere bagenekien aurten kategoriari eusteko lan handia egin beharko genuela, sufritzea tokatuko zitzaigula. Hori bai, jokalariak geroago eta protagonismo handiagoa hartzen dabiltza, saskiratze kopurua begiratzea baino ez dago, eta poliki-poliki badabiltza nik nahi dudan defentsa estilora gerturatzen. Hemen gogor defendatu behar da, eta taldea ia-ia nik nahi dudan gogortasun mailan dago".

Hala ere, Zurbanok uste du taldea oraindik ere igoera fasera sailka daitekeela: "Oso zaila da, badakit hori, baina oraindik badugu aukerarik, taldeak zazpi partidu hauetan izugarrizko aurrerapausoa egin duelako, ikustekoa da egon den ebolu-zioa. Gainera, Cafes Aitonaren kontrako partidua ezik, galdu ditugun gainontzeko partiduetan aldea ez da oso handia izan. Hori bai, domekan galduz gero jaitsiera fasea jokatzeko prestatzen hasi beharko gara, hainbat gauza birplanteatu beharko ditugu".

KONTRARIOAREN GAINEAN

Promociones Legarcia, talde gaztea

Mondragon Unibertsitateak domekan izango duen kontrario Promociones Legarcia sailkapenaren bosgarren postuan dago. Zurbanorendako, baina, Lizarragakoak menderatzea Arrasateko mutilen eskura dagoen helburua da: "Gure taldearekin antzekotasun handia duen kontrarioa da Legarcia: talde herrikoia, gazte askorekin osatutakoa... Defentsan nahiko ondo moldatzen den taldea da, bi pibote sendo dituzte, baina batez ere kanpoko jaurtiketetan dira finak. Hori bai, ez da talde azkarra, eta eurek ere iaz aldaketa handiak izan zituzten".

Alde horretatik, MUk kategoriari neurria hartzeko egin beharrekoen gainean egin du zurbanok berba: "Kategoria horretan defendatzerako orduan jendeak ez ditu alternatiba handiak erabiltzen. Hemen ez dago defendatzeko ohiturarik, saskiratzeak bilatzen dira; guk beste alternatiba batzuk bilatu behar ditugu, eta erabat kontzentratuta jokatu".

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Betrayer-Iturriotz Taberna	5-6
Lasagabaster-Dublin Irish Pub	3-2
McAwenDauen-Paulaner Dribling	5-4
Cipris-Abokajarro	4-2
Saukelu Kabian-Urza	7-1
HLB 108-Iriztu Taberna	5-3
Equs-Ekaitz Taberna	5-9
Dublin Irish Pub-Total Disaster	10-1
Iluntz-Lasagabaster	3-2

PARTIDUAK

Azaroak 22, zapatua	Epaileak
10:00 Betrayer-Urza	Lasagabaster
11:00 Abokajarro-Lasagabaster	Betrayer
12:00 Iturriotz Tab.-Bar Aldapa	Abokajarro
13:00 HLB 108-Paulaner Dribling	Iturriotz
16:00 Ekaitz Tab.-Cipris	Equs
17:00 AT Celaya-Equs	Cipris
18:00 Total Disaster-Iriztu Tab.	AT Celaya

Azaroak 23, domeka	Epaileak
11:00 Bar Aldapa-AT Celaya	Iluntz
12:00 Iluntz-McAwenDauen	Bar Aldapa
13:00 Saukelu Kabia-Dublin Irish	McAwen

SAILKAPENA

		P	J
1.	McAwen Dauen	15	5
2.	Saukelu Kabia	12	5
3.	HLB 108	10	5
4.	Paulaner Dribling	10	5
5.	Iriztu Taberna	9	5
6.	Ekaitz Taberna	9	5
7.	AT Celaya	9	5
8.	Dublin Irish Pub	7	5
9.	Cipris	7	5
10.	Iluntz	7	5
11.	Betrayer	6	5
12.	Iturriotz Taberna	6	5
13.	Lasagabaster	6	5
14.	Abokajarro	5	5
15.	Bar Aldapa	4	5
16.	Urza	3	5
17.	Equs	2	5
18.	Total Disaster	0	5

Saukelu bueltatu da dagokion tokira

Beste urte batzuekin alderatuta, aurten denboraldi hasiera makala izan du Saukelu Kabia taldeak, baina Zigorrolakoak poliki-poliki eurei dagokien lekura iritsi dira, sailkapeneko aurreneko postuetara. Asteburuan, berriz, zortzigarren dagoen Dublin Irish Puben kontra jokatuko dute. Bestalde, joan den astean liderrak gorriak ikusi zituen Dribling mendean hartzeko (5-4), baina partidua irabazita, ondo eutsi diote lidergoari; oraindik ez dute partidurik galdu. Amaitzeko, jardunaldi bikoitza izan zuten Lasagabaster eta Dublin Irish Pub-ek ez zuten asteburua errematatu, ezin biak irabazi.

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK
Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

CE ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

kanpotarrak arrasaten

Julien Dupouy > Frantsesa
Telekomunikazio-ingeniaritzako azken ikasturtea

"Hemengo gurasoak umeekin igerilekura joateak harritu nau"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Bi hilabete eskas daramatza gurean Julien Dupouyk. Agen herrikoa baldin bada ere, Tolosako (Frantzia) Enseeiht Unibertsitatean ari da Telekomunikazio-ingeniaritza ikasten. Sei hilabete egongo da gure artean, Mondragon Goi Eskola Politeknikoan.

Erasmus programaren bidez etorri da Julien Dupouy gure artera. Biztanle kopuruari dagokionez, Arrasate baino hiru aldiz handiagoa den herrikoa da bera, Agenekoa, hain zuzen ere. Dupouy dio Arrasatekoak, frantsesak ez bezala, gizartekoiagoak direla eta taldeetan gehiago batzen direla. "Adibidez, hemen, Arrasaten, jendea gauetan ez da etxean gelditzen, kalera irteten da, umeekin jolasten dute..." Dupouy inoiz ikusi gabe zegoen hemen gurasoak umeekin igerilekura joaten: "Asko harritu nau horrek".

"Arrasaten jendea gauetan ez da etxean gelditzen, kalera irteten da, tabernara, umeekin jolasten dute..."



Julien Dupouy.

JANARI BIKAINA GUREAN

Hemengo janaria oso goxoa dela adierazi digu berak: "Jatetxe oso onak daude hemen inguruan eta gainera ez dira hain garestiak". Gehien atsegin duena pintxoak eta Errioxako ardoa dira. Gure ingurua nahiko menditsua da eta Dupouyk aitortu digu nahiago duela itsasoa. Hala eta guztiz ere, esan digu Arrasate oso ondo kokatuta dagoen herria dela: "Frantziatik gertu gaude hemen, eta Gasteiz, Donostia eta Bilbo moduko hiriburuak ere ez daude urruti, ez eta beste herri batzuk ere".

ETXEKOEN FALTA IGARRI

Bere familia Agenen bizi da: "Unibertsitate ikasketak hasi nituenean Tolosara joan nintzen bizitzera". Horregatik, bere familiaren falta igartzen du, baina ez Tolosan zegoenean igartzen zuen baino gehiago. Gainera, laster Gabonak datoz eta bere lagunak eta familia bisitatzeko aukera izango du.

txutxu-mutxua



LEINTZ ESKOLA

Leintz eskola kirolak antolatuta mendi irteera

Joan zen domekan mendi irteera egin zuten, Leintz eskola kirolak antolatuta. Hilero egin izan dituzte mendi irteerak, baina orain deialdi zabalagoa egin dute, eta erantzuna ezin hobea izan da: 150 lagun inguru -umeak eta gurasoak-, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate (gehiengoa) eta Aramaiokoak. Goiz pasa joan ziren Aramaioko Orixol mendira. Eguraldia ez zuten lagun izan: lanbroa, lainoa eta hezetasun handiaren erruz, inguru guztia oso labainkorra zegoen. Hala ere, goiz pasa polita izan zuten, eta hainbat jausi egin baziren ere -batez ere beheranzkoan, Etxaguenera bidean-, ez zuten zauri larririk izan. Hurrengo irteera abenduaren 14an izango da, Bergaratik Antzuolara.

bere ustez



Nerea Makazaga

Shashemenetik Jamaikara bueltan

Shashemenera bueltatu zirenak atzean uzten zuten hura ere ezagutzerik bagenu..." Eta horrela abiatu ginen Jamaikara, egunerokotasunetik urrutiratu eta oroimeneko lerroak osatu guran.

Distantziak markatu ohi duen bezala, antzekotasunak eta paralelismoak ez dira bat bateko ezaugarri suertatzen. Bada ordea, Jamaika eta Etiopia gerturatzen dituen pintzelkada jarraikor bat bien paisaian, koloreen armonian barrena nostalgia ekidinezinera zaramatzana. Eta nostalgiarekin bat, abiatu ginen Nine Milera, Boben bila; bidea noiz amaituko zen jakin gabe, Boben bila abiatu ginen, Nine Milera iritsi guran. Eta Zyon muino bilakatuta aurkitu genuen, Boben harrizko almoada lumaztuta, eta Trenchtowneko garaiak oraindik urruti.

"Eta bidaiatzen jarraitu genuen erlojuaren orratzen kontrako norantzan"

Kantu gehienak ez daude itsasoko olatuetan izkiriatuak. Eta bidaiatzen jarraitu genuen, erlojuaren orratzen kontrako norantzan; atzean utziz Blue Lagoon edota Bonden hondartza, eta atzean Red Stripe botila hutsak kolorez jositako tabernetan. Atzean utzi genituen gorria, horia eta berdea; eta Rasta Manak... han gelditu ziren; lasaitasunean; paradisuaz gozatzen; ke lainoetan bezala.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

PUB HAIZEA
arrasate

Jili Jili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Kultura etxea bertan dagoenez, jende ugari sartzen da Santa Ana parkera. Euria egiten duenean, lokaztu egiten da. M.B.

AZPIEGITURAK > EGOKITZAPEN LANAK

Santa Ana parkeko bidea egokitu egingo dute

Asfaltatu egingo dute, kultura etxerako sarrera erraztuz; bankuak eta argiteria ere jarriko dituzte

Horrekin batera, herriko beste sei gune ere asfaltatu egingo dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Santa Ana parkeko bidetxoa konpondu egingo du Udalak, herritarren aspaldiko eskaerari erantzunez. Ingurumen batzordearen irizpideak aintzat hartuta egingo dira egokitzapenok. Hori horrela, bi metro zabaleko bidetxoa asfaltatu egingo dute eta eserlekuak eta argiteria berria –hamar bat baliza txiki– jarriko dituzte.

Udaleko iturrien esanetan, lehenbailehen egin nahi dituzte lanok, betiere "eguraldiak laguntzen duenean, horrek asfaltatze lanak baldintzatzen ditu eta".

Herritar ugarik eskertuko dituzte egokitzapen lan horiek, kultura etxera sartzeko bide bakarra baita eta, batik bat, euria egiten duenean lokaztu egiten delako.

HOBEKUNTZA GEHIAGO

Herriko beste sei gunetan ere egingo dituzte asfaltatze lanak. Dagoeneko hasita daude lanok; batzuk, bukatuta. Asfaltos Urretxuk dihardu horretan, Udalak 117.000 eurotan esleitu eta gero.

Erregetxo plaza, Madalena plaza eta Zubiaurreko kalexka bat asfaltatu egingo dituzte, eta, horrekin batera, Bolun eta Espoloiko zuzenean zebrabide altxatuak egin.

SAN MARTZIALERAKO BIDEA

San Martzialerako bideari dagokionez, lan sakonagoak egin dituzte hor. Hain justu, saihesbideko zubiaren azpiko kurba zabaldu egin dute. San Martzial aldeko bizilagunen eskariei erantzunez egin dute hori. Izan ere, kurbaren bi alboetan aparkatzen dute autoa herritarrek eta horrek ikusmena gutxitu egiten du goitik behera zein behetik gora doazen autoendako. Hala, arriskua ekiditeko asmoz, errepidea zabaldu egin dute eta baita asfaltatu ere.

> AISIALDIA

Patata feria egingo dute bihar, zapatua, San Antonion

10:30ean irekiko dute eta, besteak beste, egongo da 12 patata barietateren erakusketa eta artisau eta gastronomia produktuen salmenta. Bestalde, patatak errioxar erara nork goxoen prestatzen dituen jakiteko lehiatu egingo dira herriko elkarteak 11:30ean. Ordu berean lau patata barietateren dastatzea egongo da Gure Ametsan Isidro Urtzelai Arabako Patataren Kofradiaren presidentearekin. Patata eta haragi gisatuaren dastatzea ere izango da, 12:30ean.

> GAZTEAK

Lan eskaintzak eskura Gazte Informazio Bulegoarekin

Gazte Informazio Bulegoak kaleratu berri du azkeneko buletin elektronikoa. Buletin horretan batzen dute gazteendako interesa izan dezakeen Bergarako, Debagoieneko eta Gipuzkoako informazioa, hala nola, ekintzak, ikastaroak, bekak... Gainera, atal berezi bat dago lan eskaintzei zuzenduta. Azken buletina irakurtzeko jo helbide honetara: *www.gipuzkoangazte.info/adminigazte/buletina.asp?zebulego21*. Harpide ere egin daiteke.

AUZOAK > OSINTXU

Osintxuko argazki bilduma

Auzotarrek lagatako 74 argazki batzen dituen DVDa egin dute eta salgai jarriko dute

M.B. > BERGARA

Osintxuko Herri Batzordeak 74 argazkiz osatutako DVDa aurkeztuko du etzi, domeka, Jubilatuen Egunarekin bat eginez.

Auzoaren irudiak, auzotarrenak, uholdeenak... hainbat dira argazki bildumak batzen dituen gaiak. 1930. urtean hasi eta duela 20 bat urtera artekoak dira gehienak, auzotarrek lagatakoak Herri Batzordeak egindako deialdiari erantzunez.

JUBILATUEN EGUNAREN OSAGARRI

Argazki bilduma Herri Batzordeari otu zitzaion, Jubilatuen Egunaren osagarri izateko asmoz, Juan Mari Alberdi auzo alkatearen esanetan: "Jubilatuen egunean ohiko bazkariaz gain, bestelako ekintzaren bat egin nahi genuen egun hori osatze aldera, eta hortik sortu da DVDa". Hala, domekan ospatuko dute Jubilatuen Eguna eta bazkarian aurkeztuko dute DVDa, 14:00etan, Txuringo tabernan. DVDaren 100 ale kaleratuko dituzte eta salgai egongo da 8 euroren truke Txuringo tabernan eta dendan.



Azpiazu, Garaiondo eta Astigarraga, Kofraixetako tonbolan. HERRI BATZORDEA

XUXU
Levis
Banatzaile ofiziala
Narrua - Bakeroak - **Tailak 36.....54**
ESKAINTZA BEREZIAK
San Pedro kalea 14, behea
Tel. 943 76 07 55
XUXU
%10eko DESKONTUAK
Txamarretan %20a
Moztu eta erakutsi txartela dendan erosketa egiterakoan. Bezero bakoitzeko txartel bat. (txartelak ezin dira pilatu)
Abenduak 10era arte.

Almacenes MAHER
Etxerako artikuluak, izarak, funda nordikoak, mantak, toallak, sukaldeko trapuak, etab.
eta **AZAROtik** aurrera
ALZA
sukaldeko tresneria
FABRIKAKO PREZIOAK!
Bidekurutzeta 29 Bergara

ZERBITZUAK > GARBITASUNA

Arratoien aurka egiteko enpresa kontratatu du Udalak

Hilean behin mantentze lanak egiten ditu herriko arketa eta ibai bazterretan eta, urtean bi aldiz, hiru eguneko tratamendu etengabea ematen du



Herriko arketetan pozoia botatzen dute arratoien aurkako mantentze lanak egiten dituen enpresako langileek. MONIKA BELASTEGI

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Arratoien aurka egiteko enpresa bat kontratatu du Udalak. Uztailetik hona arratoiak hiltzeko pozoia botatzen dute, aldika, herriko eta auzoetako arketa eta ibai bazterretan.

POZOI PIKORTATUA

Barakaldon bulegoak dituen ISS izeneko enpresako langileak ari dira arratoien aurkako tratamendua burutzen. "Hilean behin egiten dugu mantenua, arketa nagusietan pozoia botaz. Bestalde, urtean bi aldiz, urrian eta apirilean, hiru eguneko etengabeko kanpaina egiten dugu. Horrez gain, herritarren abisuak daudenean ere joaten gara zerbitzua eskaintzera", dio Jose Ignacio Pildainek, ISS enpresak Gipuzkoan duen lantaldeko kideak.


Lan hori egiteko, herria zortzi gune nagusitan banatuta dute, eta hilean behin egiten duten tratamendua gunez gune egiten dute. "Gune bat da, adibidez, Osintxutik gasolindegi ondoraino, eta beste batzuk dira Bolu, erdigunea, Angiozar eta San Antoniotik Labegaraietara, esaterako", zehaztu du Pildainek.

Arratoien aurka botatzen duen pozoia eraginkorra da eta ez dio beste inori kalterik egiten, Pildainen esanetan. "Pozoia pikortatua da eta antikoagulantea da. Hau da, pozoia hartu eta ordu batzuetara hiltzen dira arratoiak, jan eta berehala hilez gero ondoko arratoiek ez dutelako pozoia probatuko". Jose Ignacio Pildainen esanetan, Bergaran ere lehen baino arratoi gutxiago dago gaur egun.

Alvarez eta De Cerio irakasleen agur afaria

Jesus Alvarez eta Xabier de Cerio irakasleen agur afaria egin zuten San Martin Agirre ikastetxeko lehengo eta oraingo irakasleek eta guraso elkarteko ordezkariek azaroaren 7an. Erretiroa hartu dute bi irakasle horiek, eta mahaiaren inguruan ospatu zuten.

Jesus Alvarezek 34 urte egin ditu San Martin Agirren. Ikastetxeko zuzendaria ere izan zen hainbat urtetan, eta baita matematika eta gaztelaniako irakasle ere, besteak beste. Xabier de Cerio, berriz, Nafarroatik Angiozarrera etorri zen eta handik kalera, Martinez de Irala eraikinera. 22 urte egin ditu Bergaran De Ceriok eta azken 10 urteetan Arrasateko Helduen Ikastetxeko irakaslea izan da.



SAN MARTIN AGIRRE IKASTETXEA

> ERRETIRATUAK

San Joxepeko ile apaindegia ez dute kenduko

San Joxepe erretiratuen elkartean obrak egingo dituzte eguneko zentroa handitzeko. Hainbat erretiratu kezkatu egin dira obra horiek egiteko ile apaindegia kendu egingo dutelako, baina ez da hori gertatuko. Obrek irauten duten bitartean goiko solairuan egongo da ile apaindegia, baina ez dute itxiko.

> ZERBITZUAK

Autobus geltokietako markesinak konponduko dituzte

Autobus geltokietako markesinak konpondu eta margotu egingo dituzte. Herrian 17 markesina daude eta dagoeneko hasi dira horietako batzuk konpontzen. Egurrak aldatu dituzte, eta garbitu egingo dituzte orain. Eguraldi hobea egiten duenean, margotu egingo dituzte.

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ZINEMA > ZABALOTEGIN

Zabalotegi aretoan zine emanaldiak egingo dituzte

2005ean itxi zuten Novedades aretoa eta ordutik ez da zine aretorik egon herrian

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Zabalotegi areto berrituan zine emanaldiak egiten hasiko dira aste bukaeran. Orain dela hiru urte itxi zuten Novedades zine aretoa eta ordutik Bergaran ez da aretorik egon. Orain, Zabalotegi aretoarekin, azken urte hauetan herritarren eskaerari erantzuna emango zaio.

Arazo ekonomikoengatik itxi zuten zinema; Novedadeseko arduradunak behin baino gehiagotan kexatu ziren ikusle kopuruaren murrizteaz. *Entre copas* izan zen Novedades aretoan eskaini zuten azken filma, 2005eko martxoaren 29an.

'ZINEA ORAIN' ALDARRIKAPENA

Herritar talde bat zinea izateko eskubidea aldarrikatzen ibili da: *Zinea orain* lelopean. Gainera, gazte talde batek herrian zinea bultzatu guran, zineklub emanaldiak eskaini ditu azkenaldian Gaztetxean. Hala, domekero, pelikula bat eskaini dute gai konkretu baten inguruan. Bestalde, txikienentzat ere pelikulak eman dituzte Agorrosinen.

Enara Minguez kultura zinegotziak esan du enpresa bat kontratatu dutela pelikulak ekartzeko urte amaierara arte. Datorren urteari begira, zerbitzua lehiaketara aterako dutela azaldu du zinegotziak.

Azaroko egitaraua

22, zapatua
17:00 *Go!azen.*
19:30 *El orfanato*
22:30 *El orfanato*

23, domeka
17:00 *Go!azen*
19:30 *El orfanato*

29, zapatua
17:00 *Locos por el surf*
19:30 *Al otro lado*
22:30 *Al otro lado*

30, zapatua
17:00 *Locos por el surf*
19:30 *Al otro lado*

DANTZA > MOISES ASPIAZU DANTZA TALDEA

Dantza erakustaldia, galtzen hasitako ohitura berreskuratzeko

Azaroaren 29an dantza erakustaldia egingo du Moises Aspiazu taldeak udal pilotalekuan, eta denetariko dantzak ikusi ahal izango dira



Irantzu Lizarralde, Maite Lazkano eta Amaia Agirre. ARANTZAZU EZKIBEL

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Dantza taldeek ez dute euren une onena bizi. Dantza soltean, adibidez, mutilik apenas dago eta bikote kopurua nabarmen jaitsi da. Horrek hainbat txapelketa garrantzitsu bertan behera uztea ekarri du.

Egoera honen aurrean, Bergarako Moises Aspiazu dantza taldeak lanean jarraitzeko asmoa berretsi eta dantza erakustaldi berezi bat antolatu du azaroaren 29rako; doan izango da, 19:30ean, Bergarako udal pilotalekuan.

EUSKAL KULTURA SUSTATUZ

1970. urtean jaiotako Moises Aspiazu taldea, dantza talde asko bezala, euskal kultura sustatzeko helburuz sortu zen. Azkenaldian, batez ere auzoetan eta ezkontzetan egin dute dantza, eta baita, azken bi urteetan, maiatzean antolatu izan duten erromeria egunean, Munibe plazan egin dutena. Azken ekitaldi hauetako "esperientzia positiboak" bultzatu du taldea hilaren 29ko erakustaldia egitera. Egun, lau kide dira adin guztietako talde honen arduradunak: Amaia Agirre, Irantzu Lizarralde, Ibane Baseta eta Maite Lazkano.

> **"Edonork ondo pasatzeko moduko dantzaldia izango da"**
> **Maite Lazkano** > Moises Aspiazu dantza taldeko arduradunetako bat

DENETARIKO DANTZAK

Datorren egubakoitzean denetariko dantzak ikusi ahalko dira, bertakoak zein atzerrikoak. Besteak beste: dantza soltea, denetariko taldekako dantzak, vals-aren eta fandangoaren nahasketa, polka –Bohemian jaiotako (Txekiar Errepublika) dantza herrikoia–...

Emanaldi berezia izango da, eta Oreretako Beti Prest taldeak ere hartuko du parte. Dantza taldeak jendea erakustaldia ikustera animatu nahi du; Lazkanok dioenez, "dantza erakustaldia edonork ondo pasatzeko modukoa izango da".

Urteko azken irteera egin zuten beteranoek

Pol-Pol mendi elkarteko beteranoek joan den domekan egin zuten urteko azken irteera. Egun osoko ibilaldia izan zen, Nafarroako mendietan; hain zuzen, Eskaz, Bianditz eta Lesaka inguruan. Azken irteera horretara 56 lagun elkartu ziren, eta eguraldi kaxkarra izan bazuten ere ederto pasa zuten. Amaieran, Lesakako Lindurrenborda sagardotegian bazkaldu zuten.



JUAN MARI SASIGAIN





Etxebizitza

Egubakoitza / 2008ko azaroaren 21a / **Arduraduna:** Leire Kortabarria



ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
•
DEKORAZIOA
•
DEBAGOIENEKO ETXEBIZITZA BERRIAK
•
ALOKAIRUA
•
ETXETRESNAK

AZALA: IÑAKI ITURBE

edertu

masterreka 9-11 Tel.: 943 76 58 79
barrenkale 23 Tel. /faxa: 943 76 29 65
BERGARA





SVMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

OMU
KERAMIKAK

zeramika
•
bainuak
•
eraikuntzarako
materiala



BILTEGIA/BULEGOAK
Meatzerreka 6 •Arrasate
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43

ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
943 79 07 20

ARETXABALETA ERDI-ERDIAN

Cerrajera Valle de Leniz bizitegia

ORTUIBAR S.L.
Ibargarai 18, behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 11 18


ORTUZAL S.L.
Errekabarren 20, behea
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 40 00



Elevalift

IRIBAR 2 - C-36 pabilioia
P.A.E. NEINOR
20018 DONOSTIA
Tel.: 943 21 48 08

www.elevalift.com



• Elbarrientzako sarrerarako eskailera-igogailuak eta plataforma bertikal eta inklinatuen instalazioa

• Eraikin zaharretan igogailuen instalazioa

• Traba arkitektonikoen ezabatzea

• Gremioen koordinazioa

• Dirulaguntzen gestioa eta aholkularitza



BERGARA

San Lorentzo

ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO

APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraikitzailea

INGESLAN CONSTRUCCIONES

Sustatzailea

GRUPO Ormak

Argibide eta salmenta

943 42 44 30

www.ormak.es

Apartamentuak

152.000 €-tik aurrera

25.300.000 pta



Edorta Mendieta, Lore Martinez eta Andres Lezeta EAko kideak, martitzenean. M.A.



Joxe Anjel Antxia, Inaxio Garro eta Araceli Herran Aralarko kideekin. M.A.

UDALA > UDAL GOBERNUAREN KRISIA

EAk gobernua utzi du, proiektu batzuekiko desadostasunagatik

Hainbat proiektutan ez dela adostasunik lortu dio Eusko Alkartasunak

Zinegotzien artean harreman ona izanik, interes pertsonalak ikusi ditu Aralarrek

Hausnarketa egingo du Aralarrek, zelan egin aurrera erabakitzeko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Ezohiko batzarra egin zuen astelehenean Eusko Alkartasunak, eta Aralarrekin osatu duen Udal Gobernua uztea erabaki zuen. Hala, urte eta erdiko harremana apurtuta geratu da.

Apurketa ez dela haserrealdi baten erruz izan azaldu zuen Aretxabaletako EAko buru eta zinegotzi Edorta Mendietak: "Otsailetik genbiltzan esaten alkateari gobernuaren jardunarekin ez geundela pozik, ez genuela aurrerapausorik ikusten". Desadostasunik handienak hiru arlotan izan dituzte: Udal Gobernuaren kudeaketan eta herritarren partaidetza eskatzerakoan; Plan Orokorraren garapenean; eta Basabe industrialdearen berregituraketan. Hainbat batzar egin dituztela onartu zuen Mendietak, baina adostasunik lortu ez: "Aralarrek inposiziotzat hartu ditu proposamenak eta beti freno lanak egiten ibili da".

Astelehenean bertan eman zioten alkateari hartutako erabakiaren berri, eta euren laguntza izango zuela esan zioten, betiere oposiziotik.

ARALARREK EZUSTEKOA

"Ezusteko galantarekin eta penarekin" hartu dute Aralarko kideek EAkoen erabakia. Zinegotziekin beti izan dutela harreman ona argitu zuen Inaxio Garro alkateak, bai lanean, bai modu pertsonalean; hortaz, goiko mailan hartutakoa dirudiela esan zuen:"Partiduko interesak edo, gehiago, interes pertsonalak tarteko". Emandako arrazoiek aitzakia itxura dutela gaineratu zuen, eta samurrena egin dutela: "Herritarren beharrei erantzuteko ardurei eta eguneroko lanari muzin egin". Erabakia ulertu ez arren, errespetatzen dutela gaineratu zuen.

Alkateak onartu zuen Udal Gobernua egoera zailean geratu dela, "baina erantzukizun, konpromiso eta inplikazioa biderkatuz" egingo dutela aurrera. Hausnarketa sakona egin behar dute orain, zelan egin aurrera erabakitzeko, eta elkarlanerako eskua luzatu diete EAko ordezkariez gain, legez kanpo utzitako hautetsiei eta Ezker Batua, EAJ eta PSE-EEko udal ordezkariei.

Edorta Mendieta > EAko presidentea eta zinegotzia

"Alkateak delegatzen ez dakielako daude hainbat proiektu geldi"

Bi alderdien arteko desadostasunik handienak zeintzuk izan diren argitu zuen Edorta Mendietak.

> UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA

Erabakitze ahalmen handiagoa behar dute zinegotziek. Alkateak bere gain hartzen ditu ardura guztiak eta eguneroko lanak jan egiten du; horregatik, proiektu garrantzitsuak geldi egon dira hilabetetan; esaterako, Plan Orokorra. Orain, Mugikortasun Plana dago geldi.

> HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Herritarren benetako partaidetza bultzatu behar da, eta ez noiz-behinkako kasuetan. Udaletxean integratu behar dira herritarrak komisio sektorialen bitartez.

> PLAN OROKORRA GARATZEA

Plan Orokorrak baldintzatzen ditu mahai gainean dauden kontu asko: osasun etxea, Basotxo, Kurtzebarri eskola... Aurkako irizpideak ditugu erabakitze orduan, eta adostasunik ezin izan dugu lortu.

> BASABE INDUSTRIALDEKO BERREGITURATZEA

Basabe industrialdea enpresa parke bihurtu behar da, ez delako jasangarria etxeak eta industria batera egotea.

> 2-B SEKTOREA

Deba ibaiaren beste aldean sortuko den auzoa herrian integratu behar da, eta horretarako hainbat ekipamendu behar dira bertan: Basotxo, merkataritza-etxea... Eta herriarekin lotzeko modua topatu.

Inaxio Garro > Alkatea

"Nahi dutena nahi duten eran egitea ez da autonomia, anarkia baizik"

Aralarrek aitzakia itxura hartu die emandako arrazoiei: "Bestela, zelan ulertu hartutako erabakia, indar soberanistei elkarlana aldarrikatzen dabilenean EA Euskal Herrirako?".

> UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA

Hirigintzako Plan Orokorraren aurrean erabateko autonomia exijitzen du EAk, hainbat proiektu eta irizpide markatzeko; gainerako alderdiek iritzirik ez balute moduan. Exijentzia horiek utziezinak dira eurendako, eta koakzio ahaleginei ezezkoa eman diegu. Nahi dutena nahi duten eran egitea ez da autonomia, anarkia baizik.

Orain Aralar bakarrik geratuko da hiru zinegotzirekin eta zelan egin aurrera erabaki behar dugu; hori bai, inoiz baino gogotsuago.

> HERRITARREN PARTAIDETZA

Udalak bultzatutako parte-hartze prozesuak –Plan Orokorra, Iraeban eta Irurikoa baserrien erabilera, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia– Aralarrek bultzatu ditu. Parte-hartzeak bultzatuko ditugu gaien eta beharren arabera.

> BASABE INDUSTRIALDEKO BERREGITURATZEA

Industrialdea eraberritu eta parke teknologiko bihurtzeko beharraren komenientziaz jabetuta gaude.

> PLAN OROKORRA GARATZEA

Plan Orokorraren atal gehienetan bat gatoz bi alderdiok, proiektu gutxi batzuk bakarrik dira desadostasunak sortu dituztenak. Eta ez dira saiatu ere egin aurrez aurre elkartu eta adostasunak lortzen.

ELKARTASUNA

Hainbat ekimen presoen alde

Elkarretaratzea eta mendi buelta daude, Presoen Aldeko Taldeak antolatuta

M.A. > ARETXABALETA

Aretxabaletako Presoen Aldeko Taldeak hainbat ekintza antolatu ditu hilabetea bukatu bitartean egiteko.

Azaroaren 28an, hilabeteko azken egubakoitzean egin ohi duten legez, elkarretaratzea egingo dute Durana eta Mitarte kaleek bat egiten duten tokian (19:00). Eta hurrengo egunean, azaroak 29, presoen aldeko martxa antolatu dute auzoz auzo. Urbaltz elkartetik irten (09:00) eta ibilbide hau egingo dute: Oro, Bedoña, Larrino, Areantza –Mitarte Garai baserria–, Bolinaga eta Aretxabaleta. Urbaltz elkartean brindisa egingo dute (14:00) eta ostean Larrinoko elkartera joango dira babarrunak jatera (14:30). Izena aurrez ematea komeni da.

> GOITB

Inaxio Garro alkatea izango da eguenean Goiena Telebistan

Inaxio Garro alkatea elkarrizketatuko dute GOITBko *Goiena magazinea* saioan eguenean, azaroak 27. Saioa 21:15ean hasiko da, eta *Alkatearekin zuzenean* tartean izango da elkarrizketa, Eneko Azkarate GOIENKARIAko zuzendariak gidatuta.

Ikus-entzuleek ere galderak egin ahal izango dizkiote herriko alkateari. Hona bideak: zuzenean telefonoz deituta 943 25 05 03 zenbakira edo aldez aurretik mezua bidalita posta elektronikoz: *magazinea@goiena.com*.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ETXEBIZITZAK > BABES OFIZIALEKO ETXEEN ZOZKETA

Bi urte barrurako, gertu 100 etxeok

Atzoko zozketan etxea tokatutakoen datuak frogatuko ditu orain Etxebidek, onuradunak baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko; hilabete eta erdi barru deituko diete kontratuak sinatzeko



Aurpegi serioak ikusi ziren zozketa egin bitartean Arkupen, eta poz adierazpen gutxi, etxea tokatu arren. ARANTZAZU EZKIBEL

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Poz adierazpenak ondo gorde zituzten etxea tokatutakoek atzo egindako babes ofizialeko etxebizitzen zozketan. Seriotasuna izan zen nagusi beteta zegoen Arkupeko aretoan. Inaxio Garro alkateak eta Javier Madrazo sailburuak bideratu zuten ekitaldia.

172 izeneko zerrenda zuten, eta 100 etxe banatzeko. Madrazo sailburuak esan zuen guztiendako gurako lituzketela etxeok, eta horretan jarraituko dutela lanean. Lau zerrendatan banatuta zeuden izenak: ezinduena –lau etxe eta bi eskaera–; Etxebiden izena emanda 4 urtetik gora daramatenena–bederatzi etxe eta 38 eskaera–; 25 eta 35 urte artekoena –52 etxe eta 82 eskaera– eta gainerako guztiena, orokorra –35 etxe eta 50 eskaera. Ezinduendako lau etxebizitza daude gordeta, baina bi izen bakarrik dituzte; horregatik, zerrendan ez dauden beste ezindu batzuei eskainiko dizkiete hutsik geratutako biak.

172 lagun horietatik batzuek zenbaki bat baino gehiago zuten zozketa egiterako orduan: umedun guraso bakarrek eta bikoteek, bi zenbaki; eta umedun bikoteek, hiru zenbaki. Hala, izen batzuk behin baino gehiagotan errepikatu zituzten –hala agertzen da Etxebidek bidalitako zerrendan– baina behin bakarrik hartuko dituzte kontuan.

Errepikatuak ezabatzerakoan, berriz, hutsik geratu diren lekuetan itxaron zerrendakoak sartuko dituzte; hori bai, behin betiko zerrenda ateratzen dutenean.

ETXEEN BANAKETA

Behin zozketa eginda, etxea tokatu zaienen datuak frogatuko ditu Etxebidek, onuradunak baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Horren ondoren eskutitza jasoko dute etxea tokatutakoek, zein zenbakidun etxea dagokien esateko. Etxeok modu pertsonalizatuan esleituko dituela iragarri du Etxebidek; hau da, batetik familia eta bestetik logela kopurua kontuan hartuta. Hilabete eta erdi barru, kontratua sinatzeko deituko diete.

BI URTE ETXEAK EGITEKO

Etxeok Bruesa enpresa eraikitzaileak egingo ditu Deba ibaiaren beste aldean; hain zuzen, etxebizitza tasatuak egiten dabilen alboan. 53, 65 eta 70 metro koadro artean izango dituzte, eta guztiek izango dute trastelekua eta garajea. Prezioak tamainaren araberakoak dira: txikienek, 100.047 euro, eta handienek, 126.457 euro (BEZ sartu barik). Bi urte beharko dituela eraikitzeko aurreikusi du Bruesak.

Etxea tokatutakoen behin-behineko zerrenda

EZINDUEN MULTZOA

Raquel Tijero Arenillas
Juana Mendizabal Beitia

4 URTE BAINO GEHIAGOKOEN MULTZOA

Eloina Arribas Manuel
Virginia Elortondo Zubizarreta
Monica Frutos Romero
Jorge Pando Valle
Santiago Zamora Carrancio
Miren Alexia Uribarren Liebana
Almudena Murillo Martin
Andoni Arkauz Lazkano

25 ETA 35 URTE ARTEKOEN MULTZOA

Oihana Barrutia Agirre
Iker Urrutia Arantzeta
Pablo Blanco Rodriguez
Ibon Zubizarreta Basabe
Ainhoa Barandiaran Iñurrategi
Beñat Salaberria Osa
Edurne Arkauz Lazkano
David Mateo Rodera
Jon Otxoa Lazkano
Gorka Gabilondo Jauregi
Jon Urteaga Viamonte
Harriet Garitaonaindia Mujika
Jon Revuelta Iglesias

Garikoitz Barbero Olivares
Eder Cebrino Gonzalez
Ekaitz Iturbe Aldai
Leire Gomez de Segura Aiastui
Jose Angel Manuel Bengoa
Mikel Arregi Arrese
Jokin Elortondo Santa Teresa
Irati Pagoaga Zaloña
Ricardo Velasco Sanz
Amaia Murgiondo Elizburu
Abd Akass
Raul Gonzalez Pavon
Edurne Martinez Calvo
Amaia Otxoa Lazkano
Elisabeth Trojaola Zubizarreta
Beatriz Gutierrez Moruno
Saioa Manuel Bengoa
Olatz Pagaldai Elkorobarrutia
Zigor Quintanilla Elkorobarrutia
Irati Gorostiza Garai
Ricardo Velasco Sanz
Mikel Unamuno Garai

Ekaitz Oianguren Igartua
Ali Tahtah
Laura Perez Martinez de la Hidalga
Larraitz Arando Ilarduia
Eguzkine Erostarbe Urkia
Javier Bautista Juanes
Nerea Uralde Muguruza
Laura Belen Barjacoba Perez
Maider Aldabe Llodio
Akaitz Garai Zapata
Asier Leturiaga Elkorobarrutia
Raul Alvarez Heredero
Josu Iriarte Arenaza
David Torres Rodriguez
Ane Karmele Izurrategi Gomez
Esther Almendro Rodriguez
Elisabeth Alma Abasolo Urquijo

MULTZO OROKORRA

Ane Miren Uribe Alzola
Said Serokh Folos
David Quintas Zaldua

Ignacio Richan Romano Castro
Maria Jesus Fernandez Gonzalez
Jose Luis Eraña Arribas
Amaia Gorostiza Garai
Maria Pilar Dominguez Gonzalez
Odei Oion Perez
Maria Cruz Duran Talavera
Ruben Gomez Calvo
Loraia Ortiz Andueza
Sonia Garcia Agundez
Rosmira Ossa Pelaez
David Quintas Zaldua
Unai Gotzon Iruzubieta Bengoa
Iñigo Uribesalgo Zurbano
Maria Pilar Dominguez Gonzalez
Jose Luis Eraña Arribas
Naiara Olea Delgado
Ibai Gonzalez de Durana Uribesalgo
Maria Isabel Magallanes Vazquez
Goizane Elejalde Etxeberria
Haritz Igartua Mendieta
Roberto Bragado Laperal
Miren Arantzazu Izurrategi Idigoras
Crescencio Martin Sanchez
Ascension Vales Miranda
Ruben Lozano Escalonilla
Diego Davila Galan

ELKARTASUNA > AL-ANON

Aretxabaletako Al-Anon taldeak 18 urte bete ditu oraingo hilean

Alkoholikoen lagun eta senideek osatzen duten taldea da, eta alkoholarekin arazoak dituztenen senideei itxaropena eta bakea eroatea du helburu



Al-Anoneko kideek anonimotasuna gordetzen dute beti. M.A.

M.A. > ARETXABALETA

Alkoholikoen lagun eta senideei laguntzea helburu duen taldea da Al-Anon. Gipuzkoan 17 daude, horietatik hiru Debagoienean: Bergaran, Arrasaten eta herrian. 1990ean sortu zuten Aretxabaletakoa, sasoi hartan Eskoriatzan zegoen taldera aretxabaletar asko joaten zirelako, eta hil honetan bertan bete dituzte 18 urte. Orduko jendetzarik –14 lagun inguru– ez da elkartzen orain, baina taldeak lanean jarraitzen du, eta alkoholarekin arazoak dituztenen senideei laguntzeko gertu daude. Astelehenetan elkartzen dira (20:00) Iralabarri plazako lokal baten.

ITXAROPENA ETA BAKEA

Alkoholiko batekin bizi direnek itxaropena eta bakea lortzea du helburu Al-Anonek. Horregatik elkartzen dira taldean: bizipenak kontatzeko, elkarri indarra emateko eta badagoela itxaropena jakinarazteko. Taldeek ez dute gidaririk, ezta aholkulari profesionalik ere; eurendako gertatutako literatura erabiltzen dute, bizipenetan oinarritutakoa.

Gipuzkoako hainbat herritako kideak izan dira gurean urteurrenaren kontura, eta Al-Anonen sartu ostean bizitza zelan aldatu zitzaien azaldu digute. Alkoholismoa gaixotasun gogorra dela jakinarazi dute eta etxe barruan sufritzen dena "inor konturatu ez dadin". Gainera, ingurukoak ere berarekin eroaten dituela zulora diote: "Alkoholismoa gaixotasuna dela ulertzea ez da batere samurra. Taldean sartu nintzenean ulertu nuen, eta gero onartu. Orduan hasi nintzen nire ikuspegia eta jokaera aldatzen. Taldean egiten dugun lana bizitzarako filosofia dela esango nuke", dio kide batek.

ANONIMOTASUNEAN LAN EGIN

Al-Anoneko kideek anonimotasunean egiten dute lan, baina ez dute ezer ezkutatzeko: ez da sekta, ez dago erlijiorik, ez dute gidaririk, eta ez dago bazkidetzarik. Gura dutenean parte har dezakete taldean eta gura dutenean utzi. Gainera, ez dauka inolako loturarik Alkoholiko Anonimoen taldearekin. Nork bere bideari jarraitzen dio, eta alkoholarekin arazoak dituena ez da derrigor Alkoholiko Anonimoen taldean egon behar senidea Al-Anonen sartzeko. Gipuzkoko egoitza Donostian dago, eta argibide gehiago gura izanez gero, hona Gipuzkoako arduradunen zenbakia: 650 26 59 63. Webgunea ere badu: *www.al-anonespana.org*.

MUSIKA > ABESBATZEN LEHIAKETA

Ganbara Abesbatza, bigarren aldiz Avileseko txapelketan

Bost kanta abestuko dituzte biharko saioan oñatiarrek; epaimahaiaren erabakia hilaren 29ko saioaren ondoren jakinaraziko dute antolatzaileek



Ganbara Abesbatzako kideak Tolosako lehiaketan. GANBARA ABESBATZA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ganbara Abesbatzak Avileseko (Asturias) abesbatzen lehiaketako bigarren saioan parte hartuko du (aurreko aste bukaeran egin zuten lehen saioa). Hain zuzen ere, bihar egingo dute emanaldia. Eurekin batera abestuko dute Valladolideko Asociacion Coral Harmoniak; Badajozeko Coral Gran Maestrek; eta Granadako Coral Instituto Padre Manjonek. Esteban Urtzelaik zuzentzen duen abesbatzak bost kanta abestuko ditu: derrigorrezkoa den *Cantos asturianos de La Regenta*; Iparraldeko *Soule*; *O magnun mysterium*; eta Roberto Varela kubatarraren *Quisiera*. Era berean, antolatzaileek aukeran jarri duten *Nos amamos sin fronteras* abestuko dute. Guztira, 15-20 minutuko saioa egingo dute. Ganbara Abesbatzak dituen asmoen berri eman digu Esteban Urtzelai zuzendariak: "2000. urtean parte hartu genuen lehen aldiz, eta bigarren tokian sailkatu ginen. Orduan, lehiaketa irabazteko penarekin geratu ginen. Hortaz, gure helburua da lehiaketa irabaztea".

Lehiaketako azken saioa hurrengo aste bukaeran egingo dute. Hain zuzen ere, Iruñeko Barañain Abesbatzak; Lazkaoko Kantaka Abesbatzak; Avileseko Coral Contracantok, eta Luancoko Coral El Leon de Orok abestuko dute.

Antolatzaileek sari banaketa egingo dute hilaren 29ko saioa bukatu ondoren. Irabazleek 4.000 euro, garaikurra eta plaka jasoko dituzte.

ORFEOI TXIKIA, OÑATIN

Ganbara Txikik antolatutako abesbatza zikloaren barruan, Orfeoi Txikiak emanaldia egingo du bihar, Santa Ana antzokian, 19:00etan. 1988. urtean sortutako abesbatzaren zuzendariak Esteba Urtzelai oñatiarra eta Isabel Mantecon dira.

> DEIALDIA

Bizikleta irteera egingo dute gaur Txirrinkakoek

Txirrinka taldeak irteera berri bat egingo du gaur, 18:30ean. Hain zuzen ere, plazatik irtenda herriko kaleetan ibiliko dira, berriro plazan bukatzeko. Aurrerantzean hil bakoitzeko hirugarren egubakoitzean egingo dituzte irteerak.Udalak esku artean duen bidegorri sarea bultzatuko dute Txirrinkakoek.

> OSPAKIZUNA

Trikitilariek erromeria egingo dute Lizargaraten

Azaroaren 2an egin zuten lehen erromeria; baina, aspaldiko ohitura berreskuratu asmoz, Oñatiko trikitilari taldeak erromeria egingo du. Hain justu ere, hil bakoitzeko lehen domekan egingo dute erromeria, Lizargaraten, 11:00etan. Trikitilariak txandakatu egingo dira.

> KONTZERTUA

Eibarko Sostoa eta Oñati Abesbatza, agustindarren elizan

Santa Zezilia eguna ospatzeko, Oñati Abesbatzak eta Eibarko Sostoa Abesbatzak kontzertua egingo dute bihar, agustindarren elizan meza bukatu ondoren; hain justu ere, 20:15ean. Abesbatza bakoitzak bakarkako saioa egin ondoren elkarrekin abestuko dute.

KIROLA > DEIALDIA

Step eta spinning saioak eta denboraldi amaierako afaria, Markelen Lagunartearekin

Ekintza guztiak hilaren 29an egingo dituzte, denboraldia agurtzeko

M.B. > OÑATI

Urtero legez, txirrindularitza denboraldia agurtzeko Markelen Lagunarteak hainbat ekintza egingo ditu hurrengo aste bukaeran. Hain zuzen ere, step eta spinning saioak eta afaria egingo dituzte. Biak ala biak, hilaren 29an egingo dituzte.

EUSKALTELEKO ZIKLISTAK

Euskaltel Euskadiko hainbat txirrindularik parte hartuko dute spinning saioan: besteak beste, Iban Velasco, Aitor Galdos eta Amets Txurrukak. Gainera, stepa eta aerobika egiteko aukera izango dute parte hartzen duten guztiek. Horren harira, kirol saioa Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan egingo dute, hilaren 29an, 16:00etatik 19:00etara arte. Eskolak bukatu ondoren opariak zozketatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

Gauean, denboraldi bukaerako afaria egingo dute Zotz jatetxean, 21:00etan. Afarian parte hartu gura dutenek Oñati edo Izarraitz tabernetan eman dezakete izena hilaren 26a baino lehen. Izena ematerakoan 20 euro aurreratu beharko dute berme modura.



MIREIA BIKUÑA

Gaztelekuko sotoa zabaldu dute dagoeneko

Lanak erabat bukatu barik dituzten arren (komunak eta eskulanak egiteko gela falta dira), aurreko aste bukaeran zabaldu zuten gaztelekuko sotoa; eta egin zuen eguraldi kaskarrak lagunduta, herritar ugari bildu zen han seme-alabekin. Koltxonetak, mahaiak eta eserlekuak, jostailuak, DVDa eta gurasoendako kafe makina jarri dituzte, besteak beste. Sotoa aste bukaeratan zabalduko dute, 10:30etik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

INGURUMENA > ERAIKUNTZA JASANGARRIA

Bioeraikuntzak zertan datzan jakiteko azoka jarriko dute asteburuan

Zapatuan eta domekan energia eta eraikuntza jasangarrien gainean ikasteko aukera dago

Aragoiko Arkitektoen Elkargo Ofizialak utzitako informazio panelak jarriko dituzte

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, bioeraikuntzaren gaineko azoka jarriko dute pilotalekuan. Zapatuan goizez eta arratsaldez egongo da zabalik; eta domekan, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

Azoka horrekin bukaera emango diote Udalak antolatutako ingurumenaren gaineko zikloari. Horren harira, asteotan Margarita Martinek eta Pedro Arrojok egindako berbaldiek harrera ona izan dute; eta erreka garbitzeko ekimena atzeratu egin dute, errekak ur asko daramalako.

Horrez gain, atzo, eguena, ludotekan uraren gaineko jolasak egiteko asmoa zuten; eta etzi, domeka, *Uraren ametsa* filmdokumentala emango dute gaztelekuan. Ekimen horiek egin ahal izan dituzte, Udaleko Gazteria Sailarekin lankidetzan.

BIOMASAKO GALDARAK

Hiriburuetan gero eta gehiago entzuten badira ere, orain arte Debagoienean ezohikoa izan da bioeraikuntza edo eraikuntza jasangarriaren gaineko azokak egitea. Kontuak kontu, Udalak 11 enpresa eramango ditu asteburuan pilotalekura.

Markinako Primateria eta Altsasuko Biohaus enpresek, esaterako, eraikuntzako materiala eramango dute azokara; Arcilandek, berriz, egurrezko eraikuntzak lantzen ditu. Baina, alor asko ukituko dituzte gonbidatutako enpresek: hala, Energial, Arrasateko Solartecnik eta Aguraingo Kapelbik, besteak beste, biomasako galdarak martxan jarriko dituzte azokan.

BESTELAKO ENERGIAK

Eguzki plakak ere ez dira faltako, jakina. Horietaz gehiago jakiteko, nahikoa izango da Bergarako Alet edota Gasteizko Taer Solar enpresen standetara hurbiltzea.

Bestalde, Ermuako SEA (Soluciones Energeticas Alternativas) enpresak energia alternatiboak lantzen ditu; eta geotermia zer den eta horretaz baliatuta zer egin daitekeen ere jakin ahal izango da Zornotzako Hilson Nascimiento enpresarekin: lurraren berotasuna baliatzen dute etxea berotzeko.

Gainera, Arrasateko Ekobai enpresak ere esku hartuko du. Ekobaikoek material informatikoa birziklatu egiten dute.

TALOAK, AMUSKAKOEN ESKUTIK

Antolatzaileen esanetan, azoka tamaina ertainekoa izango da, eta hala, aukera emango du stand bakoitzeko produktuak ondo ikusi eta ulertzeko, "guztiok asko dugu-eta ikasteko". Are gehiago, Udaleko ordezkariek azaldu dute "gure eskutan ere gauza asko daudela egiteko, etxea berritzerako orduan edota etxean beste-lako gailuak jartzerakoan".

Erosteko eta ikusteko produktu ugari izateaz gain, Aragoiko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Udalari utzitako panelak ere ikusgai egongo dira; bioeraikuntzaren gainekoak izango dira.

Eta, azokari bestelako ukitua emateko, Amuska emakumeen elkartekoek taloak egingo dituzte domeka goizean.

DATUA

11

ENPRESA ESPEZIALIZATU

Bioeraikuntza, energia alternatiboak eta birziklapenarekin lotuta lan egiten duten Euskal Herriko hamaika enpresa izango dira bihartik, zapatua, domekara bitartean Eskoriatzako frontoian.



Taberna eta saltokietako kartoia botatzeko egun zehatzak daude. UDALA



Edukiontzietan sartzen ez diren objektu handiak eguenetan bota behar dira. UDALA

ZERBITZUAK > ZABOR BILKETA

Zaborra behar den lekuetan eta egunetan uzteko ohartarazi die Udalak herritarrei

Saltoki eta tabernetako arduradunek kartoia astelehen, eguazten eta egubakoitz iluntzetan atera beharko dute edukiontzien albora

I.B. > ESKORIATZA

Udaleko Obra eta Zerbitzuetako arduradunak oso haserre daude hainbat herritarrek zaborra ateratzeko daukaten ohiturekin. Batez ere, duten kezka zabor bereziei dagokie: saltoki eta tabernetako kartoiei eta objektu handiei, hain zuzen ere.

Obra eta Zerbitzuetako arduradunek jakinarazi dute aspalditik ikusten dabiltzala herriko hainbat saltoki eta tabernetako arduradunek kartoia edozein egunetan eta edozein modutan uzten dutela edukiontzien kanpoan.

Horren aurrean, Udalak jakinarazi die ezin dutela kartoia edozein modutan utzi; tolestuta edo pilatuta egon behar duela. Horrez gain, gogoratu dute kartoi handiak ibiltzen dituztenek egun zehatzak dituztela horretarako: astelehen, eguazten eta egubakoitz iluntzean (21:00etatik aurrera) bota behar dituztela, hain zuzen ere. Hala, kartoiak martitzen, eguen eta zapatu goizetan jasotzen dituzte.

Udal arduradunek herritarrei eskatzen diete egutegi eta ordutegi horiek betetzeko, edukiontzi inguruetan askotan zabor ugari pilatzen delako.

OBJEKTU HANDIAK, EGUENETAN

Bestalde, Obra eta Zerbitzuetako arduradunek antzeko kexa dute beste zabor mota batekin; hala, ohiko edukiontzietan bota ezin daitezkeen objektu handiekin. Horren barruan sartzen dira, ordenagailuak, altzariak eta beste gauza asko.

Udal ordezkarien esanetan, hainbat herritarrek edozein egunetan uzten dituzte edukiontzien alboan eta horiek ere "itxura txarra ematen dute". Horren aurrean, oso arduratuta daude, eta herritarrei gogoratu diete objektu handi horiek botatzeko eguna eguena dela. Are gehiago, interesatuek eguen iluntzean atera beharko dituzte kalera.

> KIROLA

Areto-futbol eta saskibaloi bina partidu zapatuan

Bihar, zapatua, kiroletako hainbat norgehiagoka egongo dira Intxaurtxuetako kiroldegian.

11:00etan, gazte mailako areto-futbol taldea eta Azpeitiko A.F. lehiatuko dira. Bazkal ostean, berriz, 16:00etan, saskibaloiko kadete eta junior taldeek Bera Bera Groseko bina talde izango dituzte aurkari. Horiek gutxi balira, 16:00etan, ohorezko ligako areto-futbol taldea Aguraingo Oriamendirekin lehiatuko da Eskoriatzan.

> IKUSKIZUNA

Ipuin kontaketak egingo dituzte datorren astean

Datorren astean bi ipuin kontaketa izango dira Eskoriatzan. Batetik, eguenean, hilaren 27an, luzaroan Oihulari Klown taldean ibilitako Rai Buenok ipuinak kontatuko ditu Udal Bibliotekan, 18:00etan. 6 urtetik gorakoendako izango dira ipuinak.

Horrez gain, hilaren 28an, egubakoitza, Carles Garcia Domingok *Historias de la Ribera del Ebro* ipuin kontaketa egingo du Huheziko aretoan, 22:30ean. Bigarren ekitaldi hori gurasoei zuzenduta egongo da.

Ipuin kontaketa biak Eskoriatzako Udalak antolatu ditu, eta ez da sarrerarik ordaindu behar.



Etxean bizi diren adindunek zaharren egoitzetan egonaldiak egin ditzakete. Argazkian, Eskoriatzako egoiliar batzuk. GOIENKARIA

GIZARTE ZERBITZUAK > HIRUGARREN ADINA

Zaharren egoitzetan, aldi baterako egonaldiak

Adindunak Gipuzkoako egoitzetan hartuko ditu 15 egunez Aldundiak; herritarrek Udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin dezakete horren eskaera

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Gabon inguruan ohikoa den moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuek adindunei zuzendutako eskaintza berezia egin dute: aldi baterako egonaldiak zaharren egoitzetan.

ATSEDEN HAR DEZATEN

Programa horren helburua da edadetuak zaintzen dituzten familiei zelanbaiteko laguntza ematea. Hala, hamabost bat egunetan aukera ematen diete adineko senide edo laguna Gipuzkoako zaharren egoitza baten hartzeko.

Interesatuek Udaleko Gizarte Zerbitzura jo beharko dute lehenbailehen. Udalek Aldundira bidaliko dituzte eskaerak eta horrek jakitera emango ditu aukeratutakoak.

BERRIEK LEHENTASUNA

Udaleko Gizarte Zerbitzuko arduradunek jakinarazi dute 2008an bestelako egonaldirik egin ez dutenek lehentasuna izango dutela; eta gainontzekoak hartuko dituztela leku libreak geratzen badira.

Aukera izango da abenduaren 1etik 15era edota hilaren 16tik 31ra arte egonaldiak egiteko. Eskoriatzako egoitzan ez, baina Gipuzkoako hainbaten hartuko dituzte. Eskatzaileek lehentasunak jarri ahal izango dituzte, baina Aldundiak aukeratuko du.

LEHIAKETA > ORRI-PUNTUAK

Liburutegirako orri-puntu bila

Udal Bibliotekarako orri-puntua aukeratzeko lehiaketa abiarazi du Udalak; edozeinek har dezake parte

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Bibliotekak, inguruko beste hainbat liburutegik moduan, urtero orri-puntuak egiten ditu, erabiltzaileen artean banatzeko.

Joan den urtean, lehenengo aldiz, orri-puntuak aukeratzeko lehiaketa egin zuten, eta ekimenak oso harrera ona izan zuen. Hain zuzen ere, 45 bat lan jaso zituzten, ibarrekoak eta baita kanpokoak ere. Aukeratutako irudia Iñigo Urrutia eskoriatzarrak egin zuen, eta irudi horrekin 1.000 orri-puntu egin zituzten banatzeko.

Hala, Udalak eta Bibliotekako arduradunek ekimena errepikatzea erabaki dute. Edozeinek esku hartu ahal izango du, berdin da eskoriatzarra den ala ez; eta teknika eta gaia libreak izango dira. Hori bai, lanaren neurria 21 x 5,50 zentimetrokoa izan beharko da.

IRABAZLEARENDAKO 300 EURO

Orri-puntuak egilearen izen barik aurkeztu beharko dira, atzeko aldean lelo bat dutela; horrekin batera, gutunazal itxi batean lelo bera eta egilearen datuak jarri beharko dira.

Irabazleak 300 euro jasoko ditu, eta lanak aurkezteko azkeneko eguna abenduaren 15a izango da.

Hortaz, 2009ko orri-puntuek irudi berria izango dute alde batean; eta bibliotekaren egutegia eta harremanetan jartzeko telefonoa eta e-posta helbidea bestean. 1.200 ale kaleratzeko asmoa daukate.



Argazkian, 2008an bibliotekak erabilitako orri-puntua. IKER BARANDIARAN

AISIALDIA > GAZTAINA ERRE EGUNA

Gaztain eta txokolate-jana prestatuko dituzte gaur

I.B. > ESKORIATZA

Aurreko urteetako ohiturari jarraituta, Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkarteak Gaztaina Erre eguna ospatuko du gaur, egubakoitza, eta herritar guztiei egin diete gonbidapena.

17:00etatik hasita, ume eta gaztetxoendako jokoak izango dira pilotalekuan. Bertan pegatinak egingo dituzte, zaku lasterketak ere bai, sokatiran arituko dira eta hanka-paluetan ere ibiliko dira. Hori nekatu artean egingo dute.

30 KILOGRAMO GAZTAINA

Ume eta gaztetxoek jolasten duten bitartean, hainbat guraso txokolatea prestatzen eta gaztainak erretzen arituko dira. Hala, 19:00ak aldera, guztia prest izango dute.

Are gehiago, elkartekoek deialdia egin diete Luis Ezeizako gurasoei egun horretarako bizkotxoak egin ditzaten. Bizkotxo horiek ere bertan eskainiko dizkiete gerturatzen diren ume, guraso zein bestelako herritarrei.

MUSIKA > SANTA ZEZILIA

Bihar, zapatua, Musika Eskolako Bandak Santa Zeziliako kontzertua egingo du

Zapatuan, Santa Zezilia egunean, egingo dute kontzertua San Pedro parrokian 20:00etan; 45 minutuko iraupena izango du emanaldiak

I.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, eskoriatzar askok urtero ahazten ez duten hitzordu bat daukate. Santa Zezilia egunean dela-eta, Musika Eskolako Bandak kontzertu berezia egingo du San Pedro parrokian, 20:00etan.

EMANALDI BEREZIA

Musika Eskolako arduradunek jakitera eman digute eskainiko dituzten piezak. Honako hauek izango dira: Robert Allmenden *China march*, Dizzy Stratforcen *Spiritual moments*, Ennio Morriconen *The mission*, Granadosen *Goyescas*, Trevor Jonsen *The last of the mohicans* eta baita hainbat telesailen soinu bandak batzen dituen *Television showcase*, besteak beste. Gutxi gora-behera 45 bat minutu inguruko emanaldia izango da.

GABONETAN HURRENGOA

Horren ostean, herrian Musika Eskolako Banda ikusi eta entzuteko hurrengo emanaldia Gabonetan izango da. Orduan Musika Eskolako ia talde guztiak batuko dira, eta guztien artean emanaldia egingo dute, bakoitzaren onena erakutsiz.

AZPIEGITURAK > LIBURUTEGI BERRIA

Gabon aurretik zabaldu nahi dute liburutegia Torresoroan

Liburutegi berrian bi ikasgela egongo dira, besteak beste, talde lanak egiteko

Udalak aztertzen dihardu liburutegi berria goizez eta arratsaldez zabaltzea



Eguzki Auzoko liburutegia husten eta Torresoroakoa (argazkian) antolatzen dihardute. IRATI AGIRREAZALDEGI

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Liburutegia Torresoroara aldatuko dutela-eta, Eguzki auzokoa husten hasiak dira. Berria zabaldu bitartean ezingo dira liburuak etxera eraman. "Frontoian obretan dihardute, eta arratsaldeetan, umeek ez dute egoteko tokirik. Hemen kaxa batean ipuinak daude, eta aldizkariak ere, umeekin etortzen diren helduendako", esan digu liburutegiko Lierni Legorburuk. Bien bitartean liburuak kaxetan batetik bestera eramaten eta liburutegi berriko apaletan ipintzen dihardute.

Data zehatzik ipini ez badute ere, Lierni Legorburuk esan digunez, "Gabon aurretxoan Torresoroan egotea da gure nahia".

TXIKIENDAKO GELA ITXIA

Berrikuntzarik handiena liburutegi barruko banaketan izango da. "7 urtera bitarteko umeak itxitako gune batean egongo dira. Gaur egun denak batera egoten dira eta sekulako zarata sortzen da; hortaz, hori ekiditea da asmoa", dio Lierni Legorburuk.

Bi ikasgela egongo dira, talde lanak egin eta gainontzekoei trabarik ez egiteko. Gela hori erabiltzeko giltza eskatu beharko da. Beste toki bat ere egokitu dute modu goxoan irakurtzeko.

Kzgunea ere han egongo da, eta orain liburutegian dagoen ordenagailua ere ipiniko dute.

Liburutegia goizez ere zabaltzea aztertzen dihardu Udalak. Orain arratsaldez bakarrik egoten da zabalik. "Liburutegian irakurtzeko ohiturarik ez du jendeak, batez ere, ordutegiarengatik. Egotera ume txikiak etortzen dira, batik bat, eta lanak egitera, gaztetxoak", dio Lierni Legorburuk.

JENDARTEA > HIESA

Hiesaren Aurkako Egunaren gainean atera diren kartelak, ikusgai asteburuan Olaranen

I.A. > ANTZUOLA

Abenduaren 1ean Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna denez, azken urteetan barrena gai horren inguruko kanpainak egiteko erabili izan dituzten kartelen erakusketa egingo dute Olaran etxean aste bukaeran. Erakusketa ikusteko aukera izango da azaroaren 22an eta 23an 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Ikusgai izango dira Gipuzkoako Hies Kontrako Elkarte Hiritarrak (Acasgi) jaso dituen irudiak eta Antzuolako Udalak erakusketa egiteko aukeratu dituenak.

Karmele Korta Udaleko Gizarte Laguntzaileak azaldu digunez, "erakusketarako askotariko kartelak ekarri ditugu, batik bat, zaharrak. Kartel horietan azaltzen diren mezuak ere askotarikoak dira: batez ere, informazioa duten kartelak daude; itxaropen mezua dutenak..."

Erakusketaren helburua, Kortaren esanetan, da "Hiesaren aurkako eguna beste barik pasatzen ez uztea eta haren zentzua gizarteratzea; eta jendeari hausnarraraztea gai horren gainean".

ARGAZKIAK

Bestalde, datorren aste bukaeran argazki lehiaketako lanen erakusketa ipiniko dute, hori ere Olaranen. Zapatuan eta domekan goizez eta arratsaldez izango da lehiaketara aurkeztutako argazkiak ikusteko aukera. Sariak hilaren 30ean, domekan, banatuko dituzte iluntzean.

> UMEAK

Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa izango da zapatuan

Bihar, zapatua, 4 eta 10 urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Ines Bengoak liburutegian 18:00etan. Kontalariak umeen aurpegi liluratuak ikustea eta haien barre-algarak entzutea du gustuko eta hauengandik gertu kontatuko ditu ipuinak.

Bestalde, datorren egubakoitzean, hilaren 28an, Rosa Martinezen umeendako txotxongilo emanaldia izango da Olaran etxean 17:00etan. *Elefante bitxia* ikuskizuna eskainiko du.

> JENDARTEA

Genero indarkeriaren aurkako agerraldia martitzenean plazan

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da. Horren harira elkarretaratzea egingo dute plazan 19:00etan. Herritar guztiei dei egin die Udalak agerraldian parte hartzeko.

> MUSIKA

Santa Zezilia eguna ospatuko dute abesbatzakoek

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna da. Musikarien zaindaria izanik, herriko abesbatzakoek ospakizuna egingo dute domekan, hilaren 23an. Mezatan abestu eta ondoren, bazkaria egingo dute.

> ERRETIRATUAK

Gaztaina erre jana egingo dute bihar Landatxopen

Landatxope elkartean egingo dute merienda eta gaztaina erre jana zapatu arratsaldean erretiratuek. Bapo jan ostean, opariak zozketatuko dituzte. Bestalde, jakinarazi nahi dute Gabonetako loteria salgai dutela elkartean

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

BASERRIAK > ESKAERAK

Auzoetan ere seinaleak ipintzeko eskatu dute

36ko gerraren inguruko ibilbide historikoa eta kulturala berreskuratzeko eta Asentzioko aisi gunerako hesiak eskatu dituzte, gainera

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Baserritarren batzordeak 2009an hiru proiektu diruz laguntzeko eskatu dio Mendi Nekazaritzari.

Lehenengoa, 109.040 euroko aurrekontuarekin, Intxortaren magalean Espainiako Gerraren inguruko ibilbide historikoa eta kulturala egitea eta eremu horretako landa ingurunea berreskuratzea. Bigarrena, 23.200 euroko aurrekontuarekin, auzoetako bidegurutzetan panelak eta baserrietan seinaleak jartzea. Azkenik, 19.149 euroko aurrekontuarekin, Asentzioko aisi gunearen inguruan bionda ipintzea.

Mendi Nekazaritzak, orain, eskaerak aztertuko ditu eta jakinaraziko du zein proiektu diruz laguntzen duen.

AURTENGO PROIEKTUAK

2008an Mendi Nekazaritzak hiru proiektu diruz laguntzeko konpromisoa hartu zuen Elgetako Udalarekin. Bakarra dago egin da: Barrenengua baserrirako bidea asfaltatzea, hain zuzen ere.

Ipintzeko daude oraindik bazter-babesak Arraoz baserrirako bidean. Lan hori egin behar zuenak aurrekontua handitu egin nahi du, eta udal aparejadorea gaia bideratzeko ahaleginetan dabilela jakinarazi zuten baserritarrek egindako azken batzordean.

Azurtza auzoko ur-horniduraren iaz aurreikusitako proiektuen artean garrantzitsuena eta garestiena. Ez da aurten egingo. Udal aparejadorea lur-sailen jabekin harremanetan dago ur deposituarendako lekurik egokiena lortzeko.



Azurtza auzoan 2009an ipiniko dute ur-hoditeria berria. L.Z.

Batzordean esan zuten, baina, proiektua atzeratu izanak ez duela dirulaguntzaren galera ekarriko, izan ere, lortu da Mendi Nekazaritzatik dirulaguntza hori datorren urtera arte atzeratzea.

EGUARBITZAKO GARBIKETA

Zazpi lagun elkartu ziren, baserritarren batzordeak egindako azken deiari erantzunez, Eguarbitzako basoa auzolanean garbitzera. Lagun gutxi direla uste dute batzordean, eta hurrengo urtean neurriak hartu beharko direla.

> KONTZENTRAZIOA

Eraso sexistak salatzeko bilkura, martitzenean

Hilaren 25a, martitzena, emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako eguna izanik, Udalak kontzentrazioa deitu du 12:00etan herriko plazan. *Emakumeen kontrako indarkeriarik ez* lelopean egingo da bilkura eta biharamunean, hilak 26, gaiarekin lotutako *Te doy mis ojos* filma emango dute Espaloian 21:30ean. M. Asun Ramos hizlaria egongo da.

Udalak, bestalde, bat egin du Emakundek martxan ipini duen *Gizonduz* planarekin. Abenduaren 14ra arte euskal gizonen eskutitza sinatzeko aukera egongo da udaletxean.

> GABONAK

Guraso elkartearen Gabon kantak ikasteko entsegua

Urteroko legez Maala Guraso Elkarteak abenduaren 24an Gabon kantak abestera irteteko asmoa dauka. Aurten, baina, tradizio hori suspertu nahian entseguak egitea erabaki dute kantuak ondo ikasteko.

Gabon kantak ikasteko lehenengo saioa gaur, barikua, egingo dute 18:00etan hasita Herri Eskolan. Guraso elkarteak herriko ikasle, guraso eta interesatu guztiak deitzen ditu ekintza horretan parte hartzera.


Che-ren bidearen gaineko ikus-entzunezkoa emango dute eguenean. L.Z.

AISIA > EMANALDIAK ETA KIROLA

Bidaia baten gaineko ikus-entzunezkoa eta kontzertuak

L.Z. > ELGETA

Bi kontzertu ditu aste bukaera honetarako iragarrita Espaloia Kafe Antzokiak. Esne Beltza taldeak gaur, barikua, egingo du zuzenekoa eta Juan Carlos Perezek domekan. Eguenean, berriz, hilak 27, *Hegoamerika motoan, Che-ren bidetik* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko du Angel Cuerdok, 20:00etan hasita.

BIZIKLETA IRTEERARIK EZ

Egokik domekarako antolatutako bizikleta irteera atzeratu egin dute antolatzaileek. Zortzi urtetik gorako umeei zuzendutako ekintza zen, baina eguraldi iragarpena kontuan hartuta arduradunek erabaki dute lokatz gehiegi egongo dela egun horretan umeendako. Atzeratu egiten da, beraz.

4 t'erdiko pilota txapelketa

Abenduaren 26an jokatuko diren finaletarako txartelak, oraindik eskura

Herri mailako eskuz binakako pilota txapelketa aurrera doa. Fin ari dira parte-hartzaileak aurten lehenengo aldiz antolatutako bi mailetan. Abenduaren 26an jokatuko dira edizio honetako finalak. Ordura arte partidu batzuk geldi-tzen dira oraindik. Aste bukaeran beste jardunaldi bat egongo da jokoan bai barikuan bai domekan.

40 URTETIK GORAKOAK	J	I	G
1. Alex Arantzabal - Alberto Telleria	5	5	0
2. Asier Morales - Fernando Zenitagoia	6	5	1
3. Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre	5	4	1
4. Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga	6	3	3
5. Juan Carlos Errasti - Jesus Belamendia	6	2	3
6. Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre	4	2	2
7. Koldo Goenaga - Roberto Basauri	6	2	4
8. Pello Larrea - Mikel Elkoro	4	0	4
9. Joseba Arbulu - Julio Calleja	5	0	5

40 URTETIK BEHERAKOAK	J	I	G
1. David Peñalver - Txomin de Vega	4	4	0
2. Jokin Arantzabal - Unai Alkorta	4	4	0
3. Enrike Elkoro - Oier Billa	4	3	1
4. Gorka Arizmendiarrieta - Oxel Erostarbe	4	2	2
5. Samu Gorrotxategi - Asier Osoro	4	2	2
6. Igor Irazabal - Gaizka Bolinaga	4	1	3
7. Mikel Ormaetxea - Iraitz Bolinaga	4	0	4
8. Jose Monterroso - Satur Ramos	4	0	4

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

CIE Recyde
CIE RECYDE, S.A.U.
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
www.cieautomotive.com
AENOR ER Empresa Erregistratua ER-0182/2/95
ISO 9002 QS 9000 ISO/TS 16949

PILOTA > ARABAKO ESKOLAZ KANPOKO TXAPELKETA

Pilotan jardungo dute bihar Aramaioko umeek

Aramaio Pilota Elkartea sortu dute, gazteengan pilota sustatzeko

Bihar, eskolaz kanpoko txapelketako hirugarren jardunaldia dago

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Barea pilota taldeari jaio berri den Aramaio Pilota Elkarteak hartu dio erreleboa, eta Fernando Errazti buru dutela, herriko gazteengan pilotarako zaletasuna sustatu nahian dabiltza. Gaur egun, 21 ume dabiltza Aramaion pilotan, eta astelehen, eguazten eta barikuero entrenatzen dute kiroldegian. "Herrian pilota giroa mantentzea nahi dugu eta umeak pilotan jokatzen disfrutatzea. Umeak oso pozik ikusten ditut, eta hori da garrantzitsuena", dio Fernando Erraztik. Motibatuta ere badaude; izan ere, Arabako eskolaz kanpoko pilota txapelketan parte hartzen dihardute taldeko zenbait umek. Zapatuan etxeak jokatzeko aukera izango dute; txapelketaren hirugarren jardunaldia Aramaion jokatuko da-eta. Partiduak 10:15ean hasiko dira.



Aramaio Pilota Elkarteko gazteak entrenamendua hasi aurretik. ARRITXU BARRUSO



Joan zen zapatuan Laudion jokatutako finalerdia. LIERNI ALTUNA

KULTURA > BERTXOKO TXAPELKETA

Bertxokoren finala Aramaion jokatuko da hilaren 28an

Asteburu honetan Agurainen jokatuko den finalerdian egongo da Iker Agirre aramaioarra

A.B. > ARAMAIO

Bertxoko, bertsolari gazteen txapelketa, hasi da amaierara iristen. Aste bukaera honetan, zapatuan, azken finalerdia jokatu da Agurainen eta datorren barikuan, berriz, finala. Azken saio hori Aramaioko eskolan izango da, 20:30etik aurrera. Bertan izango dira hiru finalerdietako lehenengo bi sailkatuak.

Oraindik ikusteko dago finalean aramaioarren bat egongo den ala ez. Bi aramaioar aritu dira txapelketa honetan. Xabier Igoa da lehenengoa. Baina Laudioko saioan ez zen finalerako sailkatu eta, beraz, ez da Aramaioko saioan izango. Iker Agirre da beste aramaioarra; Agirrek zapatuan Agurainen dauka finalerako txartela lortzeko aukera. Finalean seguru egongo den aramaioarra gai jartzailea izango da: Manex Agirre.

> UDALA

Herritarrei eskerrak eman nahi dizkie Udalak zenbait proiektutan egindako ekarpenengatik

Udalak, orain dela aste batzuk, osoko bilkuren aretoan ikusgai ipini zituen datozen hilabeteetan aurrera eramango dituen zenbait proiektu: irisgarritasun plana, kultura etxeko parkea handitzeko proiektua eta eguneko zentroaren proiektua. Herritarrek plan horiek ikusi eta euren iritzi eta proposamenak egiteko aukera izan zuten. Udala pozik dago herritarren erantzunarekin eta eskerrak eman nahi dizkie erakutsitako interesagatik. Proposamen horiek kontuan izango dituztela azaldu dute.

KIROLA> DEBAGOIENEKO KIROL SARIAK

Herritarren saria jasotzeko hautagai da Maider Unda

Udalak herritarren proposamenak ezagutu nahi ditu herriko kirolari onenaren saria emateko

A.B. > ARAMAIO

Debagoienean kirol arloan lanean diharduten pertsonak, kirolariak eta kirol sustatzaileak saritzeko eta txalotzeko sortu dira Debagoieneko kirol sariak. Ibarreko sei udalerrik hartuko dute parte bertan.

Leintz-Gatzaga,Eskoriatza, Aretxabaleta,Oñati, Elgeta eta Aramaioko Udalek, La Caixa erakundeak eta Arteman Komunikazioa enpresaren artean antolatu dute Debagoieneko kirol sarien lehenengo edizio hau.

Guztira, 14 sari banatuko dira. Sei udal horietako bakoitzak bere herriko kirolari onenari saria emango dio. Aramaioko Udalak herritarren proposamenak jaso nahi ditu sari hori emateko. Herritarrek azaroaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dute kirolari onenaren proposamen udaletxean.

MAIDER UNDA

Banatuko diren 14 sarietako bat da Herritarren saria eta sari hori Debagoieneko herritarrek aukeratuko dute. Bost hautagai daude sari hori jasotzeko eta horietako bat da Maider Unda borrokalari oletarra. Herritarren sarian parte hartu eta botoa emateko bi bide daude: La Caixako bulegoetan dauden postontzietan eta *www.dks08.net* webgunean.

Maider Undarekin batera honakoak dira Herritarren saria jasotzeko hautagaiak: Zuhaitz Ezpeleta, Joseba Iñurrategi, Reyes Azkoitia eta Fernando Zufiria.

Sarien banaketa abenduaren 20an egingo da Arrasateko Amaia Antzokian.

> KONTZERTUA

Santa Zezilia eguna dela-eta, Bizente Goikoetxea abesbatzak kontzertua eskainiko du domekan

Azken urteotan ohikoa den moduan, aurten ere Bizente Goikoetxea abesbatzak kontzertua eskainiko du Santa Zezilia eguna ospatzeko. Meza ostean abestuko dute, 13:00etan, Aramaioko elizan. 30 minutu inguruko kontzertua izango da eta abesbatzako zuzendari Angel Astondoak azaldutakoaren arabera hamar abesti kantatuko dituzte, euskaldunak batzuk, baina, baita beste herrialde batzuetakoak ere. Gainera, Urki Larrea txistulari arrasatearrak hiru abestitan lagunduko die.

> ZINEMA

'Nocturna, abentura magiko bat' filma ikusteko aukera izango dute gaztetxoenek domekan

Misteriozko abentura bat biziko dute Aramaioko umetxoek domeka honetan. *Nocturna, abentura magiko bat* filma emango dute 17:00etan, kultura etxean. Gauaren ilunean, etxeetako zaratak besterik entzuten ez direnean, txoko guztietan gauza misteriotsuren bat dagoela ematen du eta beldurrak hartzen digu irudimena. Egun batean, izarrak itzali egingo dira eta gaua ilunpean geratuko da betiko. Tim ume beldurtia da, baina, kasu honetan kemenez jantziko da halako ezbehar handia konpontzeko.

UDALA > GARAJEAREN LEHIAKETA

Pilotaleku azpiko garaje itxirako izenemate epea zabaldu dute

17 automobilendako tokia dauka garajeak; quads eta motorrendako bi toki gorde dituzte

Lehiaketa bidez banatuko dituzte eta bi urterako izango dira, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Pilotaleku azpian dagoen garajeko lekuak eskuratzeko izenemate epea zabaldu du Udalak. Eguaztenean, hilak 19, argitaratu zuen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta abenduaren 4a bitartean aurkez ditzakete eskaerak herritarrek. Horretarako udaletxeko erregistrora joan behar dute astelehenetik egubakoitzera bitartean (09:30-13:30) eta eguenetan, arratsaldez ere bai (14:00-18:00). Argibide gehiago eta bete beharreko agiriak udaletxean dituzte; baldintzen plegua Udalaren webgunean dago: *www.leintzgatzaga.com*. Hona eskatzaileek aurkeztu beharrekoa: eskaera orria beteta, nortasun agiriaren kopia eta zirkulazioko baimenaren kopia.

MOTORRAK ETA QUADS-AK

Pilotaleku azpiko garaje itxia Udalarena da, eta lurrean margotutako marra bidez ditu banatuta tokiak. 17 automobil sar daitezke, eta bi toki gorde dituzte motorrendako eta quads-endako. Bi toki horiek orain ez daude libre, baina eskaera egonez gero, Udalak garbituko lituzke.

Baldintzen plegua urriaren 28an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak. Hona eskatzaileek bete beharreko hiru baldintzak: ibilgailu baten titularra izatea; Gatzagan erroldatuta egon eta bertan bizitzea; eta ibilgailuen gaineko Udal zerga ordainduta izatea.

Kontratua bi urterako egingo dute –2009 eta 2010– baina beste bi urtez luzatzeko aukera izango dute, Udalak hala gura badu. Hona 2009rako ezarritako prezioak: ibilgailuendako, 332 euro; quads-endako, 199,20 euro; eta motorrendako, 132,80 euro. Hiru kopuruei KPI gehituko diote, baita 2010ean ere. Horrez gain 30 euroko bermea jarri beharko dute tokia eskuratutakoek.

GIZARTE ZERBITZUAK

Udaletxe aurrean elkartzeko deia 25ean

M.A. >LEINTZ GATZAGA

Martitzenean, azaroak 25, Emakumearenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen dela-eta elkarretaratzea egingo dute udaletxe aurrean (12:30). Udal Gizarte Zerbitzuak antolatu du ekitaldia, eta indarkeriaren aurkako leloa duen pankarta gertatzen dabiltza egunotan. Leloarekin bat egiten duten guztiei egiten diete dei Gizarte Zerbitzuetako arduradunek parte har dezaten. Elkarretaratzea egin bitartean lazo zuriak banatuko dituzte.

Udala, gustura San Milixaneko feriarekin

Eguraldi narrasa eta Gatzagako pilotalekuan hotza egin zuen domekan, baina herritarrek eta bisitariek laster berotu zuten giroa. San Milixan eguneko artisauen feriak lan politak ikusteko aukera eskaini zien guztiei. Urtero legez, taloak eta salda eskaini zuten herriko emakumeek barrua berotzeko. Bisitari batzuek xaboiak egin zituzten, eta beste batzuk beira zelan lantzen zuten begira egon ziren. Gatz museoa ezagutzera ere asko hurreratu ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

> GOLFA

Mikel Galdos zortzigarren sailkatu da Peugeot Loewe Tourreko finaleko lehen jardunaldian

Mikel Galdos golf jokalari aretxabaletarra Sevillan dago egunotan, Peugeot Loewe Tour RCG txapelketako finalean esku hartzen, eta lehenengo jardunaldian zortzigarren postuan sailkatu da –domekan amaituko dute txapelketa.

Horrekin batera, baina, Galdosek Alps Tourrean hartu ahal izango du datorren urtean esku, 150 golf jokalariren artean 13. sailkatu eta gero. Europan ibiltzeko ateak irekiko dizkio horrek.

> XAKEA

Cristobal Limeres da Arrasate Hirian lider; gaurko jardunaldia erabakigarria izan daiteke

Gaur jokatuko duten Arrasate Hiriko bosgarren jardunaldia erabakigarria izan daiteke. Lehenengo taulan Limeres eta Franco izango dira aurrez aurre; Limeres nagusitzen bada jardunaldi baten faltan ia eskuan izango du txapelketa. Baina Francok irabazten badio azken txanda emozioz betetakoa izango da.

Dena dela, atzetik datozen beste sei xakelari daude oraindik txapela janzteko aukerekin: Nava, Galzagorri, Fran Miguel, Andoni Miguel, Tornay eta Hernando.

> MENDIKO LASTERKETAK

Oihana Kortazar elgetarra nagusitu zen joan den zapatuan Karakateko igoera jendetsuenean

Oihana Kortazar izan zen onena emakumezko azkarrena Karakateko igoeran. Elgetarrak 36 minutu eta 52 minutu behar izan zituen proba egiteko, eta gizonezkotan Josu Arregi azpeitiarrarendako izan zen saria (29:18). Arregik, baina, ezin izan zuen iaz Aritz Kortabarriak ezarritako marka ondu (29:00). Arrasateko lasterkaria aurten ere izan da proban, laugarren sailkatuta (30:50).

> IKASTAROA

Aloña Mendik orientazio ikastaroa antolatu du datorren martitzenerako eta eguenerako

Orientazio ikastaroan oinarrizko kontzeptuak ikusiko dituzte: mapen interpretazioa, iparrorratzaren erabilera, profilak, ibilaldiaren antolaketa... Hala, martitzena, hilak 25, eta eguena, hilak 27, egingo dute ikastaro hori (19:00-21:00). Eta, datorren zapatuan, hilak 29, mendi irteera egingo dute ikasitakoa praktikan jartzeko. Izenematea, Aloña tabernan.



BERGARAKO UDALA

Ur sorospen ikastaroan, hamabost

Joan den asteburuan egin zuten Agorrosingo igerilekuan ur sorospenetako ikastaroa eta desfribiladore automatikoa erabiltzen ikasteko ikastaroa –DEA bezala ezaguna. Euskal Herriko Sorosleen Federazio barruan, Debagoieneko kideek eman zuten ikastaro hori, eta hamabost lagunek hartu zuten esku ikastaro horretan.



Eskola Kiroleko jardunaldi bat: Bergarako Labegaraietako kantxan, gazteak badmintonean jokatzen. GOIENKARIA

ESKOLA KIROLA > DEKRETU BERRIA

"Leo Messik multikirola egin zuen gaztetan, eta baita Rafa Nadalek ere"

Eusko Jaurlaritzak Eskola Kiroleko dekretu berria onartu du; Debagoienean Eskola Kirolaren alde lanean dabiltzanendako albiste ona da hori

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Udan Eusko legebiltzarrak Eskola Kiroleko dekretu berria onartu zuen, eta dekretu berri horren gainean berba egiteko Unai Asurmendi, Bergarako kirol teknikaria, eta Susana Santor, Leintz Eskola Kiroleko koordinatzailea izan ziren GOITBko *Harmailatik* saioan, astelehenean.

Neurri handian, Debagoieneko ikastetxe eta udalak aitzindariak izan dira Eskola Kirola garatzen, Gipuzkoako beste eskualde batzuetan ez dagoelako horren errotua, ezta Euskal Herriko beste lurralde batzuetan ere. Horrek arazo handiak sorrarazi ditu ibarrean, Eskola Kirolak traba handiak izan dituelako aurrera egiteko. "Orain, berriz, kirol egitura guztiak dekretu horren azpian egongo dira, bateratuta, eta guztiok ere norabide berean egingo dugu aurrera", adierazi zuen Santorrek.

ESKOLA KIROLAREN EZAUGARRIAK

Eskola Kirola gai mamitsua da, eta Asurmendik ezaugarri nagusiak azaldu zituen: "Ezaugarri nabarmenenak dira partaidetza irekia duela; ez da bereizketarik egiten ez sexuagatik, ez kulturagatik, ez arrazagatik... eta guztiek dute kirolean jarduteko eskubide bera, ez dugu hautaketarik egiten. Beste ezaugarri bat da, izenak dioen moduan, eskolak direla aterki lana egiten dutenak, eskolen ardurapean dagoela, eta araudia ere beste ezaugarri bat da: Eskola Kiroleko araudia gazteei moldatutakoa da, eta ez alderantziz".

KIROL ANIZTASUNA

Hain zuzen ere, Eskola Kiroleko ezaugarri garrantzitsuena falta da: kirol aniztasuna. "12 urtera arte neska-mutikoak derrigortu egiten ditugu kirol bat baino gehiago praktikatzera. Berba hori gogor samarra da, derrigortzearena, baina beti jartzen dut adibide bera: ama batek ez dio semeari edo alabari arratsaldero txokolatea emango, sagarra jatera ere behartuko du, bada hemen berdin. Frogatuta dago neska-mutikoen kirol heziketarako hobea dela hainbat kirol praktikatzea, gazte horien psikomotrizitatea garatzeko, indarra, azkartasuna...", adierazi du Asurmendik; eta, Santorrek onartu du askotan ez dela erraza izaten: "Ez, izan ere ordurako neska-mutikoek ondo jakiten dute zein den euren kirol gogokoena. Baina, aurrerago izango dute gura duten kirola praktikatzeko astia. Bestalde, gaztetxoek kirol aukeraketa hori hasieratik egingo balute komunikabidetan gehien azaltzen diren kirolen alde egingo lukete. Eta, gurasoen, heziketa fisikoko irakasleen, koordinatzaileen, monitoreen... guztion esku dago beste aukera batzuk daudela ere erakustea".

HEMEN BAKARRIK EZ

Hain zuzen, Eskola Kirola begi onez ikusten ez dutenek argudiatzen dute haurrak gazte-gaztetatik kirol batetan jardutea hobe dela, baina Asurmendik dio Bartzelonako futbol eskola La Masian, edota Ajax-eko futbol eskolan ez dutela berdin pentsatzen: "Leo Messik Eskola kirola egin du, eta baita Nadalek ere. Ez duzue sinetsiko, baina eskola horietan ere gaztetxoak zapi-jokoan ibiltzen dira, hortan...".

Eta, datuek erakusten dute Eskola Kirolak hemen egin duen ibilbidea: "Espainiako datuekin alderatuta, Gipuzkoan benjamin, alebin eta infantil mailan partaidetza eta kirolari kopuru altuena dugu".

Etorkizunera begira, berriz, "gaztetan kirol heziketa on batek ahalbidetuko du nagusitan ere kirola egiten jarraitzea, kirola egiteko ohiturari eustea".

ZIKLO-KROSA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Hamahiru ordezkari, ziklo-krosean lehian

Debagoieneko hamahiru lagun dabiltza Euskadiko Ziklo-kros Txapelketan buru-belarri; joan den astean hasi ziren Sumofic taldekoak


Sumofic-Lokatza ZE taldeko Xabier Arantzeta, Osintxuko proban. XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI > BERGARA

Debagoienean urtarrilaren 10ean izango da ziklo-kroseko hitzordu handia, orduan egingo dute Osintxuko lasterketa. Bitartean, baina, ibarreko hamahiru lagun batera eta bestera dabiltza, Euskadiko txapelketako egutegia betetzen.

Hamahiru lagun horiek dira, senior mailan, Ederra taldeko Felix Zugasti, Zigor Urain eta Iñigo Roldan, gizonezkoetan, eta Jone Muxika, emakumezkoetan. Gazte mailan, berriz, Oñatiko Ander Altube eta Iker Mugartza eta Lokatza ZE taldeko Xabier Arantzeta, Anartz Gartzia, Unai Retolatza, Jon Rivero eta Unai Martinez dabiltza lehian. Azkenik, kadete mailan, Hodei Orobengoak eta Mikel Aristik jardungo dute.

DOMEKAN ASTARRIAN

Oraingo domekan Astarrian, Bizkaian, egingo dute ziklo-kros lasterketa, baina egongo da zapatuan Kantabriara joatera animatuko denik ere, Pielagosko saria egingo dute-eta han.

Orain arteko lasterketei dagokienez, denboraldia Muskizen hasi zuten, urrian, eta ordutik lasterketa mordoa egon dira. Aipatzeko modukoa da, esaterako, Ander Altube oñatiarrak Pobesen lortutako garaipena, denboraldiko bigarren lasterketan –gazte mailan; eta Jone Muxikak beste horrenbeste egin zuen Karrantzan, azaro hasieran. Eurekin batera, baina, lan ona egin dute Ederrako ordezkariek; Roldan eta Urain, esaterako, behin baino gehiagotan izan dira lehen hamar sailkatuen artean, eta Euskadiko txapelketara mugatu barik, bi ziklista horiek Madrilen ere izan dira lehiatzen.

SUMOFIC-LOKATZA TALDEA

Talde moduan, aipatzekoa da Lokatzakoak ziklo-krosaren alde egiten dabiltzan ahalegina. Batetik, bigarren urtez lasterketa bat ekarriko dute gurera –oraingoan Espainiako Txapelketa izango dena–, eta, bestetik, ziklista harrobi sendoa osatzen dabiltza.

Errepide denboraldia amaitu eta atseden hartu eta gero, Sumofic-Lokatzakoak joan den astean hasi ziren ziklo-krosean. Orion, esaterako, kirol hori lehenengo aldiz probatu zuten Mikel Aristi eta Hodei Orobengoa atzealdean hasi ziren, baina aurrean amaitu. Hain zuzen ere, Mikel Aristi podiumera igo zen.

ATLETISMOA > AKORDIOA

'Heuk proba ezan', emakumeek korrika egin dezaten egitasmoa

Emakumeak atletismora gerturatzeko ikastaroa egingo dute Musakolako kiroldegian

X.U. > BERGARA

Behobia-Donostia maratoi erdia antolatzen duen Fortuna kirol elkarteak emakumeak korrika egiten animatzeko egitasmoa jarri du abian, eta Arrasateko Aukea kirol elkarteak bat egin du egitasmo horrekin. Ibarrean Arrasaten bakarrik egingo dituzte ikastaro horiek; gainontzeko herriak Irun, Hernani, Tolosa eta Donostia dira.

Behobiako antolatzaileek datu bat bota dute: aurtengo maratoi erdian emakumezkoen parte-hartzea izenemate osoaren %14 izan da. Eta, gainontzeko herri lasterketetan datu horrek behera egiten du. Hala, gainontzeko herrietan emakumeen parte hartzea %20ra iristen dela jakinda, emakumeak atletismoan sartzeko egitasmoa jarri dute abian.

DOAN IZANGO DA

Musakolan egingo duten ikastaroan, adin guztietako emakumeendako entrenamenduak zelan egin irakatsiko dute, poliki-poliki herriko lasterketetan geroago eta emakume gehiago ikusteko. Informazio gehiago, Musakolako kiroldegian: 943 77 16 77.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Huesca
Domeka. 17:00. Anoeta.

Gazteen euskal liga
Bergara-El Pilar Marianistas
Domeka. 15:30. Agorrosin.
Aretxabaleta-SD Leioa
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Preferente maila
Ondarroako A.-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zaldupe.
Amaikak Bat-Mondra
Zapatua. 16:30. Errotazar.
Euskalduna-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Allurralde.

Lehen erregionala
Elgoibar-BTLS
Zapatua. 18:30. Mintxeta.
Aretxabaleta-Orioko
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Antzuola
Domeka. 16:30. Mojategi.
Bergara-Zestoa
Zapatua. 15:30. Agorrosinen.

Bigarren erregionala
Bergara B-Getariako Keta
Zapatua. 17:00. Ipintza.

Ohorezko mailako gazteak
Aloña Mendi-Ordizia
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Lehen mailako gazteak
Eibartarrak-Are. Arizmendi B
Domeka. 16:30. Unbe.
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 16:30. Mintxeta.
Mondra-Soraluze
Domeka. 12:00. Mojategi.

Kadeteen Ohorezko maila
Bergara-Elgoibar
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aretxabaleta Ariz.-Billabona
Domeka. 12:00. Ibarra.
Zumaiako-Arrasate
Zapatua. 11:00. Zumaia.

Kadeteen lehen maila
Bergara B-Urki
Zapatua. 19:00. Ipintza.
Aretxabaleta B-Soraluze
Zapatua. 11:00. Ibarra.
Eibartarrak-Arizmendi
Domeka. 18:30. Unbe.

Kadete txiki
Urki-Arrasate
Domeka. 15:00. Unbe.

Infantilen Ohorezko maila
Lagun Onak-Bergara
Zapatua. 11:30. Azpeitia.
Ondarroako Aur.-A.Arizmen.
Domeka. 11:00. Zaldupe.

Infantil maila
Aloña Mendi-Mutriku
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Arrasate-Ilintxa
Domeka. 10:00. Mintxeta.

Infantil txikien maila
Are.Arizmendi B-Reala
Domeka. 10:15. Ibarra.
Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 11:30. Ipintza.
Elgoibar-Arrasate
Zapatua. 12:30. Mintxeta.

Emakumezkoen liga
Arizmendi-Mondra
Zapatua. 15:30. Almen.
Soraluze-Arizmendi
Domeka. 15:45. Eozia.

Emakumezkoen F8 Kadet.
Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua. 12:30. Usabal.

Emakumezkoen F11 Kadet.
Lagun Onak-Arizmendi
Domeka. 11:30. Azpeitia.
Mondra-Luberri
Zapatua. 12:00. Mojategi.

Alebin maila
Aloña Mendi-Eibar
Domeka. 10:00. Deba.
Aretxabaleta-Bergara
Domeka. 11:30. Deba.
Arrasate-Elgoibar
Domeka. 11:30. Deba.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak
Ford Mugarri-Urdaneta
Domeka. 11:30. Ituripe.

Euskadiko Txapelketa, emakumezko preferent.
Verkol Aloña Mendi-Jarriller.
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

Euskadiko Txapelketa, emakumezko gazteak
Elgoibar-Verkol Aloña Mendi
Zapatua. 19:00. Elgoibar.

Euskadiko Txapelketa, emakumezko kadeteak
IMH Elgoibar-Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Elgoibar.

Lehen territorial maila
Eibarko-Soraluce BKE
Zapatua. 17:00. Eibar.
Soraluce BKE-Usurbil
Domeka. 12:30. Labegarai.

Big. territorial maila
Arrasate-Urola
Domeka. 10:00. Iturripe.
Tolosa-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Tolosa.

Gazte maila, gizonezkoak
Ereintza-Aloña Mendi
Domeka. 10:45. Pasaia.
Leizaran-Arrasate Chapime
Domeka. 11:45. Andoain.
Urrezko belarritakoak. Arrasate erdigunean urrezko belarritakoa galdu nuen azaroaren 14an, ostiralean. Deitu 943 79 38 29 edo 629 48 03 13 telefono zenbakietara.

807. AURKITU

Ezkontza eraztuna. Ezkontza eraztuna aurkitu nuen urriaren 25ean, zapatuan. *Tere-Leonardo* ipintzen du. Deitu 626 60 37 03 telefono zenbakira.

Telefono mugikorra. Azaroaren 10ean, telefono mugikorra aurkitu nuen Murugain eta Izurieta arteko mendibidean. Deitu 620 06 35 92 telefono zenbakira.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutil bat naiz, Arrasatekoa, 38 urtekoa, eta beste mutil batekin, ahal bada ni baino gazteagoa, harremanak izan nahi nituzke. 665 75 58 74.

904. BESTELAKOAK

Rock abeslaria. Rock abeslaria talde bila dabil. Deiutu 657 02 15 96 telefonora.

Azpeitia-Donostia. Azpeitian bizi naiz eta Donostian (Zuatzun) egiten dut lan. Autoa konpartitu nahiko nuke gastuak gutxitze aldera (auto propioa dut). Nire ordutegia goizeko 08:00-08:30etik 17:30-18:00etara da. 637 11 39 09.

Sasi-musika. Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: inprobisaketa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informaziogehiago: *sasimusika.blogspot.com*

Donostia alde zaharreko joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? etorri gure entsaioetara eta proba egin!edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Informazio gehiago nahi izan ezkero idatzi mezu bat *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com* e-postara.

AIZPURU AUTOAK, E.M.
PEUGEOT ZERBITZU OFIZIALA
943-81 23 59
Peugeot 307 SW HDI 110 zaldi PACK, beltza / 0 km 2008-09 / **17.200 €.** Girogailua, cd mp3...
Peugeot 206 X-LINE 1.4 HDI 70 zaldi, grisa / 90.000 km 2006-05 / **6.500 €**. Aire egokitua, cd, abs...
Peugeot 407 ST SPORT HDI 136 zaldi, beltza / 0 km 2008-09 / **20.200 €**. Girogailua, llantak, mp3 cd-a, erregulatzailea...
Peugeot Boxer Combi 2.2. HDI, zuria / 180.000 km 2004 / **7.000 €**.
Peugeot Patner Rancho Combi HDI 90 zaldi, zuria / 110.000 km / 2005 / **6.000 €**. Girogailua, 2 ate, llantak. cd...
www.aizpuru.net
Arretxe 17 • 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



BEGIRISTAIN INMOBILIARIA
943-42 82 82 • www.begiristain.com
IGELDO. Behealdea. Banakako etxea 1.200 m2-ko lursailean. Leku lasaia. Ikuspegi zabalak. F00683
OIARTZUN. 300 m2-ko banakako etxea, bi solairutan banatuta. Terrazak, karrerapea eta 1.000 m2-ko lorategia. Dotorea eta leku onean kokatua. F00700
ERDIGUNEA. Egongela, sukaldea-jangela, 4 logela eta 3 bainugela. Terraza. Ikuspegi zabalak. Garaje itxia. Trastelekua. Igerilekua eta pilotalekua. F00686
ANTIGUOA. Matia kalea. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Barneko patiora begira. 217.000 euro. 801857
IGELDO. 90 m2. Egongela-tximiniarekin, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Balkoia eta terraza, itsaso alderako ikuspegiekin. Oso egoera onean. Lursaila, elkartea eta aparkalekua komunitatean. 397.000 euro.F00670
ERRENTERIA. Txaleta. Etxebizitza independentea. Egongela, jangela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Galeria. 450 m2-ko lorategi pribatua. Garaje itxia eta erantsiak beheko solairuan. F00664
ASTIGARRAGA. Erdigunean. 170 m2. Egongela-jangela tximiniarekin, sukaldea-jangela, 3-4 logela eta 3 bainugela. Terraza. Guztia kanpora begira. Oso egoera onean. Garaje itxia eta trastelekua. F00610
GABIRIA. Apartamentu dotorea, eraikuntza berriko eraikinean. Egongela-sukaldea, logela eta bainugela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Terraza eta berdegune komunak. F00699

ANZABAL etxe agentzia
Santiago, 15 - behea
ELIZONDO (BAZTAN)
Tel.: 948- 58 08 04
Faxa: 948 581459
anzabal@anzabal.com
BAZTAN-ORONOZ MUGAIRI: Etxe bifamiliakoak lur eremuarekin.
BAZTAN-ANIZ: 2.000 m2-ko lur eraikigarria.
BAZTAN-ELIZONDO: Bigarren eskuko etxebizitza eta apartamentuak.
BAZTAN-ELIZONDO: Etxe familiabakarrak bere jardinarekin.
BAZTAN-ELBETE: Eraikin berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai.
BAZTAN-ARIZKUN: Etxe familiabakarrak bere lur eremuarekin.
BAZTAN-ARRAIOZ: Eraiki berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai
BAZTAN: Bordak berritzeko salgai.
ZUGARRAMURDI: Baserria 50.000 m2-ko lurrarekin.
IGANTZI: Eraikin berriko etxea eta lurra.
SUNBILLA: Baserri berritua 7.000 m2-rekin.
ZUBIETA: Hiru solairuko baserria, berritzeko.
DONIBANE GARAZI: 3 kilometrora baserria, bi borda eta lurra.
BAIGORRI: Etxea bere lurrarekin.

ARAMBURU
Administración de Fincas y Gestión inmobiliaria
Etxe Administrakuntzak eta bigiazinen gestion
943-651713
677-460916
SALGAI. Etxe handia lur sailarekin, 4.000 m2, guztiz berritua, Alkizan.
SALGAI. Etxebizitza, SOLDADU kalean, sartzeko moduan, Tolosan (231.400€ / 38,5 MIL).
SALGAI. Etxebizitza, KALE NAGUSIAn, 1 igogailuarekin sartzeko moduan, eta bestea berritzeko eta igogailurik gabe, Tolosan (193.000€ / 32 MIL, NEGOZIA DAITEZKE)
SALGAI. Etxebizitza, MARTIN JOSE IRAOLA kalean Tolosan.
SALGAI. Etxebizitza, SAN IGNAZIO auzoan, sartzeko moduan, Ibarran (211.000€ / 35 MIL).
SALGAI. Etxebizitza, IZASKUN AUZOAN, Tolosa (234.400€ / 39 MIL).
SALGAI. Etxebizitza, guztiz berritua, Amasan.
SALGAI. Etxebizitza, berritzeko, Legorretan.
SALGAI. Lokala, Euskal Herria kalean, Ibarran.
SALGAI. Garajeak, San Frantzisko eta Amarotzen Tolosan, eta Idoiagan Ibarran.
SALTZEKO EDO ALOKATZEKO. Lokala, tximiniarekin, erdialdean Lasarten.
ALOKATZEKO. Etxebizitza, lurre auzoan, eta San Franziskon.
ALOKATZEKO. Garajeak, San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxiler Zaldibian.
ALOKATZEKO. Pabiloi industriala, Leaburuko bidean, Ibarran.

OKADOS inmobiliaria
Zumardi pas. 3 behea - Tel.: 943-39 46 77
San Martin 62 behea - Tel.: 943-44 44 80
www.buscacasas.com
AIETE. Oso polita eta eguzkitsua. Balkoiak eta garajea. 450.800 €.
AIETE. 3 logelako etxebizitza. 2 bainugela, egongela eta erabilpen anitzeko gunea. Terraza. Bista ederrak. 871.000 €.
ERDIALDEA. Kanpoaldera. Eraikin eraberritua. 90 m2. Egongela, 3 logela, 2 bainugela. Igogailua. 931.200 €.
INTXAURRONDO. 75 m2. Oso polita eta eguzkitsua. Egongela handia. Sukalde eta balkoia. 3 logela. Bainugela. Bistak. 359.000€.
INTXAURRONDO-MARRUTXIPI. 75 m2. Egongela. Sukaldea. Bainugela eta 3 logela. Terraza handia. Bistak. 360.600€.
BIDEBIETA-GAIZTARRO. Dena kanpoaldera, terrazetara. Egongela, 4 logela, 2 bainugela. Igogailua.
HERRERA. Eraikin berria, 3 logela, 2 bainugela. Altu eta argitsua. Bistak. Igogailua. Aparkaleku komunitarioa. 435.500 €.
PASAI SAN PEDRO-TORRE-ATZE. Etxebizitza berriak, garajearkin. Kaiaren parean.
HERNANI. Apartamentu berria. 40 m2. Egongela, logela 1, bainugela eta sukaldea. 192.325 €.
RIAS BAIXAS. San Vicente do Grove. Harrizko etxe berritua, lur sailekin. Hondartzaz inguraturik. Garajea bi autorentzat.
HENDAIA-URRUÑA. Inguru bikaina. 300 m2-ko txaleta. 4,7 hektareako terrenoa.

LAZKAO INMOBILIARIA
365 API
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao
943-88 37 39



Azken etxebizitzak,
Orobione, San Prudentzio
180.000 €-tik hasita
www.lamylazkao.com

gizarte ekintza

hezkuntza

"ZERU GOI-GOIAN IZARRA,
HARI BEGIRA
LIZARRA"

Bada, hori guztia bizitzeko
aukera duzu orain

Zientziaren kutxaGuneko
Planetarium **berrian**, Donostian

paregabea eta ikusgarria,
benetan, bere Super High
Definition sistemari esker

943 012 478
www.miramon.org



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

7 Gure URTEURRENA ospatu

Urtebetean HIPOTEKA DOAN!*

Jolastu Gorbeiako Erruleta eta irabazi milaka sari:

600€ SOLDATA
hilabetero urte bat bitartean
erosketa txarteletan


500€ SOLDATA
hilabetero urte bat bitartean
erosketa txarteletan

300€ SOLDATA
hilabetero urte bat bitartean
erosketa txarteletan

PROMOZIOAK 2008KO AZAROAREN 21ETIK
ABENDUAREN 20RA IRAUNGO DU.
*2008KO AZAROAREN 21EAN INDARREAN DAUDEN
HIPOTEKA MAILEGUETARAKO.
URTEKO 12.000 EUROKO GEHIENEKO MUGAREKIN
(ATXIKIPENA BARNE).
BALDINTZAK GORBEIA MERKATARITZA PARKEAREN
GERENTZIA BULEGOETAN KONTSULTA DAITEZKE

GORBEIA
errazago, azkarrago, erosoago, merkeago

Carrefour DECATHLON Norauto BRICO DEPOT i'm lovin' it merkal calzados KinG Jouet YELMO CINES GORBEIA MUEBLES MAX DESCUENTO



Gorka Urbizu. IKER BARANDIARAN

Gorka Urbizuren musika ibilbidea mintzagai GOITBn

Berri Txarrak taldeko abeslaria da Gorka Urbizu; harekin izango da Iker Barandiaran

GOIENKARIA > BERGARA

Lekunberrin jaio eta bizi da Gorka Urbizu, Berri Txarrak talde ospetsuko abeslaria. Txikitatik datorkio musikarako zaletasuna, herriko musika eskolan musika instrumentuak ikasten hasi zen une beretik, hain justu. Gazte ekin zion, gainera, musika egiteari, hamahiru urterekin Nahi ta Nahiez taldea sortu zuen-eta. Handik urte batzuetara, Berri Txarrak taldea sortu zuen eta urte gutxi behar izan zituen taldeak Euskal Herriko rock talde ospetsuenetariko bat izatera iristeko. Euskal Herrian lortu duen ospeaz gain, Berri Txarrak, nazioarte mailan, kontzertu gehien eskaini dituen euskal taldea da.Orain, gainera, disko berria prestatzen ari da.

GOITB, 'Ilunpean'
> Martitzena, 22:15
> Zapatua, 21:30

Belceblues, Katamalo eta masajea

U.M. > ARRASATE

Gabonak badatozela-eta, Arrasate Irratiak aukera paregabea eskaintzen du jai horiei begira egokiak diren opariak eskuratzeko. Datorren astean, adibidez, musika izango da oparietako protagonistetako bat: Belceblues (Bergara) eta Katamalo (Bizkaia) musika taldeen azkeneko lanekin egindako pack-a zozkatuko dute. Baita ere, astero moduan, Jose Luis Abuin Arrasateko masajistaren eskutik masaje-bonoa, gura denean erabiltzeko.

Irratia, 'Igo Autobusera'
> Egubakoitza, 11:45



MIREN ARREGI

Informazio guztia, egunero 'Goiena Magazinea'-n

Astelehenetik egubakoitzera, Debagoieneko kontuen gaineko informazioa eskuratu ahalko duzue, zuzenean, Goiena Telebistan. Larraitz Zeberio aurkezleak, hainbat kolaboratzaileren laguntza izango du horretarako.

GOITB, 'Goiena Magazinea' > Astelehenetik egubakoitzera, 19:45ean eta 21:15ean.

telebegi

Oihane Agirre
'oagirre@goiena.com'

Realityak mugimenduan

Aurten hamargarren aldiz bidali dituzte Guadalixera *Gran Hermano*ren parte-hartzaileak. Martitzenean, ia lau milioi jarraitzaile izan zituen saioak. Agortzen ez den formatua dirudi. Noiz arte? Cuatro, berriz, reality-road formatua hasi da eskaintzen domeketan: *Pekin Express*. Lehiakideak ez daude plato batetan sartuta, mugimendua gehitzen da. Helburua, kasu honetan, Pekinera heltzea. Aldika jarraitu izan dut saio hau, batez ere kuriositatez. Hasieran errepikakorra izan zitekeela pentsatu nuen, audientzia erakartzeko zaila. Baina reality guztietan bezala, hemen ere lehiakideen bizitza anonimoa azaleratzea da kontua, eta horixe eskaini ziguten domekan ere. Audientziaren negar malkoak lortu zituzten, bikietako batek minbizia zuela jakitean. Eta albiste horretaz elikatu ziren kate bereko beste saio batzuk, arazo berbera zutenak laguntzeko aitzakiaz.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Musika.

Domeka
10:00 Musika.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean
Kantaka
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Asteko protagonistekin elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 25 05 05, irratia@goiena.com edo goiena.net)
12:05 Euskadi Irratia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

astea GOITBn

Egubakoitza, 21

13:15 Marrazki bizidunak: *Muka Muka.*
13:45 Ur eta lur.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
16:15 Ikusten.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Gure saltsan.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Solaskide.
22:45 Danbaka: Los viernes al Ron eta Bitter Honei.
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

Zapatua, 22

08:00 Marrazki bizidunak.
10:30 Trikitraka trikiton.
11:30 Golb tb.
12:00 Perretxikoen mundua.
12:30 Ikusmira.
13:00 Eltze beroa.
14:30 Trikitraka trikitron.
15:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Erreportajea.
18:30 Solaskide.
19:00 Erreportajea.
19:30 Berbaire.
20:30 Golb tb.
21:00 Ikusten.
21:30 Ilunpean.
22:15 Solaskide.
22:45 Erreportajea.
23:30 Danbaka.
00:30 28 klip.
01:00 Emisio amaiera.

Domeka, 23

08:00 Trikitraka trikiton.
09:00 Marrazki bizidunak.
11:30 28 klip.
12:00 Erloklip
12:30 Ikuskizuna.
13:00 Erreportajea.
13:45 Solaskide.
14:15 Eltze beroa.
15:15 Gure saltsan.
15:45 Marrazki bizidunak.
18:15 Trikitraka trikiton.
19:15 Erreportajea.
19:45 Solaskide.
20:15 Danbaka.
21:15 Perretxikoen mundua.
21:45 Berbaire.
22:45 Golb tb.
23:15 Ilunpean.
00:00 Itsasora begira.
00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 24

13:15 Marrazki bizidunak: *Muka Muka.*
13:45 Erlo klip.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ikuskizuna.
15:45 Erreportajea.
16:15 28 klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Danbaka: Los viernes al ron eta Bitter Honei.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Golb tb.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Harmailatik.
23:00 Erreportajea.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 25

13:15 Marrazki bizidunak: *Katagorriak.*
13:45 Ikusten.
14:15 Eltze beroa: *Muskuilu beteak.*
14:45 Berriak.
15:10 Harmailatik.
15:50 Solaskide.
16:20 Erloklip.
16:45 Berriak.
17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Erreportajea.
18:05 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Danbaka: Armi arma.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Ilunpean: Gorka Urbizu.
23:00 Ikuskizuna.
23:30 Goiena Magazinea.
00:30 Emisio amaiera.


Eguaztena, 26

13:15 Marrazki bizidunak: *Muka Muka.*
13:45 Ikusmira.
14:15 Gure saltsan
14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.
15:50 Golb tb.
16:20 28 Klip.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Solaskide.
18:15 Ur eta lur.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Zaharrak berri.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.
22:45 Perretxikoen mundua.
23:15 Goiena Magazinea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 27

13:15 Marrazki bizidunak: *Katagorriak.*
13:45 Perretxikoen mundua.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ikusmira.
15:45 Ikuskizuna.
16:15 Zaharrak berri.
16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Erreportajea.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Danbaka: Brankan.
21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Berbaire.
23:15 Erreportajea:
23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.

bila-bila 7




hitz gezidunak



	* Irudiko zuhaitza	▼	Bartxuria	▼	Eguzkiak	▼		
	Metalezko sokak		Neurriak		Alderantziz, H2O			
▶			▼		▼			
	Mea	▶						
	Zaren hori							
Pilota jokaldia	▼	Mahai estalkia	▶	▼				
Espainiako diru ohiak		Zakar						
▶		▼					Potasioa	▶
							2 kontso-nante	
Eroriak	▶						▼	Maiz, sarri
Euskal sindikatua								
▶			Ez emankor	▶				▼
			Idi, hitz elkarketan					
Ozta	▶		▼	Lehena eta azkena	▶		Sufrea	▶
Banatu				Bokala			Kontso-nantea	
▶				▼			▼	


GOIENKARIA


soluzioak



Jeroglifikoa: Angelu.








sudokua

		8	6					4
	9		2					
2		1	5					
	6			9			7	
	2						8	
	3			1			4	
4	1	3	7	6	8	9	2	5
					3		1	
7					4	6		

hieroglifoa

Lapurdiko herri bat.



hizki salda

5 animaliren izenak

D	D	T	M	O	I	P	E	M
K	A	T	A	G	O	R	R	I
T	I	G	E	R	A	M	O	L
G	A	Z	E	L	A	D	E	Z
A	D	S	X	E	A	O	F	D
X	U	R	T	H	B	M	E	T
D	O	R	D	O	K	A	T	B
K	A	T	O	I	M	L	E	M
T	X	A	K	U	R	R	A	I

bono fotoa



Zein da Bergarako eliza horren izena eta ze auzotan dago?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

SUPER AMARA

Super Amarak emandako
60 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....
.....
IZEN-DEITURAK .....
.....
TELEFONOA.....


Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako **Carlos Gallastegi**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Arantzazun (Arantzazu eta Gomistegi arteko pasiotxoan).

hildakoak

- **Modesta Gallastegi Arregi.** Aretxabaletan, azaroaren 10ean. 91 urte.
- **Maria Luisa Urzelai Gorosabel.** Oñatin, azaroaren 13an. 87 urte.
- **Jesusa Iñurritegi Urzelai.** Oñatin, azaroaren 13an. 89 urte.
- **Tomas Jauregi Jauregi.** Oñatin, azaroaren 13an 76 urte.
- **Susana Larrañaga Guillen.** Bergaran, azaroaren 13an. 24 urte.
- **Xabat Abasolo Zugasti.** Arrasaten, azaroaren 13an.
- **Vicente Arebalo Markala.** Bergaran, azaroaren 15ean. 63 urte.
- **Carmelo Lazkano Larrañaga.** Bergaran, azaroaren15ean. 70 urte.
- **Joxe Urteaga Yarza.** Oñatin, azaroaren 16an. 75 urte.
- **Juan Emilio Barrena Gorostiza.** Arrasaten 2008ko azaroaren 15ean.





Patricio Ayastuy bergararra eta **Maxima Agirrebengoa** oñatiarra 1958ko azaroaren 20an ezkondu ziren Oñatiko San Migel parrokian. Urrezko ezteiak bihar ospatuko dituzte Oñatiko Magdalenan. Animo, bikote, eta zorionak! Eli eta Javierren partetik.



Bergaran bizi diren **Mertxe Urbina** eta **Jesus Ruiz de Larramendi** 1958ko azaroaren 22an ezkondu ziren Bergarako San Pedro parrokian. Urrezko ezteiak bihar ospatuko dituzte familia artean. Zorionak, familiakoen eta bereziki Ikerren eta Olatzen partetik!



Manu Rodriguez eta **Saioa Baena** bihar, azaroaren 22an, ezkonduko dira Arrasaten. Zorionak, bikote familia eta lagunen partetik. Jarraitu orain arte bezalako zoriontsu izaten. Laztan handi bana denen partetik!



Leire Arietaleanizbeaskoa atxabaltarra eta **Angel Moreno** iruindarra bihar ezkonduko dira Aretxabaletako Azatza auzoan. Ospakizuna Akebaso jatetxean egingo dute eta ondoren Tailandiara joango dira bidaian. Zorionak, bikote eta ondo pasau eguna!



Paco Vidriales eta **Felipa Hernandez** orain dela 50 urte ezkondu ziren, azaroaren 20an, Salamancan. Urrezko ezteiak egin dituzten honetan, zorionak eta patxo haundi bat familiakoen partetik! Jarraitu orain arte bezala.

ESKER ONA

Xabat Abasolo Zugasti

Arrasaten hil zen 2008ko azaroaren 13an.

Samin-agurrak bidali dizkiguzuenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko azaroaren 21ean.

ESKER ONA

Susana Larrañaga Guillen

Bergaran hil zen 2008ko azaroaren 13an, 24 urte zituela.

Maitasuna bizitza da
eta maite ditugunak
ez ditugu inoiz ahazten.
Gure bihotzean
eramango zaitugu beti.



Asierren etxekoak:
Asier, Amaia, Gorka eta Naiara, Unai, Nerea eta Ander.
Bergaran, 2008ko azaroaren 21ean

ESKER ONA

Susana Larrañaga Guillen

Bergaran hil zen 2008ko azaroaren 13an, 24 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenei, eskerrik asko
sendikoen izenean.




Bergaran, 2008ko azaroaren 21ean.

URTEURRENA

Miguel Etxezarreta Galdos

Etxeaundi

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, azaroaren 22an,
19:00etan
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Juan Emilio Barrena Gorostiza

Arrasaten hil zen 2008ko azaroaren 15ean.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenei,
eskerrik asko haren emazte,
alaba, guraso eta sendiko guztion izenean.



Arrasaten, 2008ko azaroaren 21ean.

OROIGARRIA

Susana Larrañaga Guillen

Plaentxitik etorri zinan
Gure artera txikitan
Kuxkuxera eta pertsona ona
Zu zinan bixak batian.
Betidanik saltzia ipintzen
Ibili za alde danetan.

Barria be eragin dozu
Askotan gure ahotan.
Adibide bat jartzeagaittik
Marmokekin egun hartan.
Horregaittik zure faltia
somauko dogu benetan



Zure kuadrilakuak.
Bergaran, 2008ko azaroaren 21ean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
Oñati Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio** Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22
Elgeta Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98 **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **120** euro.
Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).



Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

bai euskaran zerbitzua

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Azaroak 21-27

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

Musika



OÑATI
> Donostiako Orfeoi Txikiak emanaldia egingo du etzi, domeka

Donostiako Orfeoi Txiki Abesbatzak emanaldia egingo du etzi, Santa Ana antzokian, 19:00etan, eta sarrerak salgai daude kultura etxean. Isabel Manteconek eta Esteban Urtzelaik zuzenduta, pieza erlijiosoak, herrikoiak... abestuko dituzte.

Jaia



BERGARA
> II. Patataren Feria ospatuko dute bihar, zapatua, San Antonion

San Antonioko Gure Ametsa elkarteak antolatuta, bigarren urtez, Patataren Feria egingo dute bihar, zapatua. 17 postu ipiniko dituzte hainbat produkturekin, eta patatak errioxar erara prestatzeko lehiaketa egongo da. 11:30ean hasiko da.

Erakusketa



BERGARA
> Manu Muniategiandikoetxearen erakusketa, oraindik datorren astean

Manu Muniategiandikoetxeak azaroaren 30era arte izango du zabalik *Nahiaren eta ezinaren* delako erakusketa Aroztegi aretoan. Margolanak, ispilu bat, ikus-entzunezko bat... horiek dira erakusketaren osagaiak.

Musika

ARRASATE
> Arrasate Musikaleko bandak kalejira egingo du

Arrasate Musikaleko bandak kalejira egingo du gaur, egubakoitza.

Pieza hauek joko dituzte: *Egun da Santimamiñe* eta *Ikusi mendizaleak*. Zuzendari berria du bandak: Mikel Markiegi, eskolako tronboi irakasle ere badena.

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita.

ELGETA
> Esne Beltza taldeak doako kontzertua egingo du

Euskal Telebistak antolatuta, Xabier Solanok gidatzen duen Esne Beltza taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza. Sarrera doan da.

Gaur, Espaloia antzokian, 22:30ean.

OÑATI
> Eibarko Sostoa eta Oñati abesbatzen emanaldia

Oñati abesbatzak eta Eibarko Sostoa abesbatzak kontzertua egingo dute agustindarren elizan, ohiko mezaren ondoren.

Bihar, zapatua, meza eta gero.

ARRASATE
> The Casualties eta Krum Bumbs taldeak, zuzenean

AEBetako bi taldek joko dute 3.60 aretoan. The Casualties (New York) eta Krum Bums (Texas).

The Casualties hardcore eta streetpunk doinuak egiten dituen taldea da eta euren abestietan gai politikoak lantzen dituzte, batik bat.

Krum Bums taldekoek ere punk eta hardcore doinuak ekarriko dituzte, eta Hernaniko Afoniakoek, punka.

Bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 22:30ean.

OÑATI
> Oñatiko musika bandak kontzertua egingo du

Udal musika bandaren kontzertua entzuteko aukera izango da etzi.

Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 12:30ean.

ELGETA
> Juan Carlos Perez musikariak kontzertua egingo du

Juan Carlos Perez musikariaren emanaldia egongo da etzi, domeka.

Etzi, domeka, Espaloia antzokian, 20:00etan.

ESKORIATZA
> Santa Zeziliaren omenezko emanaldia egingo du bandak

Santa Zezilia, musikaren zaindaria omentzeko, emanaldi berezia egingo du herriko musika bandak.

Bihar, zapatua, elizan, 20:00etan.

BERGARA
> Santa Zeziliaren omenezko bandaren kontzertua

Musikaren zaindari Santa Zezilia omentzeko, Bergarako bandak kalejira eta kontzertua egingo ditu etzi, domeka.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

Erakusketak

ANTZUOLA, ELGETA
> Hiesaren inguruko erakusketa bisitatzeko aukera

Hiesaren inguruko kartel erakusketak egongo dira. Antzuolan, bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango da Olaranen, 12:30-14:00 eta 18:30-20:30. Bestetik, Elgetako Udalak Espaloia antzokian ipiniko du eguaztenean. Abendura arte egongo da ikusgai.

Antzuolan, aste bukaeran dago zabalik; Elgetan, eguaztenean hasita.

GASTEIZ
> Iñaki Jauregialtzo oñatiarrak erakusketa zabalduko du gaur

Iñaki Jauregialtzo artista oñatiarrak zeramika erakusketa inauguratuko du gaur, egubakoitza, Juan Lopez de Aelen Galería Itinerante arte espazioan (Zapateria, 79). Ekitaldia 20:00etan izango da.

Erakusketa zabalik dago abenduaren 20a arte, astelehenetik zapatura, 19:00etatik 21:00etara.

ARRASATE
> Oñatin bizi den Joxan Iza bergararrak erakusketa ireki du

Bergaran jaio baina azken 20 urteotan Oñatin bizi den Joxan Iza margolariak erakusketa dauka Arregi arte galerian (Maalako Errebala, 8). Abenduaren 4a arte dago zabalik.

Bisita ordutegia: astegunetan, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

PROPOSAMENA

ARRASATE
> 'El barberillo de Lavapiés' zarzuela estreinatuko dute

Francisco Asenjok konposatu eta Luis Mariano de Larrak idatzitako *El barberillo de Lavapiés* zarzuela estreinatuko du Izaskun Murgia elkarte lirikoak bihar, zapatua, Amaian. Lau emanaldi egingo dituzte: bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 19:30ean, eta datorren zapatuan, hilak 28, 20:00etan, eta domekan, hilak 29, 19:30ean. Argazkian, iazko zarzuela.

Emanaldiak bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 19:30ean.



OÑATI
> 'Uraren alde... tantaz tanta aurrera' delako erakusketa

Uraren alde... tantaz tanta aurrera. Ura neurrian, elkartasuna gainezka delako erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, eta hilaren 29a arte egongo da zabalik. Gurutze Gorriak antolatzen du.

Bisita ordutegia: egunero, 18:30-20:30.

ARRASATE
> Naturaren gaineko argazki erakusketa ikusteko aukera

Naturaren argazkilariak 2008 erakusketak munduko argazkilari onenetako batzuen lanak batzen ditu Kulturaten.

Abenduaren 10a arte dago zabalik.

BERGARA
> Juanjo Altunaren ikasleek erakusketa ipiniko dute

Juanjo Altunarekin margogintza ikasten jardun duten herritarrek erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean. Hilaren 28a arte egongo da zabalik.

Bisita ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan: 12:00-14:00.

BERGARA
> Xanti Arrietak erakusketa ipini du Nahikari tabernan

Xanti Arrieta margolari, eskultore eta zeramikagile bergararrak erakusketa ipini du Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

Azaro osoan egongo da ikusteko aukera.

ARETXABALETA
> Uraren inguruko erakusketa egongo da kultura etxean

Ura, bizi iturri izenburuarekin, erakusketa dago Arkupe kultura etxean azaro osoan.

Bisita ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Antzerkia

ARRASATE
> Umore eta magia emanaldia, gaur Iamai kafetegian

Toño magoak umorea eta magia uztartzen dituen emanaldia egingo du.

Gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, gauerdian.

ARETXABALETA
> Umeendako zirku ikuskizuna izango da bihar

Xabi Larreak zirku emanaldia egingo du bihar, zapatua, umeendako. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, kultura etxeko Zaraia aretoan, 17:00etan.

BERGARA
> Leire Iruin kontalariak emanaldia egingo du gaur

Irakurri kanpainaren barruan, Leire Iruin kontalariaren saioa izango da haur

liburutegian. 4-6 urte artekoei ipuinak kontatuko dizkie, 45 bat minutuko saioan.

Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 17:45ean.

ARETXABALETA

> Patxika Lamourren antzezlana izango da gaur

Patxika Lamourrek *Nik egin beharko* delako antzezlana egingo du, helduei zuzenduta. Sarrera 10 euro da.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:00etan.

Ospakizunak

BERGARA

> Kultura astea ospatuko dute Mizpirualde egoitzan

Mizpirualdeko egoiliarrek honako ekintzak izango dituzte: astelehenean, hilak 24, karta txapelketa (17:00) eta musika eskolako saxo, txistu eta klarinete taldeen emanaldia (18:30); martitzenean, hilak 25, toka eta txantxiku txapelketa (17:00) eta musika eskolako txikien abesbatza eta akordeoi eta biolontxelo taldeen emanaldiak (18:30); eguaztenean, hilak 26, bingoa eta opari zozketa (17:00) eta musika eskolako gitarra eta trikiti taldeen emanaldia (18:30); eguenean, hilak 27, modu positiboan pentsatzearen gaineko hitzaldia (16:45) eta musika eskolako flauta eta biolin taldeen emanaldia (18:30).

Ekintza gehiago izango dira azaroaren 29a arte.

Lehiaketak

BERGARA

> XVII. Amodiozko Gutunen Lehiaketa deitu du Jardunek

XVII. Amodiozko Gutunen Lehiaketako deialdia egin du Jardun euskara elkarteak. 1993an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake, jatorrizko eta inoiz argitaratu gabeko gutunekin. Honako helbideetara bidal daitezke lanak: posta arruntez, Amodiozko Gutunen XVII. Lehiaketa; Jardun elkartea, Errotalde jauregia z/g; 20570 Bergara. Posta elektronikoz: *amodiozkogutunak@euskalerria.org*.

Honako sariak emango dituzte: 500 euro, gutun onenarendako; 250, bigarrenarendako; 150, bergarar onenarendako; eta 100 euro, 26 urtetik beerako onenarendako.

Argibide gehiago, *www.jardun.net* webgunean edo 943 76 08 19 telefono zenbakian.

Mugaeguna urtarrilaren 6a da.

Bestelakoak

ELGETA

> 'Che'-ren bidearen gaineko ikus-entzunezkoa emango dute

Hego Amerika motoan Cheren bidetik delako ikus-entzunezkoa emango du Angel Cuerdok, Udalak antolatutako emanaldian.

Eguenean, Espaloian, 20:00etan.

Zinema



Sólo quiero caminar ***

Zuzendaria: Agustin Diaz Yanes.
Aktoreak: Victoria Abril, Diego Luna, Ariadna Gil, Pilar Lopez de Ayala.
Espainia, 2008.
130 min. 18 urtetik gorakoendako.

Agustin Diaz Yanes gidoilariak zuzendari lanetan sartzea erabaki zuen *Nadie hablará de nosotras cuando hayamos muerto*rekin eta horri *Sin noticias de Dios* eta *Alatriste* aurrekontu handiko ekoizpenak jarraitu zioten. Orain, *Sólo quiero caminar*-ekin aipatutako lehenengo lanera bueltatzen bada ere, filmean hiruren aztarnak ikus daitezke: *Nadie hablará de nosotras*…-etik Victoria Abrilek egiten duen pertsonaia eta zinema beltzeko tonua mantentzen da, baina jatorrizko istorioak melodramatik edaten zuen eta oraingoa thrillerra da. *Sólo quiero caminar*-ek zinema beltzaren tentsioa eta usaina du, pertsonaia eta istorio ugari erabiltzen eta nahasten ditu eta irudiek eta kamera mugimenduek argi uzten dute Diaz Yanesek gustua hartu diola zinema zuzendari izateari: kamera mugimendu ikusgarriak ditu, Sam Peckinpah-en *Grupo Salvaje* filma omentzen du eta badu ere *Pulp Fiction*-i keinu bat egiteko astirik.

Istorioaren lau emakume Espainiatik Mexikora doaz. Euren helburua lapurreta bat egitea eta, aldi berean, mendeku hartzea da. Eta horren jasotzailea Mexikoko mafia bada, nabarmena da heriotza, indarkeria eta tragedia ez direla faltako. Filmaren errimoa egokia da, tentsioa antzematen da eta irudien errealismoa indar handikoa da. Oso azalpen gutxi ematen dira, bai lapurretari buruz, bai pertsonaien arteko harremanei buruz; hau dela eta, pertsonaia batzuk zerbait eskematikoak geratzen dira, baina badira beste batzuk indar handikoak; esate baterako, Ariadna Gilek eta Diego Lunak egiten dituztenak: Gilek oso ondo islatzen du pertsonaiaren gogortasuna (iblitzeko eta mugitzeko eran, dituen lehen plano ugarietan); eta Lunak mafian sartutako pertsonaiaren alde samurra erakusten digu.

Antonio Zabala

BERGARA
ZABALOTEGI

Go!azen
Zapatua eta domeka: 17:00.

El orfanato
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

ELGETA
ESPALOIA

Te doy mis ojos
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

El niño con el pijama de rayas
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Papá por sorpresa
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR
UNZAGA

007: quantum of solace
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:30.

GASTEIZ
GURIDI

Saw V
Egubakoitza: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

007: quantum of solace
17:30, 20:00, 22:30.

La buena nueva
17:30, 20:00, 22:30.

El último voto
19:45.

High School Musical 3
17:00.

Las horas del verano
17:30, 20:00, 22:30.

Sólo quiero caminar
17:00, 22:30.

Red de mentiras
17:00, 19:45, 22:30.

Quemar después de leer
19:45, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Amateurs
17:30, 20:00, 22:30.

Bella
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00.

Gomorra
17:00, 19:45, 22:30.

El Greco
17:30, 20:00, 22:30.

Asfixia
18:00, 20:15, 22:30.

Nevando voy
18:00, 20:15, 22:30.

Leonera
18:00, 20:15, 22:30.

No me pidas que te bese porque te besaré
22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

High School Musical 3
12:15, 15:35, 17:45, 20:00.

007: quantum of solace
12:15, 15:45, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

Appaloosa
12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Sólo quiero caminar
19:50, 22:15, 00:35.

Noches de tormenta
20:25, 22:25, 00:25.

Viaje al centro de la Tierra
12:15, 16:15.

Transsiberian
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Quemar después de leer
12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

Red de mentiras
17:15, 19:45, 22:15, 00:40.

El niño con el pijama de rayas
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Una amistad inolvidable
12:15, 16:10, 18:10.

Max Payne
20:10, 22:10, 00:10.

Camino
22:10.

Saw V
12:15, 15:30, 17:30, 19:30, 21:30, 23:30.

Misión en Mocland
12:15, 16:30.

El reino prohibido
12:15, 16:25, 18:25.

La buena nueva
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Una novia para dos
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

El espíritu del bosque
12:15.

Disaster movie
12:15.

Space chimps
12:15, 16:20, 18:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Que parezca un accidente
16:15, 18:15.

Quemar después de leer
20:15, 22:20, 00:30.

High School Musical 3
16:00, 18:20, 22:00.

El niño con el pijama de rayas
20:20, 22:25.

Appaloosa
17:00, 19:30, 22:15, 00:45.

007: quantum of solace
16:00, 17:00, 18:10, 19:30, 20:30, 22:10, 22:45, 00:30.

Noches de tormenta
16:05, 18:05.

Las tierras altas
16:15, 18:20, 20:25, 22:30, 00:30.

Los niños de Huang Shi
16:30, 19:00.

Saw V
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Disaster movie
20:20, 22:35, 01:00.

Red de mentiras
16:30, 19:15, 22:00, 00:45.

El último voto
22:05.

Quemar después de leer
20:15, 22:20, 00:30.

Hermanos por pelotas
16:05, 18:10.

Una novia para dos
16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



Go!azen
Euskal Herria, 2008.
Zuzendariak: Jabi Elortegi, Aitor Aranguren. Aktoreak: Iñigo Azpitarte, Barbara Rivas, Mikel Losada.
90 min. Guztiondako.
Basakabi delako udalekuan, 16 urteko neska-mutil talde bat batzen da. Irati eta Beñat maitemindu egiten dira, baina arazoak ere izango dituzte. Film musikala da, eta euskarazko abesti klasikoak zein gaur egungoak daude. Zulai Plazaola oñatiarra ere agertzen da.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

Gomorra **
Italia, 2008.
Zuzendaria: Matteo Garrone.
Napolesko mafiaren gaineko kontakizuna da, bost pertsonaiaren istorioaren bidez.

Las horas del verano **
Frantzia, 2008. Zuzendaria: Olivier Assayas.
Familiaren arte ondarea zaintzen zuen emakumea hil egiten da, eta hiru seme-alaben arteko desadostasunak sortzen dira.

Sólo quiero caminar *
Espainia-Mexiko, 2008.
Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.
Gloria, Aurora, Ana eta Paloma lapurreta egiten saiatu dira, baina gaizki irten zaie eta Aurora kartzelan dago.

**Noches de tormenta **
AEB-Australia, 2008. Zuzendaria: George C. Wolfe.
Adriennek, banandu berri den emakumeak, krisian dagoen mediku bat ezagutuko du.

**Max Payne **
AEB, 2008. Zuzendaria: John Moore.
Max Payne poliziarendako, justizia edozein arauren gainetik dago, eta horren bidetik ekingo dio familiaren hilketa mendekatzeari.

**Transsiberian **
Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituania, 2008.
Zuzendaria: Brad Anderson.
Transsiberian luxuzko trenean, bi bikotek elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Halako baten, ordea, Roy desagertu egiten da.

La buena nueva
Espainia, 2008. Zuzendaria: Helena Taberna.
1936ko altxamenduaren garaian, Miguel herri sozialista bateko parroko izendatzen dute. Errepresaliatuak defenditzerakoan, Miguelek bere burua arriskuan jartzen du.

**Los niños de Huang Shi **
Australia-Alemania-Txina, 2008.
Zuzendaria: Roger Spottiswoode.
George Hogg kazetari ingeles gaztea Txinara iristen da 30eko hamarkadan, gudaroste japoniarrek herrialde hura hartzen dabiltzan garaian. Ihesaldian, Huang Shi-ko umezurztegira iristen da.

nire aukera



Nikolas Segurola
Artzain Eskola
Oñati

"Babarrunak ditut gustukoen"

Denbora librean, denetarik egiten dut nik. Orain, euskaraz argitaratu den Txileko mutil baten artikulua gaztelaniara itzultzen nabil… horrelakoak askotan egiten ditut. Bertsoak idaztea ere gustatzen zait, batez ere fraide baten urtebetetzea-edo denean, eta egutegirako ere idazten eta batzen ditut lehengo bertso zaharrak-eta. Irakurri ere egiten dut; artzaintzaren gaineko gauzak, normalean.

Horrez gain, Artzain Eskolan bisita gidatuak ere egiten ditut; bihar, adibidez, Martuteneko presoak datoz. Tarteka izaten ditugu bisitak.

Ingurune ederra duzula aprobetxatuta, kanpoan ibiltzen zara?
Bai, gustatzen zait paseotxo bat ematea noizean behin. Bestelako ariketa ere egiten dut: bizikleta estatikoan, suabe-suabe.

Ardiekin ez zara ibiltzen orain, ezta?
Ez, baina Artzain Eskolan badaukat lana: ikastetxeetakoak etortzen dira; hitzaldiak egiten ditut, irakurri egiten diet…

Eguraldi aldetik, zein duzu gustukoen?
Umetan, elurra gustatzen zitzaidan. Orain, elurra mendian ikusteko gustatzen zait, baina aukeran, eguraldi ederra egin dezala!

Bertso bazkarietan-eta zer jaten duzu gusturen?
Jatun ona naiz. Babarrunak eta buzkantza, tripakiak… asko gustatzen zaizkit. Aurreko zapatuan Zegaman izan ginen iloba eta biok, nor bere gaztarekin, eta gero, hamarretakoa egin genuen; tripakiak sagardoarekin, eta postrerako, beste platerkada bat tripaki jan nuen.

Eskolan zer moduz doa ikasturtea?
Aurten, nahiko talde polita daukagu, eta oso finak dira: entzun egiten dute, galderak egiten dituzte…

Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-11-21

Pailazoen jostun arrasatearra

ORIO Arrasateko Argiñe Azkaratek Rosaura Bravorekin Orion josten ditu Pirritx eta Porrotxen arropak

OIHALAK Pailazoen zirriborroetatik abiatuta egiten dituzte jantziak eta oihalak lortzea da zailena

IRATI AGIRREAZALDEGI > ORIO

Eskoriatzan *Piratak* ikuskizuna egingo dute Pirritxek eta Porrotxek azaroaren 29an. Orioko Txintxarri dendan egin dizkiete arropak eta jostunetako bat da Orion bizi den Argiñe Azkarate arrasatearra. Lankide Rosaura Bravorekin sei urtean dihardute Pirritx eta Porrotx janzten.

"Baserritar arropa josten dugu eta behin etorri ziren esanez nola jantzi berriak nahi zituzten. Nire lankideak, Rosaurak, pentsatu zuen baserritar arropa nahi zutela. Pailazo arropa eskatu ziguten eta probak eginez hasi ginen", kontatu digu Azkaratek.

BIZIAK ETA KOLORETSUAK

Estreinaldia baino sei hilabete lehenago pailazoek ikuskizuneko gaia zein den esan eta zirriborro eta ideia batzuk ere eramaten dizkiete. "Horren arabera egiten ditugu diseinuak euren ideiak landuz. Oihalek zeresan handia dute eta beharbada egokiak aurkitzeko izaten dugu arazo gehien. Azken honetarako oihalak Bartzelonatik ekarri ditugu", azaldu digu Argiñe Azkaratek. Eskoriatzan ikusiko ditugun jantziak biziak, koloretsuak eta pirata estilokoak direla aurreratu digu: "Iaz piraten ideiarekin jardun zuten eta aurten hari beretik tiraka jarraitu dute. Bada beste pertsonaia gaizto bat eta haren janzkera ezberdina da".

Pirritx eta Porrotx hain arrakastatsuak izanik eurendako arropa egitea konpromiso handia da Argiñerendako eta Rosaurarendako. "Beti izaten dugu ardura hori ea jendeari gustatuko zaion; izan ere, jantziak lehen begiratuan zeresan handia du".

Pailazoendako ez ezik umeendako ere egiten dituzte jantziak: "Etorri izan zaigu jendea, badakiena Pirritx eta Porrotxen jantziak gurean egiten ditugula, ea eurendako arropa berdinak egingo ditugun galdezka, eta egin izan ditugu Inauterietarako, Gabonetarako... Orain ere badauzkagu gertu estreinatzear dituzten arropen modukoak norbaitek eskatuko balitu. Gogoan dut behin etorri zitzaigula familia bat Bergaratik pailazoen arropak erostera; gero galdetu zigun Porrotxek ea guk egindakoak ziren, ikuskizunen batean ikusi zituelako. Horrek guri ere poza ematen digu".

Josi eta josi denbora daukaten bitartean pailazoak janzten jarraituko dutela esan digu Argiñek. Ea gure ibarreko umeei gustatzen zaizkien Piraten jantziak.



JOSTUNAK Rosaura Bravo eta Argiñe Azkarate Orioko Txintxarri dendan. GOIENKARIA

ahobero

"Jokalari horiei ordain diezaiela Euskal Herriko Ogasunak, ea zenbat kobratzen duten"

Iñaki Azkuna > Bilboko alkatea

Berari ere ez dio ez Euskal Herriko ezta Euskadiko Ogasunak ordainduko, Bizkaikoak baizik. Ogasuna denok garela diote eta denon ondasunak kontuan hartzen diren moduan denon iritziak ez al dituzte bada kontuan izan behar?

iturri onetik

Oinatz Bengoetxea eta Oier Mendizabal pilotariak zango dira Aretxabaletan

Pilotaren inguruko solasaldia antolatu du Loramendi euskara elkarteak abenduaren 4rako. Pilotari ezagunak izango dira berbetan: Oinatz Bengoetxea 2008ko eskuz banakako txapelduna eta Oier Mendizabal 2008ko eskuz binakako txapelduna. Moderatzaile lanak Gorka Etxabe kazetariak egingo ditu. Udaletxe zaharrean jardungo dute eta 19:00etan hasiko da solasaldia.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Confebask eta erregea

Ez dut ulertzen euskal enpresarien zaletasuna monarkiarekiko. Confebask baldin bada Espainia edo Europako enpresarien elkarteetan kide, logikoa litzateke haien ordezkariak gonbidatzea bere 25. urteurreneko ospakizunera. Baina Espainiako erregea? Zer erantsi zion ekitaldiari?

Ibarrean ere egona da borboia, gure korporazioak gonbidatuta. Eta gogoan dut orduan erabili zen hipotesia: euskal enpresa batzuk Espainian jasotzen ari ziren erasoari aurre egiteko modua ote zen... Benetan uste dute hori gure enpresaburuek? Norbaitek gorrotatzen badu euskal enpresa bat izenean *k* hizkia darabilelako, nekez aldatuko du hori erret bisitak. Aldiz, morroi otzanaren moduan ibiltzea oso kaltegarria da askorentzat. Neurtzen dute hori?

ai, ene!



Bi harkaitzi teilatua ipinita, etxea eraikita

Krisiaren eraginez, asko dira etxebizitzen prezioei eurre egin ezin dietenak. Beharbada horrelako etxeak eraikitzea da bidea.

http://fotoscuriosas.net



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatza s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51